

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

ariane.ensunza@gmail.com

Zuzendaria: Gotzon Aurrekoetxea Olabarri

Doktoretza-tesia

Gasteiz, 2015

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU

*Changes typically begin with variation,
with alternative ways of saying the same thing
entering the language.*

Campbell, 2004 [1998]:219

ESKERRAK

Gisa honetako lanak egiten direnean, ezinbestekoa izaten da jendearekin harremanetan jartzea eta horrek berarekin dakarren guztia. Lehenik eta behin, lan honen sustrai eta ezinbesteko osagai diren lekuko edo berriemaile guztiei eman nahi nizkieke eskerrak, beraien egitekoen artean nirekin elkarrizketa egitera etortzeko denbora hartu izanagatik.

Horrez gain, lekukoak aurkitzen lagundu didaten guztiak ere eskertu nahiko nituzke; izan ere, uste baino zailagoa izan baitzait neure kabuz bilatzea behar nituen perfilak betetzen zituzten lekukoak. Beste inoren aurretik, pazientzia eta gogo-biziz kontaktu zein lekukoak lortu dizkidaten ama eta aita eskertu nahi nituzke. Bestalde, bihoazkie nire eskerrik beroenak herrietako lekukoak bilatzen lagundu didaten guztiei.

Berebat, mila esker eman gura nizkieke EuDia ikerketa taldeko lankide denei beraien ekarpen, zuzenketa, ohar eta kritika eraikitzaile guztiengatik; baina batez ere Iñaki Gaminderi, ikerketa honen ibilbide luzean aurkitutako kale ilunei argitasuna ematearren.

Ez nituzke eskertu gabe utzi nahi urte luze hauetan izan ditudan irakasle guztiak, beraiak erakutsi baitidate oraindik egin gabe zegoen bidean lehen pausuak ematen eta, bestalde, beraien esker piztu baitzait dialektologiarako, hizkuntzalaritzarako eta filologiarako grina.

Hala ere, nire eskerrik beroenak tesi zuzendari eta bidegile dudan Gotzon Aurrekoetxeari eman nahi nizkioke, ahal beste ate eta leiho irekitzearren eta nigan konfiantza izatearren.

Aurkibidea

1. Sarrera: azterkizuna eta helburuak	7
2. Marko teorikoa	11
2.1. Bariazio soziolinguistikoa	11
2.2. Bariazio geolinguistikoa	19
3. Metodologia eta corpusa	23
3.1. Bilketa metodologia	24
3.2. Galdetegia	26
3.3. Datuen bilketa	28
3.4. Datuen trataera	30
3.5. Aldagaiak	31
3.5.1. Gizarte-faktoreak	31
3.5.1.1. Herria	33
3.5.1.1.1. Bermeo	36
3.5.1.1.2. Mundaka	39
3.5.1.1.3. Sukarrieta	40
3.5.1.1.4. Busturia	40
3.5.1.1.5. Murueta	41
3.5.1.1.6. Forua	42
3.5.1.1.7. Gernika-Lumo	43
3.5.1.1.8. Ajangiz	44
3.5.1.1.9. Errigoiti	45
3.5.1.1.10. Morga	46
3.5.1.1.11. Muxika	46
3.5.1.1.12. Mendata	47
3.5.1.1.13. Arratzu	48
3.5.1.1.14. Kortezubi	49
3.5.1.1.15. Gautegiz-Arteaga	49
3.5.1.1.16. Ibarrangelu	50
3.5.1.1.17. Elantxobe	51
3.5.1.1.18. Ea	52
3.5.1.1.19. Ereño	52
3.5.1.1.20. Nabarniz	53
3.5.1.2. Adina	54
3.5.1.3. Ikasketak	56

3.5.1.4. Generoa	58
3.5.2. Hizkuntza-aldagaiak.....	58
3.5.2.1. (a) aldagaia	60
3.5.2.2. (i_V) aldagaia.....	63
3.5.2.3. (oa) aldagaia	67
3.5.2.4. (i_a) aldagaia.....	68
3.5.2.5. (au) aldagaia	71
3.5.2.6. (-atu) aldagaia.....	72
3.5.2.7. (dau) aldagaia	74
3.5.2.8. (-tzen) aldagaia.....	75
3.5.2.9. (edun) aldagaia	76
3.5.2.10. (j-) aldagaia	78
3.5.2.11. (zait) aldagaia	81
3.5.2.12. (it) aldagaia.....	84
3.5.2.13. (ind) eta (ild) aldagaiak	88
3.5.2.14. (-kin) aldagaia	92
3.5.2.15. (joan-eroan) aldagaia.....	93
3.5.2.16. (bi) aldagaia.....	95
3.5.2.17. (hau) aldagaia	95
3.5.2.18. (loi) aldagaia.....	97
3.5.2.19. (lar) aldagaia.....	98
4. Datuen-analisia.....	101
4.1. Anlisi geolinguistikoa.....	105
4.1.1. (a) aldagaia	105
4.1.2. (i_V) aldagaia.....	106
4.1.3. (oa) aldagaia	108
4.1.4. (i_a) aldagaia.....	109
4.1.5. (au) aldagaia	111
4.1.6. (-atu) aldagaia.....	113
4.1.7. (dau) aldagaia	115
4.1.8. (-tzen) aldagaia.....	116
4.1.9. (edun) aldagaia	118
4.1.10. (j-) aldagaia	120
4.1.11. (zait) aldagaia	121
4.1.12. (it) aldagaia.....	123
4.1.13. (ind) eta (ild) aldagaiak	124

4.1.14. (-kin) aldagaia	126
4.1.15. (joan-eroan) aldagaia.....	127
4.1.16. (bi) aldagaia.....	128
4.1.17. (hau) aldagaia	129
4.1.18. (loi) aldagaia.....	130
4.1.19. (lar) aldagaia.....	131
4.1.20. Analisi geolinguistikoaren ondorio nagusiak	133
4.1.20.1. (a) aldagaia	133
4.1.20.2. (i_V) aldagaia.....	134
4.1.20.3. (oa) aldagaia	134
4.1.20.4. (i_a) aldagaia	135
4.1.20.5. (au) aldagaia	136
4.1.20.6. (-atu) aldagaia.....	136
4.1.20.7. (dau) aldagaia	137
4.1.20.8. (-tzen) aldagaia.....	138
4.1.20.9. (edun) aldagaia	138
4.1.20.10. (j-) aldagaia	139
4.1.20.11. (zait) aldagaia	139
4.1.20.12. (it) aldagaia.....	140
4.1.20.13. (ind) eta (ild) aldagaiak	141
4.1.20.14. (-kin) aldagaia	141
4.1.20.15. (joan-eroan) aldagaia.....	142
4.1.20.16. (bi) aldagaia.....	142
4.1.20.17. (hau) aldagaia	143
4.1.20.18. (loi) aldagaia.....	143
4.1.20.19. (lar) aldagaia.....	143
4.2. Analisi estatistikoa	144
4.2.1. Adinaren araberako analisi estatistikoa.....	144
4.2.1.1. (a) aldagaia	145
4.2.1.2. (i_V) aldagaia.....	146
4.2.1.3. (oa) aldagaia	149
4.2.1.4. (i_a) aldagaia	151
4.2.1.5. (au) aldagaia	153
4.2.1.6. (-atu) aldagaia.....	155
4.2.1.7. (dau) aldagaia	158
4.2.1.8. (-tzen) aldagaia	160

4.2.1.9. (edun) aldagaia	163
4.2.1.10. (j-) aldagaia	166
4.2.1.11. (zait) aldagaia	170
4.2.1.12. (it) aldagaia.....	174
4.2.1.13. (ind) eta (ild) aldagaiak	177
4.2.1.14. (-kin) aldagaia	180
4.2.1.15. (joan-eroan) aldagaia.....	182
4.2.1.16. (bi) aldagaia.....	185
4.2.1.17. (hau) aldagaia	186
4.2.1.18. (loi) aldagaia.....	188
4.2.1.19. (lar) aldagaia.....	190
4.2.1.20. Adinaren araberako analisi estatistikoaren ondorio nagusiak	193
4.2.2. Analisi estatistikoa herrika	194
4.2.2.1. Ajangiz	194
4.2.2.2. Arratzu.....	195
4.2.2.3. Bermeo	195
4.2.2.4. Busturia	196
4.2.2.5. Ea.....	196
4.2.2.6. Elantxobe.....	197
4.2.2.7. Ereño	197
4.2.2.8. Errigoiti	198
4.2.2.9. Forua.....	198
4.2.2.10. Gautegiz-Arteaga	199
4.2.2.11. Gernika-Lumo	199
4.2.2.12. Ibarrangelu	200
4.2.2.13. Kortezubi.....	200
4.2.2.14. Mendata.....	201
4.2.2.15. Morga	201
4.2.2.16. Mundaka.....	202
4.2.2.17. Murueta	202
4.2.2.18. Muxika	203
4.2.2.19. Nabarniz	203
4.2.2.20. Sukarrieta	204
4.2.2.21. Herrien araberako analisi estatistikoaren ondorio nagusiak	204
4.3. Analisi sailkatzailea.....	205
4.3.1. Analisi sintetikoa.....	206

4.3.2. Anlisi multidimentsionala	209
5. Ondorioak.....	218
6. Etorkizuneko erronkak.....	224
7. Bibliografia	225

1. Sarrera: azterkizuna eta helburuak¹

Ikerketa honen abiapuntua Gernika-Lumoko euskararen aldakortasunari buruz egindako aurreko ikerketa batean dago (Ensunza 2012, 2014). Izan ere, dialektologia tradizionalaren ikusmoldeetik haratago, gure ikerketa hizkuntza-aldakortasunaren ikuspegitik landu genuen. Ikerketa hartan atzerrian gurean baino hedatuago dauden metodologia eta ikerketa-ildoak jarraitu genituen eta molde horiek euskarari aplikatu genizkion. Orduko hartan, hirigune bateko (Gernika-Lumo) euskararen aldakortasun diastratikoa izan genuen aztergai eta, beraz, hautatutako hizkuntza-aldiera bakoitzaren erabilera zein gizarte-faktorek baldintzatzen duen aztertu genuen. Ikerketa horrek bazituen muga batzuk, besteak beste, Gernika-Lumon agertzen zen aldakortasun hori alboko herrietako hizkerek eragindakoa izan zitekeen, baina albo-hizkera horiek zehazki ezagutu ezean, nekeza zen hipotesi seguru bat finkatzea. Hori dela eta, ikerketan sakonago joatearen beharraz, hizkuntza-aldakortasuna maila diatopikoan (geografiaren arabera) ikertzea erabaki genuen, eremu honetako euskararen aldakortasuna hobeto ulertzeko asmoz.

Nolanahi ere den, beti izan dugu presente hizkuntzaren alde soziala, gauza jakina baita hizkuntza gizakiarena den heinean beti izango dela tresna soziala. Beraz, aurretik egindako ibilbideari jarraipena emateko asmoz, Busturialdeko euskararen aldakortasun soziolinguistikoa ere aztertu dugu, adinaren arabera gertatutako desberdintasunei arreta eskaini baitiogu.

Azken urteetara arte, euskararen kasuan eta dialektologian, oro har, ohikoena ikerketak maila diatopikoan egitea izan da; hau da, euskararen aldakortasuna maila geografikotik landu izan da gehienbat eta, beraz, herririk herri dagoen desberdintasunari erreparatu izan zaio, herri bakoitzean bertan dagokeen aldakortasunari bainoago, agian euskalkien sailkapen berria egitea helburu izanik edota dialekto/hizkuntza arteko mugak zehazte aldera (Aurrekoetxea 1995; Camino 2003; Gaminde 1984a, 1984b, 1985, 2007; Zelaieta 2008; Zuazo 1998, 2003, 2008). Bestalde, herri zehatz bateko hizkera aztertu denean, ohikoena dialektologia tradizionalaren bidetik jotzea izan da eta, beraz, landa-eremuetako belaunaldi helduenen euskara aztertzeari ekin zaio (Agirrebeña, A., Maiz, B., Muniozguren, F., Sarasua, A. eta Zabaleta, M. 2007; Agirrebeña, A., Alberdi, I.,

¹ Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzaren *Ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko laguntzen programa*-ri esker burutu da (kod. BFI-2010-253).

Mendiguren, X. eta Sarasua, S. 2007; Agirretxe, J. L., Lersundi, M. eta Olaetxea, O. 2000; Apalauza 2008a, 2008b, 2010, 2012; Aranberri, F. 1996; Arretxe, J. 1994; Azurmendi, J. M. 1996, 1998; Del Castillo, V., Giralt, B. eta Romo, J. A. 2001; Elortza, J., Garro, E., Ormaetxea, J. L., Garai, J. M. eta Plazaola, E. 1999; Ensunza, A. eta Reguero, U. 2011; Erdozia, J. L. 2001; Etxebarria, J. M. 1988; Fraile, I. eta Fraile, A. 1996; Gaminde, I. 1990, 1997, 1999, 2000, 2001a, 2001b, 2001c, 2001d, 2001e, 2003a, 2004, 2005, 2006; Herrera, H. eta Bilbao, X. 1992; Hurtado, I. 2001; Iturain, I. eta Loidi, L. 1995; Larrañaga, J. 1998; Makazaga, J. M. 2010; Mugarza, P. 2006; Ormaetxea, J. L. 2002, 2006; Rotaetxe, K. 1978; Salazar, B. 2001, etab.; Legarra, H. 2011; Iglesias 2014)

Era berean, euskararen aldakortasunaren inguruan egin diren ikerketa gehienetan ohikoa izan da, herrietako hizkerak deskribatzerakoan, hiztun komunitate osoa berdin mintzatuko balitz bezala tratatzea. Hau da, herri bakoitzeko mintzoaren berri ematerakoan, forma bat eta bakarra ematea izan da ohikoena. Hori dela eta, euskarari dagokionez, ezer gutxi dakigu herri batean edo euskalki barnean gertatzen den aldakortasunaren inguruan. Gainerako hizkuntzetan (batez ere ingelesean), ostera, aspaldi xamar da alor honetan aurrerapauso nabarmenak egin direna (Labov 1963; Trudgill 1974; Fasold 1969; Milroy, L. 1980; Milroy, J. 1981; Eckert 1989; Tagliamonte 2001, etab.). Gainera, gaur egun ere ildo bera jorratzen jarraitzen dute izeneko ikertzaileek zein gazteagoek; horren lekuko da bi urterik behin antolatzen den *ICLaVE* kongresua (*International Conference on Language Variation in Europe*), esate baterako.

Hala ere, aitortu behar da azken urteotan gurean ugarituz joan direla hizkeren barnean gertatzen den aldakortasuna aztertzen duten ikerketak, batez ere, EuDia ikerketa-taldeak egindako lan ugariari esker. Hortxe ditugu, besteak beste, Aurrekoetxearen lana (2008), non Dimako euskararen gertatutako bariazioa edo aldakortasuna aztertzen den eta Otxandioko adinaren arabeko hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duen Ormaetxearena (2008), adibidez. Halaber, hortxe ditugu ikertzaile berriek aldakortasunaren inguruan egindako beste hainbat lan ere, Garmendiak (2003, 2008) ikuspegi soziolinguistikotik egindako Zaldibiako hizkuntza-aldakortasunaren inguruko lana; Santaziliaren (2009) Luzaideko euskararen adinaren arabeko bariazioaren azterketa; Unamunoren (2010) Gizaburuagako hizkeran dagoen bariazioaren inguruko lana; Unamuno, Ensunza eta Ormaetxeak (2012a, 2012b)

euskararen sintaxiaren inguruan egindako ikerketa; Ensunzaren (2012, 2014) Gernika-Lumoko hizkuntza-aldakortasunaren inguruko azterketa, etab. Berebat, Gaminderen ikerketa ugariak erakutsi dute hainbat herritako euskararen adinaren arabeko aldakortasuna ez eze, generoaren arabeko aldakortasuna ere badela (Gaminde 2003b, 2009, 2010a, 2010b; Gaminde eta Zubillaga 2010; Gaminde eta Romero 2011; Gaminde eta lag., 2012). Ondorio berera heldu da Ensunza ere (2012, 2014) Gernika-Lumoko hizkerari dagokionez. Horrez gain, Lujanbioren (2011) master tesiak ere aurrerapen handia ekarri du euskararen aldakortasunaren inguruan; baita Apalauzaren (2008a, 2008b, 2012) lanak ere.

Busturialdeko hizkerek ageriko batasuna daukate; horren adierazle da Zuazok bertoko hizkera sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalki nagusien arteko zubi-hizkeratzat sailkatzea, adibidez. Zubi-hizkera den heinean, ezaugarriak partekatzen ditu bai sartaldeko azpieuskalkiarekin, bai sortaldekoarekin; baina, horrez gain, propio bereak diren ezaugarriak ere izan ditzake:

Tarteko hizkera horiek ez dagozkie erabat eremu *honi edo hari*. Eremu *honen eta haren* ezaugarriak dituzte aldi berean, eta ez eremu honenak ez harenak ez direnak ere bai sarri askotan. (Zuazo 2003: 62)

Gainera, tarteko-hizkera izateak berekin dakar hizkuntza-aldakortasun handia dagoen eremua izatea. Hori dela eta, ikerketa honetan herririk herri dagoen berdintasun eta desberdintasunetan jarri dugu arreta, baita belaunaldi desberdinen artean dauden aldeetan ere, aldaketaren noranzkoa detektatzeko asmoarekin.

Ikerketa honen helburua, beraz, Busturialdeko hizkuntza-aldakortasuna aztertzea eta honen berri ematea da. Horretarako, Busturialdea osatzen duten 20 herrietako euskara aztertu eta elkarren artean konparatu dira eremu geografiko honetan dagokeen bariazioa nola gertatzen den hobeto ezagutzeko. Hala ere, lan honek helburu bikoitza du; alde batetik, Bizkaiko erdialdean dagoen Busturialdea eskualdean gaur egun herrien artean dagoen bariazioa aztertzeaz gain, adin desberdineko hiztunen artean dagoen hizkuntza-aldakortasuna ere aztertu da; bestela esanda, Busturiadean bai geografikoki bai soziolinguistikoki dagoen aldakortasuna da aztertu dena. Nolanahi ere den, ez da lan honen helburua mendebaldeko euskalkien (edo, oro har, euskalkien) sailkapena egitea, hain eztabaidatua izan den eskualde honetako euskara deskribatzea, eta bertan dagoen eta egon den aldakortasuna azaltzea baizik.

Gure datuen azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa laguntzeko, programa estatistikoez baliatu gara. Besteak beste, similaritate mapak atera ditugu herri txikiak erdiguneetatik nola banatzen edo batzen diren ezagutzeko eta herrien eta belaunaldien arteko berdintasunak aztertzeko; cluster analisiak egin ditugu hizkerak norantz ari diren aldatzen ikusteko; eta distantzia matrizeak aterako ditugu herri batetik bestera dauden distantziak neurtzeko.

Lan hau horrela egituratu dugu: sarrera honen ostean, ikerketa honetan erabilitako marko teorikoa azalduko dugu eta historia txiki bat egingo dugu orain arte egon diren aurrekariak korronteka azalduz (2§). Jarraian, ikerketa gauzatzeko erabilitako metodologia eta corpusa azalduko ditugu (3§); bertan, batetik datuen bilketa egiteko erabilitako sistema azalduko dugu eta izandako zailtasun edo arazo edo oztopoak ere azaleratuko ditugu; bestetik, aztertutako gizarte-faktoreak eta hizkuntza-aldagaiak zeintzuk diren zehaztuko dugu. Ostean, bildutako datuen analisi geolinguistikoa, analisi estatistikoa eta analisi sailkatzailea egingo ditugu (4§). Bukatzeko, gure ikerketatik ateratako ondorio nagusiak laburbilduko ditugu (5§) eta etorkizunerako erronkak planteatuko ditugu (6§).

2. Marko teorikoa

Oro har, Laboven (1963-2010) eta bere ondorengoen (Peter Trudgill 1974-2011; Ralph Fasold 1969; Lesley Milroy 1980-2003; James Milroy 1981-2003; Sali A. Tagliamonte 2001-2012; Penelope Eckert 1989-2003) lan ugarietako ikusmolde eta ideiak dira ikerketa honetan jarraitzen direnak; hau da, hizkuntzaren aldaketa ezin daiteke ulertu ez bada hiztun komunitatearen testuinguru sozialari lotua; izan ere, presio sozialak etengabe ari dira hizkuntzan eragiten. Eta, nola ez, presio horiek hiztun-komunitatean gizarte-faktoreen arabera desberdintasunak eragiten dituzte hizkuntza-sisteman. Gainera, hizkuntza izaera dinamikoa duen sistema gisa ulertu behar da, izaera aldakorra duena eta, beraz, etengabeko aldaketan dagoena.

2.1. Bariazio soziolinguistikoa

Lan honetan behin eta berriro errepikatuko den ideia da hizkuntzaren izaera dinamikoarena. Hala ere, hizkuntzari ez zaio beti onartu gaur egun ukazina zaion izaera dinamiko eta aldakorra eta, beraz, ulertzekoa da gizarte-faktoreak aintzat hartu ez izana azken mendera arte. Gainera, dialektologiak hainbat korrante izan ditu historian zehar eta bakoitzak bere erara ulertu du hizkuntza eta hizkuntzaren egitura.

XIX. mendeko neogramatikoen arabera hizkuntza-aldaketak hizkuntzaren barrenean gertatzen dira, sistematikoki eta erregelak hertsiki aplikatuz. Hizkuntzalari askok (Mitxelena 1961; Trask 1996) defendatu dute aldaketaren erregularitasuna, hau da, aldaketa foniko bat posible den kasu guztietan gertatzen dela eta, beraz, aldaketak hots hori duen berba guztiei eragiten diela edo, behintzat, hots hori testuinguru jakinetan duten berbei. Baina dialektologia geografikoaren oinarri sendoek, aldaketen erregularitasuna dirudiena baino konplexuagoa dela erakutsi dute isoglosa lexikoen bidez (*apud* Chambers & Trudgill 1994: 62). Izan ere, aldaketak ez dira modu uniformearen gertatzen hizkuntzan eta, beraz, neogramatikoek bilatzen dituzten aldaketa erregular horietara heltzeko, hizkuntza ezinbestean desoreka garaietatik pasatu behar da. Hauxe dio Gorrotxategik (2011: 66) aldaketen abiadura dela eta:

Es verdad que los cambios lingüísticos no se producen con un ritmo uniforme, ya sea el ritmo de índole universal, relativo a una familia lingüística, área o lengua individual. La historia conocida de muchas lenguas muestra momentos de gran aceleración y otros de equilibrio.

Gorrotxategi aldaketa diakronikoez ari den arren, azalpen honek berdin balio du aldaketa sinkronikoetarako ere. Izan ere, ikerketa sinkronikoez aldaketa diakronikoak zehatzago ulertzen eta azaltzen laguntzen dute. Sturtevant-ek (1947: 8. kap.) hizkuntzaren aldaketan hiru garai bereizi zituen: hasiera garaia, hedatze garaia eta burutzea. Aldaketaren hasierako garaian, gizarteko talde murriztu batean bakarrik agertzen dira aldaerak. Hedatze garaian, gizarteko talde murriztu hori zabaldu egiten da eta elkarreagin sozialaren bidez forma zaharrekin lehian sartzen da. Burutze garaian, aldaera ahulenak galdu egiten dira eta aldaketak erregulartasuna lortzen du. Beraz, aldaketen erregulartasuna desoreka garaiaren amaierako fasea baino ez da.

XX. mendearen bigarren erdian ikertzaile europar eta amerikarrak dialektologia modu zehatzagoan lantzeko beharraz jabetu ziren eta estrukturalismoaren bidea jarraitu zuten horretarako (Weinreich, Trubetzkoy, Bloomfield, Martinet, Jakobson, Coseriu, etab.). Atalkako sistemez, azpisistemez, mikrosistemez eta diasistemez arduratu ziren funtsean eta, beraz, aniztasunaren barruko batasuna ikertzen zuten; atal desberdinez osatutako sistema-multzoa sistema handiagoetan nola egituratzen den, alegia. Sistemak egitura hertsizat hartzeak, hizkuntzan halako estatismo erlatiboa dagoela iradokitzen du (Camino 2009: 422). Bestalde, neogramatikoez proposatutako eztabaidak ikuspegi estrukturalistatik birformulatu zirenean, beste zalantza batzuk sortu ziren, hala nola: zein da aldaketa fonikoaren oinarritzko unitatea? Galdera honi erantzunez, Bloomfieldek ([1933] 1964: 364), *fonemak* direla defendatu zuen. Kontrako ikuspegitik difusio lexikoaren teoria birformulatu zen (Wang 1976) eta honen arabera aldaketarako oinarritzko unitatea *hitza* da.

Dialektoak sailkatzerako orduan estrukturalismoak ezarritako eredu zientifikoak onura handiak ekarri zituen, argi erakutsi baitzuten ezaugarriak sistema bati lotuta daudela. Hala ere, hizkuntzak eta hizkerak aztertzean beti ez da erraza jakitea zer den zinez estrukturala eta zer ez; areago dena, inoiz ikusi da eremuak banatzeko eta sailkatzeko, estrukturala ez den alderdi fonetiko bat emankorrago eta funtzionalagoa izatea, estrukturalagoa den beste alderdi fonologiko bat baino; gertatu da, inoiz, hitzunek oharmen aldetik, gertakari fonetiko bati fonologikoa den beste bati baino garrantzi gehiago eman izana (Chambers eta Trudgill 1994: 98). Avram estrukturalistak berak aitortu du hizkuntza-geografian estrukturalak ez diren gertakari fonetikoak aztertzeak duen garrantzia (1977: 24-25). Are gehiago, dialektologian baliatzeko hautatzen den hizkuntza-ezaugarri batek ez du lotura estruktural edo ontologiko

berezirik geografia-hedadura bera duten beste ezaugarriekin, berarekin batera isoglosa-sorta osatzen duten gainerako beste ezaugarri edo kideekin; lotzen dituen, funtsean, eremu berekoa izatea da, hizkuntza-erkidego bateratu bateko partaide diren jendeek eremu batean baliatuak izatea, ez hizkuntzaren barreneko gramatikan kokagune iduriak edukitzea; horregatik, nabarmendu beharrekoa da beren arteko lotura ez dela estrukturala edo ontologikoa (Camino 2009: 433).

1950. urterako hizkuntzalari batzuek estrukturalistei salatu zieten ez zutela behar bezainbat kontuan hartzen giza hizkuntzaren adimenezko izaera, eta azalean ez zeuden gertaerak ez zituztela aztertzen. Noam Chomsky hizkuntzalariak, estrukturalistei aurre egin zien hizkuntza guztietan egitura unibertsalak zeudela esan zuenean (gramatika unibertsala), eta berriro ere hizkuntzalaritzaren helburuak aldatu zituen. Hizkuntza aztertuz adimenaren lana aztertu nahi izan zuen, eta estrukturalistek baztertutako teoria mentalistari garrantzia eman zion: hizkuntza burmuineko zati baten gaitasun batean datzala azpimarratu zuen, ikusmena edo mugimendua bezala. Hizkuntzaren ezagupen inkontzientea (*competence*) aurkitzea zuen helburu, esaldi kopuru amaigabea (*performance*) azterketaren oinarrian zuela. Gramatika *sortzaile-bihurtzailea* deitu zitzaion joera honi. 1957an Chomskyk lehenengo aldiz aipatu zuenez geroztik, gramatika sortzaileak (*generative grammar* delakoak) etengabe izan ditu aldaketak, Hatsarre eta Parametroen Teoria kasu. 1970. urteaz gero, hizkuntzalaritza sortzaileak sintaxiaren eta semantikaren arteko harremanak aztertu ditu batez ere. Generatibismoa naturalismoarekin, natur zientziekin (bereziki biologiarekin) eta filosofiako adar objetibistarekin du lotura.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, dialektologia sortzailearen inguruko auziak ugari ziren garaian, beste hizkuntzalari batzuek dialektometria den jarduera estatistiko berritzaile eta multikonparatzailea eraiki zuten. Metodologia hau dialektologiaren ohiko hainbat arazo sakoni konponbidea emateko asmoz abiatu zen bere garaian; izan ere, dialektometriak galdera interesgarri asko ekarri du geolinguistikaren eta hizkuntza-aldakortasunaren arloetara.

Dialektometriaren metodologia gehien garatu duen hizkuntzalaria Salzburgoko unibertsitateko irakasle den Hans Goebel izan da (1981, 1982, 1987, 1989, 1992, 2002, 2003, 2005), baina mundu mailan oso diziplina ezaguna, garatua eta erabilia da prestigiodun hainbat hizkuntzalariren artean (Seguy 1971, 1973a eta 1973b; Guiter

1973; Philips 1985; Viereck 1988; Kessler 1995; García Mouton 1999; Melis 1989; Bauer 2002-2003; Nerbonne eta Kretzschmar 2003; Clua 2004, 2010; Sousa 2006; Alvarez, Dubert eta Sousa 2006; Houtzagers, Nerbonne eta Prokic, 2010; Szmrecsanyi 2012...). Hala ere, hastapenetan honelako lanak egiteko tresneria informatiko egokirik ez zen baliatzen hizkuntzalaritzan. Hogeita hamar urteren buruan, Goebel-ek finkatutako “Dialektometria Korrelatiboa”-ren ildotik hasi ziren aurrekarien bideak jorratzen. Euskal Herrian, bide hau jarraitu zutenetakoa dugu Aurrekoetxea (1992, 1995, 2009, 2012).

Dialektologialari askok, ostera, eszeptiko begiratu diote, bereziki hizkuntza-ezaugarri guztiekiko halako neutrotasuna aldarrikatzen duelako eta datu guztiak maila kualitatibo berean kokatu behar direla hatsarre nagusizat daukalako. Euskal Herrian bertan ere hizkuntzalari batzuek gogor egin dute metodologia honen kontra. Honela dio Caminok (2009: 87):

Eredu honek darabilen jardunbide matematikoak, ez du konfiantza handirik lortu hizkuntzalarien artean: eredia itemetan oinarritzen da eta datuen azken zenbaketan, item guztiei garrantzi bera aitortzen zaie, 1 ala 0; horrela nekez asma dezake bi hizkeraren arteko berdintasun edo urruntasun estrukturalaren berri ematen.

Camino, ordea, dialektometriaren ariketa estatistiko bakarraz ari da: Levenstein algoritmoaz, hain zuzen ere. Baina dialektometriak IPI neurriaren bidezko ariketa estatistikoak egitea ere ahalbidetzen du.

Beste batzuetan funtsik gabeko arrazoiak eman dituzte dialektometriaren kontra egiteko (Apalauza 2010: 164):

Nolanahi ere, dialektometriaren jardunak zalantza ugari eragiten du hizkuntzalarien artean, emaitzak ez baitira guztiz fidagarriak, eta eredu matematikoa hotz gertatzen baita dialektologiaz aritzeko.

Beste batzuetan, ostera, ikerketatik ateratako emaitzekin bat ez etortzearen ondorioz kritikatu izan da (Zelaieta, 2008: 84):

Ados gaude Aurrekoetxearekin Goizueta dela lexikalki (nahiz linguistikoki) gehien aldentzen den Bortzerrien inguruko herri nafarra. Hala ere, hizkuntzalari bizkaitarraren datuek hori adierazten badute ere (1992: 107), Lesakatik Aurizko lexikoa Goizuetakoa baino hurbilago egotea aski sinesgaitza zaigu.

Orain artean metodologiaren aldetik aurkeztu ditugun joerek, erakutsi digute dialektologia tradizionalan, inplizituki edo esplizituki sinesten dela, hizkuntza-ezaugarri batzuek dialektoen arteko mugak finkatzeko balio handia dutela eta beste batzuek ez. Hizkuntzalariak hautatzen dituen ezaugarri horiek mintzoen motak edo tipoak finkatzen dituzte; honetarako ez dira hizkuntzazko ezaugarri guztiak baliatzen, ezaugarri-sail bat hautatzen da, espezie edo dialekto bakoitzari dagozkion isoglosak zein diren adierazten digu ezaugarrien sail horrek. Dialektometriak, ordea, tasun sailkatzaileen hautuaren arazoa saihesten du eta geografia-espazioan gertatzen den aldakortasun dialektala matematikoki neurtzen du. Izan ere, dialektologia tradizionalan ezaugarriak dialektologoak berak hautatzen dituenek, hautaketa subjektiboa da eta, gainera, datu gutxitan oinarritutako azterketa egiten da. Dialektometrian, ostera, datu kopuru handiak erabiltzen dira eta, ez denez aukerarik egiten, objektiboagoa da. Hortaz, dialektometriak eskaintzen duen sailkapena sinesgarriagoa da.

Beste alde batetik, dialektometria baliatzen duten hizkuntzalarien ustez, hizkuntzaren aldakortasunak espazioan gaindi ageri dituen neurriek edo mailek mintzotzeko nola eragiten dieten erakusteko, eredu neurtzaile hau egokiago da ohiko dialektologia baino. Esate baterako, Gotzon Aurrekoetxea hizkuntzalaria honela zuzentzen da bere jarduna defendatzeko (Aurrekoetxea, 2005: 110-111):

Sailkapenaz jardutean hizkuntzalari zein dialektologoa gainontzeko zientzietan sailkapenentarako erabiltzen dituzten prozedura eta metodologia erabiltzera behartuta dago bere lana sinesgarria izan dadin. Prozedura sailkatzaile hauek arruntak dira bai soziologian, bai biologian, bai geografian, antropologian, psikologian zein beste diziplinetan. Beste behin ere esana dudan moduan, gure inguruko zientzietarako baliagarri diren prozedurak ez ote da zilegi hizkuntzalaritzan ere erabiltzea? Zilegitasun osoa dugula uste dugu eta horrela ulertu da hizkuntzalaritza aplikatuan, zein dialektometria izenaz ezagutzen den disziplinan, eta jada nazio eta hizkuntza desberdinetan erabilia izan da (Goebel, 1992: 433-434).

Beste alde batetik, dialektologia tradizionalaren bidetik egindako ikerketek galdera bakoitzeko erantzun bakarra onartzen zuten, hiztunaren baitan gertatu ohi diren aldaketak edo hizkeraren barne bariazioa baztertuz. Bestalde, hiri dialektologian hiztunak egindako hautaketa hauek, “aldakortasun libre” edo *free variation*-tzat hartzen ziren. Soziolinguistikak, ostera, erakutsi du aldakortasun hori ez dela librea, gizarteko zein hizkuntzako eragileek eragindakoa dela baizik. “Hizkuntza-aldagai”-aren edo *linguistic variable*aren adigaia dugu hau: hizkuntza-unitate bat, bi aldaera edo gehiago

izan ditzakeena eta beste gizarte edo hizkuntza-aldagai batzuekin aldakortasun erlazioan tartekaturik dagoena.

Azterketa dialektaletan aldakortasun soziala aintzat hartzen hastea, ez da bat-batean gertatutako aldaketa; denbora-tarte handia behar izan da honen garrantziaz jabetzeko. Gisa honetako lanen oinarriak aitzindari izan diren hainbat ikerlarik finkatu dituzte. Ikuspegi orokor honetan, aspektu soziolinguistikoaren ikerketak Jud eta Jaberg-ek *Sprach- und Sachatlas Italiens un der Südschweiz*-en (1928) finkatutako oinarri jarraituta egin izan dira. Desberdintasun diastratikoak ikertzeko kezka jada bazuen tradizio bat, baina atlasetan ez zen ordura arte modu sistematiko batean gauzatu. Bi ikerlari hauen lanak beraien maisu zen Gilliéron-en aurrean garapen handia ekarri zuen hainbat aspektutan: hizkuntzaren biologian eta soziologia linguistikoan sakontzen zuten. Atlas honek, beraz, geografia linguistiko gilliéronianoaren aurrean ikuspegi berri baten hasiera markatu zuen; izan ere, ordutik aurrera berbak etnografiarekin harremanean ikertzen hasi baitziren.

Alde batetik, inkesta dialektaletan aspektu soziologikoak islatzeko beharrezana ikusten zen eta, bestetik, foku urbanoetatik landa-komunitateetara gertatzen diren irradiazio linguistikoaren prozesuak ikertzeko beharra ere. Inkestak hirietan egitea beharrezkoa zela konturatu ziren eta, beraz, hauek egokitu eta biderkatu egin behar izan ziren errealitate berri hau kontuan izanik. Bide honetatik sortu ziren gerora soziolinguistikaren aitzindari izango zen Rousselot-en ikerketa, adibidez. Bertan, Celfrouin herrixkako hizkera aztertu zuen eta belaunaldien arteko aldakortasuna aztertu zuen. Gauchat-ek egindako ikerketak ere ildo bertsua jarraitzen zuten, bertan, Charmey-ko aldakortasuna aztertu baitzuen adina eta generoa kontuan izanik.

1952an *Orbis* aldizkariaren lehenengo alea argitaratu zen, emakumeen hizkerari eskainia. Artikulu hauen artean ikus daitekeenez, inkesta dialektaletan emakumearen parte-hartzearen aldekoak eta kontrakoak aurkitzen dira. Espainian, gailendu den jarrera dialektologia tradizionalaren bidetik doana izan da, salbuespen batzuk dauden arren; hala nola, G. Salvador-en “Fonética masculina y fonética femenina en el habla de Vertientes y Tarifa (Granada)” (1952) edota M. Alvar-en “Diferencias en el habla de Puebla de Don Fadrique (Granada)” (1956) eta “El cambio *-al, -ar > e* en andaluz” (1958).

Espainiako eskualde-atlasetan emakumeen presentzia lehenengo garaietako atlasetan baino altuagoa da: Gilliéron-ek emakumezko lekukoak %8,4 erabili zituen eta Jud eta Jaberg-ek %8,2. Hedadura txikiko atlasetan, kopuruak gora egiten du, esate baterako, *Atlas del Lionesado*-n emakumeen presentzia %34 da eta *Atlas del Macizo Central*-en %44. M. Alvar-en atlasetan, *ALEA*tik ateratako ondorioetan oinarrituta, emakumeen presentzia oso garrantzitsua da: *ALEICan*-en emakumeen presentzia handia izan zen eta, *ALEANR*-en ere, baina kasu honetan bigarren mailako lekuko gisa inkestatu ziren.

Beraz, gizarte-aldakortasuna aztertzeari hasi zitzaion ematen garrantzia; gizarte jakin bateko populazioa osatzen duten maila desberdinetan dauden hizkuntza-kodeen konbinazioa aztertzeari ekin zitzaion, herrixken, eskualdeen ala eremu zabalagoen arabera: zaharrak eta gazteak, gizonak eta emakumeak, hiritarrak eta herri txikietakoak, bertakoak eta etorkinak nahi ziren aztertu hizkuntzaren aldetik (Bouvier 1998: 780).

Testuinguru horretan, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera abegikor hartu ziren Labov soziolinguistaren lan egiteko era, bere oinarri teorikoak eta teknikak. Horrela, hizkuntzaren baitako aldakortasuna hizkuntzalaritzaren periferiatik erdigun-erdigunera pasatu zen eta erakutsi zen erregularitasuna eta egitura ez daudela heterogeneotasunarekin etsaiturik. Hizkuntza-aldakortasuna pertsonen arteko hizkuntza-harremanen alorrera eta pertsonaren beraren baitako erabileren azterketara iragan zen, eremu inter eta intra-pertsonalera, alegia. Hizkuntzalaritza sortzaileak “hautazko arauak” deitzen dituenak soziolinguistikako aldagai edo *variableak* dira, baina jakintzagai honek agerraldien maiztasunaren neurria erantsi die. Hizkuntza aztertzeo Labov-ek izan duen ikuspegiaren ezaugarri nagusia “paradigma dinamiko”-ari dagokio: hizkuntza ez da egitura estatikoa, gizarte-sistema dinamiko bat baizik, etengabe higitzen eta aldatzen ari dena.

Labov-en aurretik ez zen kontuan hartzen hizkuntza-aldaren balorazio soziala, uste baitzen hizkuntzaren inguruko sentimendu eta pentsamoldeak eskuraezinak izateaz gain, hizkuntzalaritzatik kanpo zeudela (Bloch eta Trager 1942). Baina Labov-en (1983 [1972b]: 30) berbak geure eginez:

No todos los cambios están perfectamente estructurados, y ningún cambio ocurre en un vacío social. Incluso la más sistemática mutación en la cadena hablada se produce con una especificidad de tiempo y lugar que exige ser explicada.

Dena dela, salbuespenak ere egon dira denbora tarte horretan, iritzi hauen gainetik hizkuntza-aldakortasunaz arduratu diren ikertzaileak ere izan direlako; esate baterako, hiztun-komunitate jakin bateko (Charmey, Suitza) aldaketa fonetikoaren inguruan Gauchat-ek (1899-1904) egindako ikerketa zehatza eta urte batzuk geroago Hermann-ek (1929) leku berean, baina ondorengo belaunaldiarekin egindako ikerketa. Gauchatek (1905) erakutsi zuen neogramatikoek landa-dialektoen homogeneotasuna gainbaloratu egin zutela, bere analisiak erakusten baitzuen adinarekin gorabeherak erakusten zituzten aldagaiak zeudela: adibidez, belaunaldi helduenak /k/ aldaera sabaiaurrekoa erabiltzen zuten, belaunaldi gazteenak /j/ eta tarteko belaunaldiak bien artean txandakatzen zuten. Hala ere, Goidanich (1926) neogramatikariak erantzun zuen Gauchaten emaitzek ez zutela aldaketa fonikoa islatzen, mailegu dialektalaren emaitzak baino: tarteko belaunaldiak gurasoengandik mailegatu zituzten forma batzuk eta seme-alabengandik besteak. Neogramatikoaren arrazoibide hau, aldaketa fonikoen garapen erregular eta uniformearen oinarritzen zen eta, beraz, komunitate bateko hiztun guztiek forma bera erabili behar zutela uste zen. Izan ere, neogramatikoentzat hizkuntzan gertatzen diren aldaketak maileguak, imitazioak edota ausazko aldaketa dira. Baina Labovek bere ibilbide luzean egindako lanetan erakutsi du badirela gizarte-faktoreei lotutako aldaketa fonetikoak ere, hala nola, adina, klase soziala, generoa eta etnia (Labov 1963: 74):

The patterns that have emerged from these undertakings have demonstrated that linguistic change is not only the result of universal principles but is also shaped by the social context in which it occurs.

Nolanahi ere, Weinreich, Labov eta Herzogen esanetan (1968 [1953]: 100-101), komunitatearen ikuspegi soziolinguistikoarentzat hain garrantzitsua den heterogeneotasuna, heterogeneotasun *ordenatua* da eta hau ez da neogramatikoaren ikuspegiaren hain desberdina. Izan ere, Milroy eta Gordon-ek (2003: 7) dioten bezala:

For variationists, not only is variation essential and intrinsic to human language, but the detail of systematic, socially embedded variable behavior is the key to an understanding of dynamics of language change.

Gaur egun, erabat onartua dago hizkuntzaren barne-faktoreek aldaketa eragiten dutela sisteman, baina badira aldaketa eragiten duten kanpo-faktoreak ere, hala nola, gizarte eta kultura aldagaiak. Soziolinguistika bariasionistak (*Variationist Sociolinguistics*) hizkuntzan berezkoa eta sistematikoa den aldakortasuna lantzen du, bai ikuspegi diakronikotik, bai sinkronikotik, helburua barne-faktoreak eta kanpo-faktoreak

elkartzen dituen mekanismoak nola funtzionatzen duen ulertzea baita (Sankoff 1988: 157). Labovez geroztik, aldagaien arteko elkarreragina aztertzen duten analisi gehienek dituzte kontuan kanpo-faktoreak eta barne-faktoreak. Gaur egun aldakortasunaz diharduten ikerketetan, aldaera linguistikoen fenomenoak honela ulertzen da (Tagliamonte 2012: 9):

In this type of analysis the critical component is that the data come from the recurrent choices speakers make in the course of production. In this way, each choice is viewed not simply as an instance or token of use, but as a choice made within the context of the grammar from which it comes. When a large body of repeating tokens is part of the analysis, the choices can be assessed statistically so as to uncover the meaningful patterns of use (Cedergren and Sankoff 1974; Labov 1969; Poplack and Tagliamonte 2001: 89). The choices are taken to represent the (underlying) variable grammar of the speaker as well as the grammar of the speech community to which she belongs.

Bestalde, hizkerak aztertzeko metodoak ere aldatu egin dira eta, gaur egun, ikertzaile askok baliatzen dituzte estatistikaren onurak aldakortasuna aztertzeko (Aurrekoetxea 1992, 1995, 2003; 2004, 2006, 2008, 2009, 2012; Clua 2004, 2010; Gaminde 2007, 2009; Gaminde & Romero 2011; Garmendia 2003, 2008; Goebel 1983, 2002, 2003, 2005, 2010; Heeringa 2004; Inoue 1996; Kessler 1995; Lujanbio 2011; Nerbonne eta lag. 1996; Nerbonne eta lag. 2010; Ormaetxea 2008; Osenova eta lag. 2006; Schouten eta Van Reenen 1989; Sousa 2006; Viereck 1988).

2.2. Bariazio geolinguistikoa

Hizkuntza eta dialektoen inguruko kezka eta interesa aspaldiko kontua da; hor ditugu, esaterako, IV. mendean Panini-k egindako Sanskrito zaharrari buruzko gramatika, Grezia zaharrean literatura idazteko dialekto ugari baliatu izana eta XIV. mendeko Dante Alighieriren *De vulgari eloquentia* (1303) lana italieraren dialektoen berri ematen duena.

Berpizkunde garaian latina indarra galtzen hasi zenean herri-hizkeren alde, estatu baterako hizkuntza bakarra baliatu beharra bultzatu zuten agintariek, baina garai hartako berrikuntza nabarmenena herri hizkuntzetara eta dialektoetara itzulitako idazlanen bertsioak dira: 1584an Léonard Salviati-k Boccacioren *Decameron*-aren atal bat Italiako

hamabi dialektotara itzuli zuen, 1630ean Suediako Gustabo-Adolfo erregeak agiri ofizial baten bidez dialektoen eta leku izenen ikerketa egitea aholkatu zuen.

XVIII. mendean glosario eta gramatika dialektalen aldeko giro orokorra nabarmena izan zen: dialektoetako hitzen bildumak osatu ziren postaren bidez; inkesta bidez datuak bildu ziren eta dialektoak elkarrengandik bereizteko eta beren mugak finkatzeko lehenengo saioak egin ziren. Hala ere, XVIII. mendearen bukaeran, Alemanian eta Frantzia herri-hizkeren aurkako sentimendua nagusitu bazen ere ikuspegi hori XIX. mendean ernatu zen indarraldi erromantiko eta dialektozalearekin eten zen.

XIX. mendean, dialektologiaren magalean geografia linguistikoa edo Geolinguistika sortu zen. Ikerketa metodologiko honek hizkuntza-ezaugarriak espazioan zehar nola aldatzen diren aztertzea du helburu eta ikuspuntu fonetikotik, lexikotik, morfosintaktikotik eta etimologikotik egiten du ikerketa; gainera, lekuko bakoitzaren motibazioak ere jasotzen ditu. Korrante honek hizkuntza bizirik dagoen sistema gisa ulertzen du eta, horretarako, eremu zehatz batean momentu jakin batean hitz egiten den moduari buruzko informazio zabala jaso eta ordenatzen du. Ondoren, informazio hau guztia, gehienetan, hizkuntza-atlasetan islatzen da.

XIX. mendearen bigarren erdian dialektologiako lanek izugarritzko goraldia izan zuten. 1821ean Charles Coquebert de Montbret-ek Frantziako *patoisen* mapa kartografikoa aurkeztu zuen, esaterako. Hala ere, garai hartako dialektologiako lanak herrien historiari, herri ohiturei, tradizio nazionaleri eta hizkuntzaren iraganari eman zien garrantzia erromantizismoaren eraginez eta, beraz, etnologiarako eta folklorerako giroan kokatzen ziren, oinarri metodologiko sendorik gabe. 1857an, oster, Bonaparte printzeak hainbat hizkuntzako itzulpen dialektalen sail luzeari eman zion hasiera. Bide beretik, XIX. mendearen bigarren erdian hainbat banaketa dialektalen inguruko ikerketak eta hizkuntzen arteko mugak finkatzeko ahaleginak egin ziren, baina batez ere hizkuntzen alde fonetikoan jartzen zen arreta hauetan. Ikerketa hauetarako datu-bilketa egiteko gutun bidezko inkestak erabili ziren, herrietako maisu-maistrei itzulpenak egiteko eskatuz. Metodo hori baliatu zuen Wenker-ek Alemaniako Renanian herri-hizkerak jasotzeko (1881); baita Julien Sacazek 1887an eta Edouard Bourciez-ek 1894an Ipar Euskal Herrian ere, eskoletako irakasleei *Haur prodigoaren* parabola frantsesetik euskarara itzularaziz.

Hala ere, XX. mendean argitaratu zen lehenengo atlas linguistikoa, ondorengoan aitzindari izango zen Gilliéronek 1903-1910 artean argitaratutako *Atlas Linguistique de la France (ALF)*, alegia. Guilliéronen atlasak ekarri zuen berrikuntza da hizkuntzaren gainontzeko atalei eskaintzen ziela arreta, dela fonetikoa, morfologikoa zein lexikoa. Horretarako, Frantzia osoko 639 herri hartu zituen (lekuko bakarra herriko) eta 1900 galderetako galde-sorta bat erabili zuen Edmond Edmont dialektologoak datuak jasotzeko eta, ondoren, erantzun guztiak alfabeto fonetikoan transkribatu zituen. Emaiza, hizkuntza-atlas bat izan zen, ikertutako kontzeptu linguistiko bakoitzerako mapa bana jasotzen zuena.

Gilliéronek markatutako bidea jarraituz, aurrerapauso handia ekarri zuen Karl Jaberg eta Jakob Jud-ek egindako *Sprach und Sachatlas Italiens und der Südschweiz*-ak (1928-1940). Atlas honek ekarri zituen berrikuntza nagusienak honakoak izan ziren: galdetegia (kontzeptuak bloke semantikoen barruko ordena logiko baten arabera multzokatzen ziren, lexikoari fonetikari baino garrantzia handiagoa ematen ziona). Gainera, esaerak, kanta herrikoiak, jokoak eta herri-kulturaren isla diren beste hainbat manifestazio biltzen zituen.

Lehenengo belaunaldiko hizkuntza-atlasek lurralde handiak izaten zituzten ikergai, *ALF*-en eredia jarraitzen baitzuten. Gisa honetakoak dira Antoni Grieraren (1923) *Atlas Lingüístic de Catalunya (ALC)* eta batez ere Navarro Tomás eta Menéndez Pidal-ek gidatutako (1962) *Atlas Lingüístico de la Península Ibérica (ALPI)*. Bigarren belaunaldian, oster, ikerketa eremua murrizteko beharra ikusi zen, honek azterketa linguistiko zehatzagoak egitea ahalbidetzen zuelako. Oraingoan ere, frantsesaren atlas linguistikoak izan ziren eredu, Albert Dauzat-en (1942) *Nouvel Atlas Linguistique de la France par régions (NALF)*, hain zuzen ere. Gaztelaniari dagokionez hor ditugu, besteak beste, M. Alvar-en (1963-1973) *Atlas Lingüístico y etnográfico de Andalucía (ALEA)*, *Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja (ALEANR)* (1979-1983), *Atlas Lingüístico y Etnográfico de las Islas Canarias (ALEICan)* (1975-1978), *Atlas Lingüístico y Etnográfico de Cantabria (ALECant)* (1995) eta *Atlas Lingüístico de los Marineros Peninsulares* (1986-1989); eta P. García Mouton eta F. Moreno Fernández-ek gidatutako (1987-) *El Atlas Lingüístico y etnográfico de Castilla-La Mancha (ALeCMan)*. Badira, baita ere, gaztelania ez diren beste hizkuntza penintsularrei buruzko atlasak ere, hala nola, Antoni Grieraren (1923-1964) *Atlas Lingüístic de Catalunya (ALC)*, Veny eta Pons-en (1951) *Atles Lingüístic del Domini*

Catalá (ALDC), Atlas Lingüístico Galego (ALG) (1974), M. Alvar-en (1974) Atlas Lingüístico de España y Portugal (ALEP) eta El Atlas Lingüístico del español de EE.UU; eta A. Quilisekin batera gidatutako (1984) *Atlas Lingüístico de Hispanoamérica (ALHA)*. Euskarari buruzko gisa honetako ikerketak urriak dira oraindik, saiakera gutxi batzuk egin diren arren, hala nola, XIX. mendean Bonapartek egindako euskalkien sailkapena (1863-1869), Aingeru Irigaray eta Irizarren mapak (1981), eta XXI. mendean G. Aurrekoetxea eta X. Videgain-en gidaritzapean egindako (1985-) *Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)* eta G. Aurrekoetxea eta J. L. Ormaetxearen gidaritzapean egindako (2005-) *Euskararen Atlas Sozio-geolinguistikoa (EAS)*.

Honela, ikerketa hau ikuspegi geolinguistikotik eta soziolinguistikotik egin da, hizkuntza bere orokortasunean aztertu ordez, garai batean aldakortasuna erakusten duten hizkuntza-aldagaiak ikertu dira, aldaketa hauek hartzen duten hedadura geografikoa zehaztu eta belaunaldien artean gertatutako aldaketak zeintzuk izan diren aztertzeko.

3. Metodologia eta corpusa

Lehenago esan bezala, gure ikerketa hizkuntzaren aldakortasun soziolinguistiko eta geografikoan diharduten ikerketen bidetik gauzatu dugu. Horretarako, gisa honetako ikerketetan erabiltzen den metodologia eta terminologia baliatu dugu. Beraz, lan honetan ez gara ariko fonemez edo alofonoez, hizkuntza-aldagaiez (*linguistic variable*) eta hauen aldaerez (*variants*) jardungo dugu Laboven (1963-2010) eta bere ondorengoen (Peter Trudgill 1974-2011; Ralph Fasold 1969; Lesley Milroy 1980-2003; James Milroy 1981-2003; Sali A. Tagliamonte 2001-2012; Penelope Eckert 1989-2003) bidea jarraituz eta gaur egun hizkuntzaren aldakortasunaren inguruan aztertzen ari diren ikertzaileen norabidea segituz. Euskarari dagokionez, batez ere Aurrekoetxeak (1992, 1995, 2009, 2012) eta Gamindek (2007) jorratutako bideari jarraituko ditugu.

Hizkuntza bere aldakortasunean aztertzeko erabiltzen diren bideak, ostera, ez dira beti berdinak izaten; izan ere, ikertzaileak bere ikerketa aztergai duen komunitatearen ezaugarriei egokitzen jakin behar du, beti ere ikerketaren helburuak kontuan izanik. Hori dela eta, ikerketa batetik bestera hiztun kopurua, gizarte-faktoreak eta hizkuntza-aldagai kopurua desberdinak izaten dira. *ICLaVE 7* eta *8* kongresuetan aurkeztutako lanei erreparatuz gero, gaur egun hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikertzaileek erabiltzen dituzten bideetako batzuk honako hauek dira:

- Bitenc, M. & Kenda-Jež, K. (University of Ljubljana), 2013, “Language variation in Slovene”. 5 hizkuntza-aldagai (guztiak fonologikoak); 1970an jaiotako emakume bi.
- Hildenbrandt, T. & Moosmüller, S. (Austrian Academy of Sciences), 2013, “The pronunciation of *-ig* in three varieties of Austria”. 27 pertsona (15 gizon, 12 emakume); 3 herri; hizkuntza-aldagai bakarra (*-ig*)
- Schaufuß, A. (University of Leipzig), 2013, “Standard-dialect variation”. 24 gizonezko; herri bakarra: Oschatz (Alemania), 3 hizkuntza-aldagai (fonologikoak)
- Villeneuve, A. J. (University of Toronto) & Auger, J. (Indiana University), 2015, “Morphosyntactic convergence between French and Picard in Vimeu, France”. 6 hizkuntza-aldagai; 8 hiztun (4 elebidun; 4 frantses).
- Nagy, N. (University of Toronto), 2015, “Cross-dialect vs. cross-linguistic contact in Southern Italy”. Hizkuntza-aldagai bakarra (null object), 2 gizonezko eta 2 andrazko adin-tarte bakoitzean (3 adin-tarte)
- Louredo, E. (Universidad de Santiago de Compostela), 2015, “A study of Galician-Castilian contact based on the verb morphology of dialects of the

- Ribero district”. 20 hizkuntza-aldagai; 15 herri eta herri bakoitzean 2 pertsona (gizon heldua eta gizon gaztea)
- Morris, J. (Cardiff University), 2015, “Examining historical convergence and synchronic variation in situations of long-term contact”. Hizkuntza-aldagai bakarra: (l) aldagaia galesean; gizarte-faktoreak: generoa (8 gizonezko eta 8 andrazko= 16 lekuko), herria eta gurasoen hizkuntza (adina: 16-18 urte arteko hiztunak).
 - Kasstan, J. (University of Kent), 2015, “Minority languages in Europe. Convergence and divergence in Francoprovençal: new speaker networks as sources of linguistic innovation in obsolescent dialect communities”. Hizkuntza-aldagai bakarra: (l) variable, /l/ palatalisation in franco-provençal; 21 hiztun (16 jatorrizko hiztunak; 2 txikitan ikasiak, baina etxean frantsesa dutenak; 3 helduaroan ikasi dutenak franko-probentzala).
 - Hinkens, F. (Meertens Instituut & Vrije Universiteit) & Vandekerckhove, R. (Universiteit Antwerpen), 2015, “Partly undressed and halfway frozen? Stability and coherence in koinés and regional standard varieties of Dutch”. 32 hizkuntza-aldagai; 15 herri; emakume eta gizonezkoak.
 - Priiki, K. (Universitu of Turku), 2015, “Combining methods in interactional sociolinguistics – analyzing the variation of spoken Finnish third-person pronouns on micro and macro level”. Hizkuntza-aldagai bakarra; 33 lekuko; 3 adin-talde (young, middle-age, old).
 - Barbosa, P. (Universidade de Minho), 2015, “Variable use of strong preterities in European Portuguese. A sociolinguistic and theoretical approach”. 4 hizkuntza-aldagai; gizarte-faktoreak: adina (3 multzo: 26-59/ 60-75/ >75), heziketa-maila (4 multzo: titulurik gabekoa/ eskolan 4-9 urte/ eskolan 10-12 urte/ unibertsitateko titulua)

3.1. Bilketa metodologia

Hizkuntza bere testuinguru sozialean ikertzen duten guztiek, arazo metodologiko klasikoarekin egiten dute topo: datuak jasotzeko erabilitako bideak jasotako datuak oztopatzen ditu (Labov 1983 [1997b]: 75). Lekuko baten berbakeraren inguruko datuak jasotzeko erabiltzen den oinarritzko metodoa banakako grabaketarena da. Elkarriketako berbakera erdi formala da —ez modu absolutu batean, baina bai eguneroko berbakerarekin konparatuta—; izan ere, elkarriketa behatzaile ezezagun batek kontrolatutako eta gidatutako diskurtsoa baita. Beste bide bat, lekukoa bere ingurune sozial naturalean aztertzea da, dela bere familiarekin dagoenean, dela bere pareko jendearekin dagoenean (Labov, Cohen, Robins, eta Lewis, 1968). Hirugarren bide bat, elkarriketatik kanpo hizkuntza bere erabilera publikoan behatzea litzateke; horrela,

hiztunak behaketa esplizituz kanpo hizkuntza erabiltzeko duen modua analizatu ahalko litzateke, Labovek 1966ko ikerketan egin bezala.

Ikerketa dialektologiko edota soziolinguistikoak egiteko modua ez da bat eta bakarra. Azken finean, ikertzaileak berak erabaki behar du, dauden aukeren artean, zein den egokiena, zeinek ahalbidetuko duen norbere helburuak ondoen betetzea. Hizkuntzaren aldakortasunean diharduten ikertzaileek honako pausoak eman ohi dituzte eta ikerketa honetan ere pausok jarraitu dira (*apud* Tagliamonte 2012: 7):

- Behaketa (*Observation*) —hizkuntzaren erabileran aldakortasuna entzun edota ikustea;
- Identifikatzea (*Identification*) —hizkuntza-aldagaiak aukeratzea ikerketarako;
- Aztertzea (*Reconnaissance*) —aldakortasuna gertatzen dela zehazteaz gain, non gertatzen den zehaztea;
- Behaketa Sistematikoa egitea (*Systematic Exploratory Observation*): Zein da formen inbentarioa? Zeintzuk dira ereduak? Noiz eta zeren arabera gertatzen da aldakortasuna? Nork darabil aldakortasuna eta zein modutan?;
- Hipotesi eta behaketak frogatzea;
- Aldagai-ereduak interpretatzea eta azaltzea, hizkuntza-aldagaiak zein gizarte-faktoreak.

Behaketari dagokionez, aspaldian ohartu ginen, edozein erkidegotan gertatzen den bezalaxe, heldu eta gazteek ez dutela berdin hitz egiten Busturialdeko herrietan; izan ere, ahoz gauzatzen den hizkera ez da inoiz homoginoa, hizkuntza gizartearen tresna den heinean beti aldatuz eta egoera berrietara egokituz joango delako. Gizartea aldatzen doan gisa berean doa hizkuntza ere aldatzen.

Aldakortasun hori, hizkuntzaren maila guztietan gertatzen da. Berba berriak etengabe erabiltzen dira eta ez berba berriak bakarrik, baita ahoskera berriak edota egitura gramatikal berriak ere eta, era berean, berba arkaikoak, forma zaharrak eta ahoskera zaharrak ere erabileratik kanpo geratzen doaz gutxinaka (Trask & Millar, 2007 [1996]: 1). Esate baterako, morfologian *giñezan* vs. *giñen*, *ditxut* vs. *dodaz/ dotez*; sintaxian *txakur bi* vs. *bi txakur*, *ori mutille* vs. *mutil ori*; lexikoan *urran* vs. *urbil*, *anpulu* vs. *malko*; fonologian *it>tt / tx...*, *il>ll / y*; eta azentuan pl. *úmiék* (zah.) vs. pl. *umíék* (gazt.). Aldakortasun horretaz jabeturik, ikerketa hau gaur egungo Busturialdeko

euskararen aldakortasun linguistikoa —dela soziolinguistikoa dela geografikoa— erakusten duten 19 hizkuntza-aldagaitara mugatzeko erabakia hartu zen. Aurrerago azalduko ditugu (4.1.3§) zehazkiago.

3.2. Galdetegia

Esparru honetako aldakortasuna sistematikoki behatzeko itzulpen eta interpretazio bidezko galdetegia osatzea erabaki zen. Alde batetik, elkarrizketa libreen arazoa saihestu nahi zen; izan ere, elkarrizketa libre zein gidatuetan maiz asko ez dira ikerketarako behar diren gauzatzeak lortzen, adibidez, hots jakin batzuk dituzten berbak lortu nahi eta haren sinonimoak esaten dituztelako lekukoek. Hori dela eta hautatu da itzulpen bidezko galdetegia; batetik, erantzunak zehatzak direlako eta, gainera, beti dagoelako aukera hiztunari momentuan galdetzeko benetan horrela esaten duen edo beste modu batera ere esango ote lukeen; eta bestetik, konparagarriak diren datuak eskaintzen dituelako. Horrez gain, inkesta hertsia izateak ez du esan nahi ikertzaile eta lekukoaren artean elkarrizketa libreetarako aukerarik ez dagoenik; aldeztatik finkatu den galdesorta bat bete behar dela baino ez du adierazten. Hala ere, lekukoa beretzat artifiziala den testuinguru batean ezartzeak eta ikertzailearen presentziak berak ere, hiztuna eguneroko berbakeratik aldentzea ekar lezake. Behatzaileak ahalik eta hizkera naturalena jaso nahi horri, berez naturala ez den egoera batean, *behatzailearen paradoxa* (“the observer’s paradox”) izena ezarri zion Labov-ek (1975: 106) eta geroztik arazo edo kezka ezaguna da soziolinguistikan edo dialektologian.

Jakina da datuak jasotzeko metodo honek erregistro formalagoa jasotzeko arriskua dakarrela, eta hori dela eta ezin dezakegu bere osotasunean ziurtatu oinarritzat ditugun grabazioek beti-beti hiztunen eguneroko berbakera islatzen dutenik. Arazo hau edozein zientzian gertatzen da, gisa guztietako datu-bilketek baitute era bateko edo besteko arriskua. Dena dela, ziurta genezake gure ikerketarako bildu diren datuek ez dutela inkoherentziarik erakusten beraien artean eta fidagarriak direla uste dugu. Izan ere, Lopez Moralesek berez naturala ez den egoera hori leuntzeko ematen dituen hiru aukeretatik bat hautatu dugu *behatzailearen paradoxa* ahal bezainbeste saihesteko. Hauek dira Lopez Moralesek eskaintzen dituen (1994: 78) aukerak:

- a) Ezkutuko grabazioak egitea, lekukoa ez dadin ohartu elkarrizketa grabatzen ari zarela.
- b) Lekukoak egoera emozionaletara bideratzea lekukoaren kontzientzia linguistikoa neutraliza dadin.
- c) Grabazioa lekukoaren lagun batek egitea.

Kontuan izanik galdetegi hertsia egin nahi izan dela ahalik eta lagin homogeenoa lortzeko, a) aukera baztertuta geratu zaigu, ezinbestean lekukoa jabetzen delako grabatzera goazela. Gainera, ez da etikoa ezkutuko grabazioak egitea, ez bada lekukoa amaieran, behintzat, jakinaren gainean jartzen. Bestetik, grabazioa lekukoaren lagun batek egiteak ere arazoak ekar ditzake, grabazioan zehar ikertzaileak aukera galtzen duelako momentuan sor daitezkeen zalantza edo galderak egiteko. Hori dela eta, b) metodoa erabili dugu, lekukoari bere bizimoduari edo egunerokotasunari buruzko galderak eginez galdetegian zehar.

Bestalde, galdetegia osatzerakoan kontuan izan dira ikerketaren muina diren aldagaien testuingurua, hala nola, aldagaia (posible den kasuetan) hitz hasieran, hitz amaieran eta hitz barruan aztertzeko aukera ematen duten hitzak bilatu dira eta, horrez gain, inguruko hotsak zeintzuk diren ere kontuan izan da. Esate baterako, (tz) aldagaiaren ebakerak aztertzeko, bokal artean eta *-n-* ostean jaso da (*atzo, etzi, nintzen*). Bestetik, (it) aldagaiak hitz amaieran (*badakit*) eta bokal artean (*polita, aitite, politico, ito*) dituen ebakerak aztertu dira. Berebat, (ind) eta (ild) aldagaien aldaera palatalizatua eta ez palatalizatua aztertzeko, kontuan izan dira hitz barruan, morfema mugetan eta hitzaren mugetatik haratagoko testuinguruetan, bai ondoko hitzak silaba bakarra duenean, bai silaba batetik gora duenean ere (*ilde, e(g)inda, indar, indaba, beldur, isildu, trankildu, hurbildu, egin dab(il)e, ipin(i) dotes, e(g)in deu eta esin dot*). Bokal artean txertatzen den epentesietako (i_V) aldagaiaren aldaera ahostuna eta ahoskabea aztertzeko, hitz barruan eta morfema mugan jaso dira, bai euskal hitzetan, bai gaztelaniazko maileguetan (*bixotza, indixabak, ogixe, eguskixe, mendixek, merixendie, armarixoa*) eta, azkenik, (zait) aldagaiaren hasierako kontsonantearen aldaerak aurreko aditz nagusiaren amaieraren arabera bildu dira: *-o, -a, -e, -i* eta *-u* bokalez amaitzen diren aditz nagusien ostean (*jo, etorriko, sartuko, atara, bete, jausi, josi, erosi, a(ha)ztu, sartu*) eta *-n, -l, -ñ* eta *-ll* kontsonantez amaitzen diren aditz nagusien ostean ere (*jan, joan, edan, gustetan, kantetan, ein/ eiñ, il/ ill*).

3.3. Datuen bilketa

Ikerketa honetako datu eta ondorioak ez dira nekazari-abeltzainen edo langileen berbakerara soilik mugatzen, ezta Busturialdeko biztanle zaharrenean berbakerara bakarrik ere. Aitzitik, Busturialdea osatzen duten 20 herrietan bina lekuko grabatu ditugu: bata adinekoa; bestea gaztea. Hortaz, guztira 40 lekukok itzulitako 125 esaldik osatzen dute gure corpusa (ik. *Eranskina*) eta, beraz, lan honetan ateratako ondorio eta hipotesiak 40 elkarrizketa hauetan oinarritutakoak izango dira. Aurrerago emango da (5§) lekukoen inguruko zehaztasun gehiago.

Lekukoen kopurua estratifikatua ala ausazkoa izan daiteke. Ikerketa honetan, ausazko hautaketa egin da eta, beraz, ez da egin gizarte-aldagaien araberrako ehuneko hautaketarik, ezta herri bakoitzeko biztanle kopuruaren araberrakorik ere. Azterketa soziolinguistikoek gomendatzen dutenez (Labov 1966: 170-1), komunitatearen hizkera era egokian ordezkaturako bada, gutxienez biztanleriaren %0,025-ean oinarritu behar dira ikerketako datuak. Busturialdeak 46.388 biztanle ditu gaur egun eta, esan bezala, 40 lekuko grabatu ditugu; beraz, Busturialdea osoaren %0,086 dago ordezkaturik gure datuetan, ezarritako gutxienerako kopurua baino hiru aldiz altuagoa dena.

Bestetik, tamaina honetako ikerketak egiterakoan, ezinbestekoa izaten da jendearen laguntza baliatzea lekukoak bilatzerako orduan, beti ez baita herri bakoitzean norbait ezagutzen. Oro har, borondate handiarekin laguntzen du jendeak herri honetako edo hartako biztanle bat ezagutzen duela eta ikerketarako egokia izan daitekeela proposatzean; bizitza osoan euskaraz egin duela, etxean ikasi duela eta polito egiten duela ziurtatzen dute. Alabaina, berarekin kontaktuan jarri eta data bat zehaztu ondoren grabazioarekin hasi eta berba egiten hastearrekin batera euskara baturanzko joera nabaritzen zaie lekukoei, edo herri horretan espero ez ziren formak baliatzen ditu. Hala ere, grabazioarekin aurrera jarraitzea erabakitzen da, urduritasunak eragindako egoera dela ondorioztatuz eta, beraz, egoera ahultzearekin batera bere eguneroko hizkerara bueltatuko dela espero izaten da. Eta batzuetan bai, gertatzen da. Besteetan, etxera zapo mingots batekin heltzen da ikertzailea, lekuko horrek benetan bere herriko hizkera islatzen duen zalantza egiten du aurretik herri horretako hizkeraz duen ezagutzarekin bat egiten ez duelako. Horrelakoetan, ikerketaren abiadura moteltzea ekar lezakeen arren, hobe da grabazioa herriko beste pertsona batekin errepikatzea eta grabazio biak erkatzea, zalantzak alde batera uzteko eta benetan herriko hizkera

ordezkaten duen grabazio bat izatea. Ikerketa honen prozesuan, batez ere helduen grabazioetan piztu dira gisa horretako zalantzak eta ondoko herri hauetan grabazioa errepikatzeko erabakia hartu da: Mendata, Murueta, Gautegiz-Arteaga eta Nabarniz. Gazteen kasuan ere, herri batzuetan euskara estandarreko edo Gernikako euskararen eragin handiegia hauteman denez, grabazioa errepikatu egin da. Honako hauek dira gazteen kasuan errepikatu diren grabazioak: Murueta eta Gautegiz-Arteaga. Egindako bigarren grabazioetan, hipotesiak baieztatu egin dira gehienetan: lekukoa ez zen herriko hizkeraren ordezkari egokia. Helduen kasuan, batzuetan adin mugatik gertuegi egoterakoan helduaroan euskara estandarra ikasitakoa izan da eta, beraz, egoera formalean batutik hurrago dauden formak erabiltzen izan ditu. Beste batzuetan, lana ondoko herrian egitearen ondorioz, bertako formak eta herrikoak nahasian erabiltzen izan ditu. Gazteen kasuan, ostera, herri horietan Gernika-Lumoko euskararen eragina eta batuarena baieztatu dute bigarren grabazioek eta, beraz, lehenengo grabazioetan bildutako datuen oso antzekoak bildu dira bigarrenetan ere.

Behin lekukoak bilatuta grabazioak egiteari ekin zaio. Gehienetan lekukoaren etxean egin dira grabazioak, baina badaude lekuko batzuk ikertzailearen etxera joatea nahiago izan dutenak. Hasierako grabazioak Olympus VN-2100PC ahots grabagailu digitalarekin grabatu ziren, baina audioko uhinak zarata askorekin islatzen zirenez espektrogrametan, Olympus LS-100 zoom grabagailu digitalarekin egin ziren gainontzeko grabazioak, emaitzak nabarmen hobetuz.

Grabagailua mahai gainean uzten izan da eta ahal izan zaion garrantzia gutxien ematen ahalegindu da, horrela grabaketaren momentuan lekukoak senti zezakeen deserosotasuna edo lotsa saihestea lortu nahi izan da. Aurretiaz prestatutako galdetegiarekin hasi aurretik, lekukoa lasaitzeko eta egoera natural bat lortzeko bestelako galdera batzuk egin zaizkio eta, besteak beste, bere zaletasunak, euskara estandarrekiko duten iritzia eta herrian egiten den euskarari buruz galdetu zaie. Grabaketaren amaieran bere sentsazioak bildu dira, esate baterako, galdeketa egin artean lasai egon den ala urduri egon den galdetu zaio, galdetegia erraza iruditu zaion eta berak egunerokotasunean egiten duen euskara erabili duela uste duen ere galdetu zaio. Bestalde, kasu batzuetan halako edo bestelako aldaerak bere herrian erabiltzen diren ere galdetu zaio lekukoari eta zehaztasunak eskatu zaizkio: bere ustez nork erabiltzen duen, non erabiltzen den eta berak erabiliko lukeen.

3.4. Datuen trataera

Grabatu ostean, audio osoak ordenagailura pasatu eta ondoren Praat programarekin (Boersma & Weenink 2009) etiketatu eta analizatu dira. Gisa honetako programak erabilia, analisia irizpide objektiboetan funtsatzen bide da eta, horrela, bere osotasunean balio objektiboa izango duen transkribaketak eskaini daitezke.

Guztira 7789 erregistro bildu eta baliatu ditugu ikerketa honetarako; datu guztiak Access 2007 eta Excell 2007 datu baseetan sartu dira eta 40 lekukoen arabera antolatu dira, herrika. Galdetegitik ateratako erantzun guztiak fonetikoki transkribatu dira IPA Alfabeto Fonetiko Internazionala-ren bidez eta erantzun bakoitzari lema bat eman zaio, ondoren grafikoak ateratzea ahalbidetzeko. Bestalde, datu guztiak DiaTech programa informatiko estatistikora irauli dira, honen bidez aldaeren distribuzio geografikoa mapetan irudikatzen. Analisi geolinguistikorako aukera emateaz gain (similaritate mapak, isoglosa mapak...), bestelako analisiak egiteko aukera ere ematen du DiaTech-ek, hala nola, cluster analisiak eta distantzia matrizeak ateratzea ahalbidetzen du.

Ikusmolde soziolinguistikoa lantzeko, datuak estatistikoki neurtu nahi izan dira, zein aldagai den estatistikoki esanguratsua eta zein ez antzeman ahal izateko. Horretarako, Goldvarb programa estatistikoa baliatzearen aldeko apustua egin zen. Datu-baseko informazio guztia zenbakietara irauli behar zen lehenengo, aldagai eta aldaera bakoitzari zenbakizko kode bat emanaz. Alabaina, datuak ustiatzerako orduan jabetu ginen Goldvarb-ek ez zuela balio gure datuentzako, 20 herri izanik *KNOCKOUT-ak gertatzen zirelako. Izan ere, Goldvarb komunitate jakin bateko aldakortasunaren inguruko analisi estatistikoak egiteko erabiltzen da, gizarte-faktore guztietan agertzen direlarik hizkuntza-aldiera guztiak, zenbateko handiago zein txikiagoan. Oztopo honek eraginda, beraz, gure datuen ustiaketarako SPSS programa estatistikoa egokiagoa zela jabetu ginen eta hori da azkenik analisi estatistikoak egiteko erabili dugun programa.

3.5. Aldagaiak

Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikerketek bi motatako aldagaiak hartzen dituzte kontutan: aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak eta aldaketa horretan eragiten duten gizarte-faktoreak. Izan ere, gisa honetako ikerketen helburua aldakortasuna zein aldagairen arabera den zehaztea da. Nolanahi ere, bakoitzak duen helburuaren arabera ikerketa batetik bestera aldatu egiten dira aztertzen diren aldagaiak.

Labovek (2010 [1994]: 33) zehazten duenez, gizarte sistemaren barruko talde berritzailea aurkitzeko, soziolinguistikan oinarritzekoak diren aldagai beregaini (gizarte-faktoreei) erreparatu behar zaie: generoa, adina, talde soziala, talde etnikoa, arraza eta hiztun komunitatearen tamaina. Hiztun komunitateko kideak beste komunitate batzuetako kideekin dituzten harremanen arabera ez eze, beraien komunitatean duten estatus sozialaren arabera ere desberdintzen dira. Gainera, gizarte-faktoreen ikerketak komunikazio ereduaren azterketa egitearen beharra dakar, baita sare sozialen bateratze eta banantze indarra edota belaunaldi eta sasoi historikoetatik datozen aldagaiena ere. Izan ere, aldaketaren arrazoiak ulertzeko beharrezkoa da gizarte-egituraren barruan aldaketa non sortu zen jakitea, nola hedatu zen beste gizarte-taldeetara eta zein taldek erakutsi zuen haren aurrean erresistentzia gehien (2010 [1994]: 34). Dena den, ikerketa guztietan mugak ezarri behar dira helburua lortzeko bidean ez galtzeko eta, beraz, ikerketa hau aldakortasun geografikora eta adinaren arabera mugatu da.

Aldakortasun hau aztertzeko kontuan hartu diren aldagaiak bi multzotan bereiztea komeni da: alde batetik, hizkuntzaz kanpoko aldagaiak edo gizarte-faktoreak eta hizkuntza-aldagaiak bestetik.

3.5.1. Gizarte-faktoreak

Hizkuntza-aldagaiek, ezinbestean eragin soziala erakusten duten aldagaiak dakartzate, gizarte-faktoreak, hain zuzen ere. Gizarte-faktoreak testuinguru sozialarekin lotutako aldagai ez-linguistikoak dira: lekukoaren arabera, hartzailaren arabera, entzuleen arabera eta egoeraren arabera, besteak beste (Labov 1983 [1972b]: 237).

Gisa honetako ikerketak egiterakoan ezin ahantzizkoa da lehen bezala orain ere, zenbait pertsonak hizkuntza-jokabide bikoitza dutela, beren gizarteko sare-egitura konplexua eta anitza delako eta hizkuntza-erregela desberdinak dituzten beste jende batzuekin komunikazio-saio edo aldiak dituztelako. Beren harremanaren eredua “molekularra” deitu ohi da: batzuetan beren sortzezko taldearen barrena begira mintzatu behar dute eta beste batzuetan kanpora begira. Jokabide bikoitza duten hiztun hauek, dialektologian “hizkuntza-misiolari” deitu ohi direnak, bidaianteak, saltzaileak, politikoa, gazte jendea, telebista ikusleak edo egunkari irakurleak ditugu. Ez dituzte beren jatorrizko sareak lehertzen, baina beren higikortasun geografiko edo estilistikoak erreperitorioen ugalketa eta nahasketa eragiten ditu, *overlapping of networks* nabarmena eragiten dute (Sobrero 1988: 199).

Busturialdeko aldakortasuna aztertzeko gizarte-faktoreak aukeratzekoan, gisa honetako ikerketetan kontuan hartzen diren aldagaiak hartu dira aintzat, baina ez guztiak. Esate baterako, Labovek (1963) Marta’s Vineyard irlan egindako ikerketan 69 pertsona izan zituen aztergai eta honako aldagai independenteen arabera sailkatu zituen: adina, lanbidea, kokagune geografikoa (irlaren hegoaldea eta iparraldea) eta etnia. 1966an New Yorkeko biltegi handietan egindako ikerketetan, adina, generoa, arraza, langilearen postua (biltegiko sekzioko nagusia, dendaria, kutxazaina, biltegiaina) eta azentua izan zituen kontuan. Milroyek ere (1992) adina, generoa eta eskualdea gizarte-faktoreak bereizi zituen Belfastko ingelesaren aldakortasuna aztertzerakoan. Ikertzen diren gizarte-faktoreak ikerketa bakoitzetik bestera aldatuz badoaz ere, Labovek (2010 [1994]: 2) zehazten du gizarte-faktore nagusiak sei hauek direla: generoa, adina, maila soziala edo lanbidea, etnia, arraza eta komunitatearen tamaina.

Nolanahi ere den, hiztun-komunitatearen ezaugarriak kontuan izan beharko lirateke ikerketa bakoitzean zein gizarte-faktore den garrantzitsu eta zein ez zehazteko, ez baita gauza bera ingelesaren edo euskararen hizkera bat aztertzea, edota herri txiki bateko, herri handi bateko edo hiri bateko hiztun-komunitatearen mintzoa aztertzea. Esate baterako, Busturialdeko herrietan oraindik ez dira etnia edo arraza desberdinetako euskaldunak erraz aurkitzen eta, beraz, momentuz ez luke hizkuntza-aldakortasunaren indize esanguratsurik erakutsiko gizarte-faktore honek. Bestalde, ikerketaren helburuak ere aintzat hartu behar dira, zer ikertu nahi den eta zeri eman nahi zaion garrantzia


definituz. Hori dela eta, ikerketa honetarako kontuan izan diren gizarte-faktoreak honakoak dira: herria, adina eta ikasketak.

3.5.1.1. Herria

Gure ikerketarako ezinbestekoa den gizarte-faktorea lekukoaren jatorria izan da. Izan ere, Busturialdea tarteko-hizkera gisa sailkatu da azken euskalkien mapan (Zuazo 2003: 62); mendebaldeko euskalkiaren barruan sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien tartean dagoen hizkera gisa. Hori dela eta eremu geografiko honetan ezaugarriak nola banatzen edo hedatzen diren ikustea ezinbesteko iruditu zaigu.

Atal honetan, Busturialdea izenez ezagutzen den lurraldea zein herrik osatzen duten azalduko dugu. Honekin batera, herri bakoitzaren inguruko datu esanguratsuenak ekarriko ditugu; besteak beste, beraien historiaren argigarri diren datuak, inguruko herriekin dituzten harremanak, orografia, etab.

Busturialdea Urdaibaiko biosferan dago kokatuta eta Oiz mendian sortzen den Oka ibaiak zeharkatzen du hegoaldetik iparraldera, Gernika-Lumotik aurrera itsasadar bihurtzen dena Urdaibaiko padura sortuz eta Mundaka inguruan itsasoratzen dena Kantauri Itsasora:




Busturialdea 20 herrik osatzen dute, baina itsasadarrak geografikoki bitan banatzen ditu: itsasadarraren ezkerretara geratzen direnak eta eskumatara geratzen direnak.

Ezkerretara daude Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta eta Forua; eskumatara, ostera, Kortezubi, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu eta Elantxobe. Horrez gain, itsasadarretik barrualderago geratzen diren beste hainbat herri ere osatzen dute Busturialdea: Ea, Ereño, Nabarniz, Arratzu, Ajangiz, Mendata, Muxika, Morga, Errigoiti eta Gernika-Lumo. Biztanle gehien dituzten herriak Bermeo eta Gernika-Lumo dira eta, beraz, erdigune funtzioa betetzen dutenak. Ondoko herri txikietako herritarrek sarri jotzen dute herri handi hauetara.

Iparraldetik hegoaldera Bermeo-Mundaka-Sukarrieta-Busturia-Murueta-Forua-Gernika-Muxika herriak lotzen dituen trenbidea dago, Bilboraino heltzen dena. Trenbidea 1888an sortu zen Zornotza eta Gernika-Lumo lotzen zituzten 14,51km-rekin. 1893an egin zen Sukarrietarainoko ibilbidea eta hemendik Bermeora joateko 1855ean inauguratu zen abere-trakziodun tranbia hartu behar izaten zen, 1955ean trenbidea Bermeoraino heldu zen arte.

Historian zehar Urdaibaiko itsasadarra komunikazio bide garrantzitsua eta oso erabilia izan da, bertatik igaro dira-eta Done Jakue Bidea, Ardaoaren eta Arrainaren Ibilbidea eta Zin-egite Ibilbidea. Gainera, erromatarren egonleku garrantzitsuak daude eskualdean. Honek guztiak erakusten du mende luzeetan zehar jende pasabide etengabea izan dela ikergai dugun eremua.

Busturialdeko euskarari dagokionez, Yrizarrek (1981a, 1981b, 1992) Bonaparteren (1863-1869) euskalkien sailkapenean oinarrituz, baina zenbait aldaketa gehituz, egungo Busturialdea litzatekeen eremuan azpieuskalki edo aldaera ezberdinak bereizi zituen. Batetik, Gernikako azpi-aldiera genuke; bertan, Gernika eta Busturialdeko beste hainbat herriz gain, eskualdekoak ez diren Durangaldea eta Arabako eremu euskalduna ere sartu zituen. Bestalde, Busturialdekoa den Bermeorako beste aldaera edo azpieuskalki bat proposatu zuen:



3. Mapa: Yrizarren sailkapen-mapa, bizkaiera.

Azken euskalkien mapan (ik. Zuazo, 1998, 2003, 2008, 2014), Durangaldea sortaldeko azpieuskalkian kokatzen da eta Busturialdekoa, ostera, sartaldea eta sortaldeko azpieuskalkien tarteko-hizkera bezala sailkatzen da. Arabari dagokionez, Legutio eta Oletako euskara ere beste tarteko-hizkera bezala hartzen da. Aramaio, ostera, sortaldeko azpi-euskalkiarekin batera sailkatzen da (ik. ondorengo mapa, *in* Zuazo 2008: 63):



4. Mapa: Zuazoren sailkapen-mapa, mendebaleko euskalkia.

Bestalde, honela dio Zuazok (2003: 62):

Itsasbazterreko hizkerak ere nortasun handikoak dira, eta ez bakarrik Bizkaikoak. Euren bizimoduagatik edo, berezia dute hitz egiteko modua. Udalerri barruan ere izaten dira, gainera, aldeak, arrantzale auzoaren eta baserri auzoen artean. Intonazioan eta, batik bat, lexikoan izaten dira gorabeherak, baina beste arlo batzuetara ere iristen da bereizteko indarra. Ondarroako kalean, esaterako, *g-* dago NOR-NORI saileko adizkien hasieran: *gako* ‘zaio’, *gasku* ‘zaigu’ tankerakoak. Udalerri bereko baserri auzoetan, ostera, *j-* ahoskatzen da: *jako*, *jaku*.

Beraz, Zuazok aparteko izaera onartzen die itsasbazterreko hizkerari, baina ez du zehaztasun gehiagorik ematen.

Gure ikerketa eremuan, Busturialdean, kostaldeko eta barnealdeko hizkerak ditugunez, arretaz erreparatuko diegu hauen arteko desberdintasun zein berdintasunei.

Jarraian, Busturialdea osatzen duten 20 herrien inguruko datu geografiko, historiko eta ekonomikoak azalduko ditugu, herririk herri.

3.5.1.1.1. Bermeo

Bermeo Bizkaiko kostaldeko udalerria da, Busturialdeko herri nagusietakoa. 32,12km² ditu eta 17.057 biztanle. Herriguneaz gain auzo hauek osatzen dute udalerria: Arane, Agirre, San Miguel, San Andres, Almika, Artika, Demiku, Arranotegi, Mañu eta Gibelortzaga (San Pelaio). Bizkaiko golkoa du iparraldean; mendebaldean Bakio (Uribe-Kosta); ekialdean Mundaka; hego-mendebaldean Mungia (Mungialdea) eta Meñaka (Mungialdea); eta hegoaldean Busturia eta Arrieta (Mungialdea).

Bermeo lurralde menditsuan dago kokatuta, Sollube mendiaren hegalak itsasora ematen duela. Lurra osatzen duten material gogorrek itsasalde guztian 100 metroraingo itsalabar ugari sortu dituzte, baita itsasoan haitz sakabanatu batzuk ere, Gaztelugatxe, Aketx eta Izaro kasu. Itsasaldeak sakonune txikiak ere badauzka, Bermeoko portua hartzen duena esate baterako, baita irtenuneak ere, Matxitxako lurmuturra, adibidez. Barrualdeko paisaia anitza da, aldats handiekin. Tontorrik garrantzitsuenak Sollube (696 m) eta Burgoa (452 m) dira. Hego Euskal herrian iparralderen dagoen puntua Bermeon dago (Matxitxakoko lurmuturra).

Bermeo 1236an sortutako hiribildua da; izan ere, Lope Diaz II.a Harokoak, Bizkaiko jaunak, eman zion Logroñoeko Forua, eta hiribildu izendatu. Bizkaiko Jaurreriko hiri nagusia zenez 1476ko uztailaren 31n Fernando Errege Katolikoak «Bizkaiko buru» titulua eman zion Bermeori eta 1602ra arte gorde zuen izen hori. Hori dela eta, hainbat pribilegio izan zituen eta Bizkaiko Batzar Nagusietan, beste hiribilduen aurrean nagusitasuna zuen. Gainera, erregeak Bizkaira etortzen ziren bakoitzean Santa Eufemia elizara joaten ziren zin egitera, Bermeoren nagusitasunaren erakusgarri. 1602. urtean Bilboko eta Bizkaiko beste erakundeetako agintariek eta handikiek ezin zuten jasan Bermeok zeukan gorentasuna, jarritako auzi luzearen ondorioz, Bizkaiko Buru izaten jarraitzeko ahalmena kendu zioten.

XV. mendean Bizkaiko bandokideen arteko borrokek erabat asaldatu zuten Bermeoko bizimodua eta horren aurreko mendeetan jasan zituen suteen eraginez (1297, 1347, 1360 eta 1422. urteetan), lur jota geratu zen udalerrria. Ondorioz, Bermeoko bizilagun kopuruak eten barik egin zuen behera. Beste alde batetik, 1300. urtean Bilbo sortu izanak ere handitu egin zuen Bermeoren gainbehera. Geroago ere izan ziren sute gehiago, eta haietako batek, oso-osorik erre zuen hiribildua. Sute horiek atsekabea eta zoritxarra ekarri zuten Bermeora eta hiribilduaren biziraupena bera ere arriskuan jarri zuten. Dena dela, Bermeok, XVI. mende osoan, eta zoritxar ugari gainditu ostean, "arrantza-merkataritza" jarduera bikoiztu egin zuen eta penintsula osoko ontziteria garrantzitsuena eta handiena eduki zuen; hau da, Bilboko portuarekin zuen betiko borrokari eusteko gai izan zela.

1872. urte inguruan, Napoleonen inbasioak eta karlistadek eragindako asaldurak gainditu ostean, goraldi ikaragarria izan zuen Bermeok; izan ere, arrain-harrapaketa handiei esker, ekonomiaren egoerak nabarmen egin zuen gora. Horri esker, Bizkaiko herririk jendetsuenetan bigarrena eta egoera ekonomiko onenekoa bihurtu zen Bermeo, Bilboren atzetik, jakina.

Gaur egun ere Bermeoren ekonomia arrantzaren inguruko sektorean oinarritzen da. Bizkaiko lehen portua da baxuran eta bigarrena harrapaketan, Ondarroaren (Lea-Artibai) atzetik. Beraz, guztiz garrantzizkoa da arrantza Bermeoko ekonomian. Horrez gain, arrain kontserbagintzan diharduten zenbait enpresa daude: Zallo, Serrats eta Salica dira garrantzitsuenak. Baina industria ez da arrain kontserbagintzan soilik oinarritzen, badaude arrantza sektoreari lotuta diesel motorrak eta ontzientzako gailuak zein energia

sortzeko lurreko egiturak egiten dituzten enpresak ere, Wartsila Ibérica esate baterako, penintsulako egoitza nagusia Bermeon duena. Portuan ez da soilik arrainarekin lan egiten, alde industrial bat ere badago, han lehengaiak biltzen dira. Kai horretan ontzien kontsignazio enpresak kokatzen dira, biltegi handiekin batera.

Herrian zenbait egur lantegi ere badaude. Bestalde, DenokInn berrikuntza, ekimena eta negozio berriak garatzeko euskal zentroa da, berrikuntzaren euskal sistemaren parte dena. Beste instalazio aipagarri bat Gaviota gas-plataforma da, Repsol enpresaren jabetzakoa eta gaur egun, Enagas enpresak kudeatzen duena. Plataforma horrek, 1986tik 1994ra arte, gas naturala ateratzen zuen itsaspeko lurretatik; 1995etik aurrera, baina, gas biltegitzat darabilte: udan gasa sartzen dute, eta neguan kontsumora bideratzeko ateratzen dute.

Nekazaritza sektoreari dagokionez, lurralde menditsuaren eraginez, landutako lurrek nekazaritzarako lurren %4,9a betetzen dute; berau da baserri gehien dituen Bizkaiko herria eta herritarren gehiengoa euskalduna da.

Bermeon hainbat ikastetxe daude. Nahitaezko hezkuntza eta batxilergoa eskaintzen dutenak honako hauek dira: San Frantzisko herri ikastetxea (D eredu), Sagrado Corazón ikastetxea (Karmeldarrak. D eredu), Luis Eleizalde ikastola eta Ignacio Arozena-Benito Barrueta institutua (D eredu).

Bermeok Mungiarekin (18 km) bat egiten du BI-631 errepidearen bitartez, eta Gernika-Lumorekin (14 km) BI-2235 errepidearen bitartez. BI-310 errepidea ere badu, Bakiorekin (12 km) bat egiteko. Bilborekin (33 km) komunikatuta dago BI-631 eta BI-2235 errepideen bitartez, azken honek A-8 AP-8 autobidearekin bat egiten duelarik. BI-631 errepideko zati nagusia autobidez osatuta dago, Sollube mendiaren zatia izan ezik.

1955ean eraiki zen trenbideak Bermeo Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.2. Mundaka

Mundaka Bizkaiko kostaldeko udalerria da. 4,15km² ditu eta 1.893 biztanle. Iparraldean Bermeo eta Bizkaiko golkoarekin egiten du muga; ekialdean Urdaibaiko itsasadarrarekin; hegoaldean Sukarrietarekin; eta, mendebaldean Bermeo eta Busturiarekin.

Mundaka izena duen ibaia itsasoratzen den lekuan kokaturik dagoen herria eta Busturiako merinaldeko elizatea da. Jaurerriko historiaren arabera, Bizkaiko elizate zaharrena dugu Mundaka, hasiera batean Munaca izenez ezagutzen zena. Hori dela eta, lehenbiziko botu eta jarlekua izatea egokitzen zizaion Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusietan.

Mundakak betidanik izan du itsasoarekiko lotura eta, ondorioz, munduari irekita egon da. Itsasgizonen bitartez, Mundakak Ekialde Urruna, Mexiko eta Britainia Handiarekin harremanak izan ditu. Beste herrialde batzuetan jaiotako ezkontide eta/edo seme-alabak izan dituzte marinel batzuek eta haiek ere Mundakan bizi izan dira. Mundakako ekonomia arrantzan eta itsasoko merkataritzan oinarritzen zen batik-bat (arrantzaleen kofradia bat zegoen bertan). Kabotajearen aritzen ziren Iberiar penintsulan eta Frantzia eta, Ingalaterrak guda galdu zuenean, Mantxako kanala zeharkatu zuten.

Azken mendeetan, itsasoko eta nekazaritzako lanekin batera beste irabazi iturri bat sortu da: turismoa. Mundakak euskaldun nortasun nabarmena badu ere, ezaugarri kosmopolitak eta harrera ona egiteko gaitasuna erraz nabari dira kale eta gizarte-bizitza handiko guneetan. Mundaka eta Mundakako itsasadarra European argitaratutako turismo liburuxken lehenengo orrialdeetan agertu ohi badira, kirol berri samar baten eraginez izan da: surfa. Mundakaren orografia, haizea eta olatu zehatz eta iraunkorrenatik, surfa egiteko munduko lekurik onenetakoa da. Atzerriko surflariak etorri ohi dira, gainera.

Mundakan eskola bakarra dago, oinarritzko heziketa eskaintzen duena. Ostean, herritarrek Bermeora edo Gernika-Lumora joaten dira ikastera eta, asko, txikitatik bertatik.

1955ean eraiki zen trenbideak Mundaka Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.3. Sukarrieta

Sukarrieta Bizkaiko kostaldeko udalerria da. 2,3km² ditu eta 355 biztanle. Mundaka eta Busturia udalerrien artean kokatutako herria da, Urdaibaiko itsasadarraren mendebaldean. Hainbat auzotan dago banatuta: Sukarrieta, Kanala (itsasadarraren beste aldean), San Antonio, Las Muñecas, Txatxarramendi eta San Pedro. Honako herri hauek ditu mugakide: iparraldean eta mendebaldean Mundaka; ipar-ekialdean Ibarangelu; ekialdean Gaategiz-Argeaga; eta hegoaldean Busturia.

Antzina, *Samikola* edo *Samukille* izenez ezagutzen zen, San Nicolás-etik omen datorrena. Historialariek diotenez, Bizkaiko giza asentamendurik zaharrenetakoa da Sukarrieta, eta Donejakue bideko Bizkaiko adarretako bat ere izan zen Erdi Aroan. Herrian hainbeste su-harri egotea ez da arrazoi naturala, mineral hau ez baita ingurune honetakoa. Erdi Aroan, portugaleko itsasontziak Bizkaiko kostaldera etortzen ziren gaztainatan eta mineral honekin kargaturik. Sukarrieta edo Samukillera heltzen zirenean, minerala hustu eta gaztainak kargatzen zituzten itsasontzietan eta hortik datorkio izen berria herriari.

Arrantzan eta nekazaritzan oinarritu zen bertakoen ekonomia XIX. mendearen bukaeran turismoa izugarri garatu zen arte. Azken urteotan udaleku bihurtu da Sukarrieta. Beraz, langile gehienek zerbitzuen alorrean dihardute.

Gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola bat dago herrian. Ondoren Gernika-Lumora edo Bermeora joaten dira haurrak ikastera.

Sabino Arana, euskal nazionalismoaren aita bertan, bizi, ezkondu eta hil zen.

1893an eraiki zen trenbideak Sukarrieta Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.4. Busturia

Busturia Oka ibaiaren mendebaldean kokaturik dagoen herria da. 19,6km² ditu eta 1.693 biztanle. Eskualdeko hirugarren herririk populatuena da, Gernika-Lumo eta Bermeoren atzetik. Bost auzune daude: Axpe, Altamira, San Bartolome, San Kristobal eta Paresi. Udalerri hauek ditu mugakide: Sukarrieta iparraldean; Bermeo ipar-

mendebaldean; Meñaka mendebaldean; Oka itsasadarra ekialdean; eta Murueta hegoaldean. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako kidea da.

Mugei dagokienez, iparraldean kostaldea du, eta estuarioko sarrera Matxitxako eta Ogoño lurmuturrek eta Izaro uharteak zaintzen dute. Gainerako muga geografikoak Oka ibaiaren arroen banalerroak definitzen ditu, eta hamabi kilometroko zabalerako eta hogeiko luzerako lurraldea inguratzen duten altitude ezberdinek markatuta daude.

Busturiaren gaineko lehen agiriak XI. mendekoak dira. Iñigo Lopez eta Toda andreak – Bizkaiko jaun-andreak - Axpeko Santa Maria Monasterioa dohaintzan eman zieten Garcia jaunari – euren laguna eta Arabako apezpikua zena-, 1051ko urtarrilaren 30ean. Busturia elizbarrutiak Busturialdea eskualdearen buru funtzioa betetzen zuen.

XIX. mendearen erdialdean Busturian egon zen fabrikarik garrantzitsua San Mameseko toska-lantegia izan zen. Busturialdean lehengai ona eta dirua zegoenez, zeramika fineko lantegi hori sortu ahal izan zuten.

Gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola bat dago Altamira auzoan. Ondoren Gernika-Lumora joaten dira haurrak ikastera.

1893an eraiki zen trenbideak Busturia Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.5. Murueta

Murueta Urdaibaiko itsasadarraren ertzean kokatutako herri euskalduna da. 6,1km² ditu eta 311 biztanle. Muruetako herri mugakideak honakoak dira: Busturia iparraldean; Forua hegoaldean; Gautegiz-Arteaga ekialdean; eta Gamiz-Fika (Mungialdea) eta Fruiz (Mungialdea) mendebaldean, baina mendebaldeko muga naturala Oka ibaia da eta, ekialdekoa Urdaibaiko itsasadarra.

Muruetako erliebea aldakorra da; batetik, itsasadarraren ondoko padura eta gune lauak daude eta, bestetik, mendebaldean dauden mendiak. Zenbat eta mendebalderago, maldak orduan eta handiagoak dira.

1967an herri independente izateari utzi zion, Gernikak anexionatu zuelako; 1987an independentzia berreskuratu zuen berriro ere.

Nekazaritza izan da betidanik Muruetako jarduera ekonomiko nagusia; dena den, 1943. urtean sortu eta herriaren izena daraman Muruetako ontziola “Astilleros de Murueta S.A.” enpresak garrantzia handia dauka, Bermeo eta Euskal Herriko arrantzarako atun-ontziak eraikitzen baitituzte bertan.

Gaur egun, ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako biztanleak Gernika-Lumora edo Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

1893an eraiki zen trenbideak Busturia Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.6. Forua

Forua Oka ibaiaren mendebaldean kokaturik dagoen herria da. 8,0km² ditu eta 956 biztanle. Elexalde da herrigune nagusia eta gainontzeko auzuneak honako hauek dira: Gaitoka, Baldatika, Landaberde, Arnotxerri, Urberuaga eta Atxondo. Udalerri hauek ditu mugakide: Murueta iparraldean; Errigoiti mendebaldean; Oka itsasadarra ekialdean; eta, Gernika-Lumo hegoaldean.

Forua Bizkaiko erromatar aztarnategi garrantzitsuenetakoa da, Foruaren eta portuaren kokagunea izan zen; hortik datorkio bere izena.

Gaur egun, ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako biztanleak Gernika-Lumora edo Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

1893an eraiki zen trenbideak Busturia Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.7. Gernika-Lumo

Gernika-Lumo Urdaibaiko Itsasadarraren hasieran dago kokatuta. 8,6km² ditu eta 16.797 biztanle. Iparraldean Forua, Kortezubi eta Arratzu; ekialdean Ajangiz; hegoaldean Muxika; eta mendebaldean Errigoiti ditu mugakide.

Don Tello kondeak Gernikako hiribildua sortu zuen 1366ko apirilaren 28an. Jatorrian, hiribildua, batetik, Bermeotik Durangorako bideek, eta bestetik, Bilbotik Elantxoberako nahiz Lekeitiorako bideek osaturiko bidegurutzearan kokatuta zegoen. Horrenbestez, leku estrategikoan kokaturik zegoen; kokaleku horretatik, gainera, bide horiek ez ezik, berezko bide bat ere igarotzen zen, itsasadarra alegia; bertara, itsasontziak Susoko Portua deritzonaren etxeraino iristen ziren. Sorrera horretan, hortaz, merkataritzari loturiko arrazoi batzuk ere egon ziren.

Gerora, Gernikak euskal hiribilduaren ohiko hirigintza-tipologia hartu zuen. XVI. eta XVII. mendeetan Gernikako bizitzan (udal-arautegi zorrotza, nagusiak ziren burges txikien pribilegioak zaintzeko) ez zen aldaketa handirik izan. Gernikarraren eguneroko jarduerak nekazaritza (laborea, barazkiak eta fruta-arbolak), artisautza (errementariak, jostunak, zapatariak, lihoaren fabrikazioa...) eta merkataritza ziren (merkantzien garraioa eta salmenta).

Mende horiek izandako beste ezaugarri bat, bestalde, ondoko herriarekin izandako gatazka izan zen, Lumoko elizatearekin izandakoa, alegia; gatazka hori jurisdikzio mailako arazoek eragin zuten, eta horiek ez ziren 1882ra arte konpondu, herri biak bildu eta Gernika-Lumo sortu zuten arte.

Industria XX. mendean iritsi zen, biztanleriaren gorakada nabarmena eraginez. Gernikako muino txiki batean Batzarretxea eta Arbola daude. Euskaldunen arteko ohitura zaharra arbola baten azpian biltzea zen, batez ere haritz baten azpian, komunitate osoko interesak erabakitzeko (ohitura hori nahiko arrunta zen Erdi Aroko Europan). Bizkaiari dagokionez, lurralde administratibo bakoitzak (Merindadea) bere arbola zuen. Mendeen joanean, Gernikako arbola nagusitu zen, eta hori Lumoko elizatean zegoen. Arbola horren azpian, Bizkaiko legeak idatzi ziren 1876ra arte; herri guztiek ordezkariak (batzarkideak) bidaltzen zituzten bilkuretara (Batzar Nagusiak).

Gernikako biztanleriaren datu historikoetan dauden gorabeherak ulertzeko, udalerrriak XX. mendean zehar izan dituen anexio eta desanexioak aipatu behar dira.

1943an orduko espainiar gobernuak Ajangiz Gernikari batzea erabaki zuen. 1967an, berriz, Arratzu, Kortezubi, Forua, Murueta eta Nabarniz batu zitzaizkion. 1988tik aurrera kontrako prozesua gertatu zen, eta herriek Gernikatik banatzeari ekin zioten. Urte horretan Nabarniz, Murueta, Kortezubi eta Forua banandu ziren, 1990ean Ajangiz, eta 1993an Arratzu. Aurrekoak kontuan hartu gabe, datuek erakusten dute Gernikak hazkundera izan zuela gutxienez 1970eko hamarkadan, Bizkaiko beste herri batzuetan gertatu zen bezala. Bestalde, hazkundera jarraitu egin zuen XXI. mendearen lehen hamarkadan. Nabarmena da, baita ere, Espainiako Gerra Zibilaren sasoiaren, 1930eko hamarkadan, Gernikak pairatu zuen biztanleriaren jaitsiera.

Bestalde, Tello Kondeak hiribilduaren sorrera gutuna egin zuenean, 1366ko apirilaren 28an, aipatu zuen azoka astean behin egin behar zela eta, geroztik, astelehen guztietan biltzen dira Gernikako azokan bertako eta inguruko saltzaile-erosleak baserriko produktuak salerostera.

Oro har, Gernika-Lumon ikastetxe publiko bi (Gernika BHI eta Allende Salazar) eta hiru pribatu (Mertzedeko Ikastetxea, Seber Altube Ikastola eta San Fidel Ikastola) daude; bost ikastetxe guztira eta ikastetxe guztiek eskaintzen dute D ereduaren ikasteko aukera

1888an eraiki zen trenbideak Gernika Bilborekin eta tartean dauden herriekin lotzen ditu.

3.5.1.1.8. Ajangiz

Ajangiz Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erdigunean dago. 7,35km² ditu eta 463 biztanle. Historian zehar, hiru auzunek osatu dute Ajangiz: Mendieta (bertan dago udaletxea) Kanpantxu eta Errenteriak. Dena dela, azken hori gaur egun Gernika-Lumoren barruan dago.

Kokapenari dagokionez, iparraldean Arratzu dauka; sartaldean Gernika-Lumo; hegoaldean Muxika; eta sortaldean Mendata.

Erliebe leunak eta zelai sakon, umel eta emankorrek Ajangiz herri nekazaria izatea eragin dute. Paisaia landa, ortu eta baserri-gune txikiz osotuta dago. Hori dela eta, Ajangizeko bizilagunak herriko landa eta basoen esplotaziotik bizi izan dira. Ibarrean

laboreak landatzen ziren, batez ere artoa. Beste alde batetik, basoetatik Gernikako portu txikiko ontzitegietan ontziak egiteko eta herrian zeuden hiru burdinoletarako behar zen egurra ateratzen zuten. Herrian, burdinolez gain, hiru errota ere egon izan dira erreka arroetan.

XVI. mendearen erdialdean, Gernikako Batzarretan boto eskubidea zuten elizateen zerrenda itxi zenean, Ajangizek eskubide osoz hamaikagarren postua bete zuen, baina estatus juridiko bereziarekin: “ledania” zen. Antolaketa modu hau kasu bakarra da, eta Erdi Arotik Antzinako Erregimenaren amaierara arte iraun zuen, harik eta Ajangiz elizate bihurtu zen arte.

1943an Ajangizeko Elizatea derrigorrez anexionau zuten Gernika-Lumora. Gero, 1991ean independentzia lortu zuen, baina Errenteriako auzunea kanpoan gelditu zen. Gaur egun, Mendieta eta Kanpantxu auzuneek osotzen dute Ajangiz.

Gaur egun, ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako biztanleak Gernika-Lumora edo Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

3.5.1.1.9. Errigoiti

Errigoiti Busturialdea barrualdeko udalerria da. 16,43km² ditu eta 520 biztanle. Errigoitik honako auzoak ditu: Atxika-Errekalde, Elizalde-Olabarri (elizatearen jatorrizko gunea), Metxika eta Uriko auzoa, gaur egun Errigoitiko auzo garrantzitsuena dena. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean Busturia; ekialdean Gernika-Lumo, Murueta eta Forua; hegoaldean Muxika; eta mendebaldean, Arrieta (Mungialdea) eta Morga.

Gaur egungo Errigoitiren jatorria Erdi Aroko Idoibalzagako Andra Mari elizatean dago. 1376. urtean Mungia eta Gernika bitarteko, hau da Butroe eta Oka ibaien arteko bidea babesteko asmoarekin, Gaztelako Juanek lur eremu handiak eman zizkien Idoibalzagako Andra Mariko biztanleei. Horrez gain, Logroñoeko foruaren arabera antolatzeke eskubidea eman zien, horrela, Errigoitiko hiribildua sortuz.

Jatorrizko herritik 500 bat metrora, (gaur egungo Eleizalde auzoan) beste etxegune txiki bat sortu zen, Erdi Aroko herri tipikoaren ereduaren arabera antolaturik. Hiribildua izan arren, herri txikia izan da beti.

Bere jarduera ekonomiko nagusia nekazaritzan oinarritutakoa izan da.

Gaur egun ez du eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Gernika-Lumora edo Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

3.5.1.1.10. Morga

Morga Busturialdea barnealdeko herri euskalduna da. 17,6km² ditu eta 416 biztanle. Auzo hauek osatzen dute herria: Andra Mari (herri-burua), Meakur, Meaka, Morgaondo, Morgakoene, Oñarte, Ganbe, Erroeta eta Eserika. Oso paraje berezian dago, bertan Bizkaiko herrialdeen banaketa sortzen baita. Leku menditsu eta berde honek, Gernika-Lumo eta Plentziako itsasadar arroak banatzen ditu. Mugetan aurkitzen diren herrien artean Errigoiti eta Arrieta (Mungialdea) ditugu iparraldetik; hegoaldetik Zornotza (Durangaldea) eta Larrabetzu (Bilbo Handia); ekialdetik Errigoiti eta Muxika; eta mendebaldetik Gamiz-Fika (Uribe) eta Fruiz (Uribe).

Morgako jarduera ekonomiko nagusia beti izan da nekazaritza; hori dela eta, ongi errotutako historia duten baserri eta auzoz beterik dago. Horrez gain, Done Jakueren bidea eta baita Bizkaiko Foruak sinatzeko gune ere bada. Mungialdeko herriak hurren dituzenez, morgatarrek harreman estua izan dute betidanik ondoko eskualdeko biztanleekin.

Gaur egun, ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako biztanleak Gernika-Lumora edo Larrabetzuko eskolara joaten dira ikastera.

3.5.1.1.11. Muxika

Muxika Busturialdea banealdeko herri euskalduna da, Amorebieta-Etxano eta Gernika-Lumo udalerrien bitartean kokatuta dagoena. 50,02km² ditu eta 1.443 biztanle. Hala ere, hedaduraz Bizkaiko herririk handienetakoa da, 1965era arte independenteak ziren Ibarri, Muxika eta Gorozika elizateetatik sortua. 1966an Muxikak Gorozika eta Ibarri anexionatu zituen. Herrigune nabarmenik gabe, hainbat auzotan dago banatuta geroztik herria: Ibarri, Mauma, Ajuria, Gorozika, Zugastieta, Ariatza, Kurtzero, San Roman, Ugarte... Auzoen artean lotura handia izan da urteetan zehar, baina bakoitzak

bere izaera eta historia ere izan du, auzoen arteko distantziak handiak direlako. Iparraldean mugakide ditu Gernika-Lumo, Morga eta Errigoiti; ekialdean Mendata, Ajangiz eta Munitibar; mendebaldean Amorebieta-Etxano; eta, hegoaldean, Iurreta eta Berriz.

Oiz eta Bizkargi mendiguneen artean dago kokatuta udalerria, azken hau, Espainiako Gerra Zibilean bataila garrantzitsuen lekukoa izan zena. Bestetik, Oka ibaiak Muxika zeharkatzen du.

Gehien bat nekazaritzari lotutako udalerria izanik, Muxikak ez zuen gorabehera handirik izan biztanleen kopuruan XX. mendean zehar. 1966ko anexioen ondorioz populazioa handitu zen, baina XX. mendearen bigarren erdialdean beherakada txiki bat gertatu zen, herrietatik industriguneetara joandakoen ondorioz. XXI. mendearen hasieran hazkunde txiki bat gertatu zen biztanle kopuruan.

Gaur egun badauka eskola propioa, Urretxindorra izenekoa; hala ere, haur asko Gernika-Lumora joaten dira ikastera.

3.5.1.1.12. Mendata

Mendata Busturialdea barnealdeko udalerria da. 22,39km² ditu eta 379 biztanle. Oiz mendiaren iparraldeko mendi-inguruetan dago kokatuta. Erdigunea Elexalde auzoan dago eta Olabe, Albiz eta Marmiz auzoek osatzen dute herria. Muxika, Ajangiz, Arratzu, Nabarniz eta Munitibar-Gerrikaitz (Lea-Artibai) ditu herri mugakide nagusiak.

Nekazaritzan oinarritutako ekonomia da nagusi. Dena dela, biztanle gehienek industrian edo zerbitzuen sektorean dihardute, batez ere, Gernikan.

Gaur egun ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

3.5.1.1.13. Arratzu

Arratzu Busturialdea barnealdean dagoen udalerria da. 9,86km² ditu eta 398 biztanle. Herria Liola eta Belendiz auzo nagusien artean banatzen da bereziki. Hauek dira gainerako auzoak: Barroeta, Barruti, Eleizalde, Gorozika, Monte, Uarka, Zabala-Belendiz eta Zubiarte. Herritarren %95a baino gehiago euskaldunak dira gaur egun eta euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo kidea da. Iparraldean Kortezubi du mugakide; ekialdean Nabarniz; hegoaldean Mendata; eta mendebaldean Ajangiz eta Gernika-Lumo.

Arratzuko udalerria etxe-multzo edo auzo txikietan antolatzen da, eta eskualde-errepidean zehar edo errepide horretan sortzen diren auzobideetan kokatzen dira horiek. Hori dela eta, landa-egitura du eta azken urteotan ez du inolako aldaketarik izan lurralde-egiturari dagokionez. Loiola eta Belendiz dira gunen nagusiak. Bietako ezein ez da herri-eredu gisa eratu, eta jatorriz zehaztutako landa-egitura izaten jarraitzen dute, herriaren bilakaera historikoan izan duten bezalaxe. Hala ere, Loiola da landa-hiri kontzeptuaren antz handiena duena; izan ere, udaletxea, lehenagoko eskolak, frontoia eta plaza bertan daude.

Udalerriaren ezaugarri nagusia demografiari dagokionez, biztanleriaren hazkunde negatiboa da, 1940az geroztik biztanle-galera nabarmena egon baita, eta Gernikak eta Bizkaiko beste industrigune batzuek Arratzu bezalako landa-eremuetako jendea erakartzearen ondorioz gertatu da hori; eskualdeko ezaugarri den AEBerako eta Australiarako emigrazioa kontuan hartu gabe, noski.

Adina aintzat hartzen badugu, biztanle nagusi kopurua handia dela esan dezakegu, gazteekin alderatuz gero. Aipatzekoa da, erdia baino gehiago biztanleria ez-aktiboa dela; edonola ere, etxebizitza gehienetan ortua dago eta zeregin horretan dihardute herritar gehienek. Jarduera motari dagokionez, herri honek landa-inguruko izaera nabarmena du, baina, hala ere, biztanleria aktiboaren heren bat baino gutxiagok dihardute nekazaritzan eta abeltzaintzan (udalerriko biztanleria osoaren % 11,68k baino ez). Biztanle gehienek industrian edo zerbitzuen sektorean dihardute, batez ere, Gernikan.

Lehen sektoreari dagokion heinean abeltzaintza garrantzitsua bada ere, ez du lursail handirik hartzen, lehen aipatutako basogintzako eta nekazaritzako eremuekin alderatuta. Bigarren sektorea ia ez da ageri. Tailer bakan batzuk eta Uarka auzoan Golako ibaiaren jauzian dagoen ekoizpen hidroelektrikorako zentrala baino ez daude. Azkenik, hirugarren sektorea arlo publikoan esanguratsua dela aipa dezakegu, Barrutian Lanbide Heziketako ikastegia baitago; arlo pribatuan, aldiz, apenas du garrantzirik, udalerriko gizarte-harremanak biltzen dituzten bi taberna soilik daude eta. Gernika herri garrantzitsua eta hurbila izateak eragin zuzena du hirugarren sektoreko jardueren eskasian.

Arratzuk badauka eskola propioa, herriko haurrez gain inguruko herrietako umeak ere batzen dituen: Barrutia.

3.5.1.1.14. Kortezubi

Kortezubi Busturialdea barnealdeko udalerria da. 12,0km² ditu eta 461 biztanle. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean Gautegiz-Arteaga; mendebaldean Oka ibaia eta Forua; ekialdean Ereño eta Nabarniz; eta hegoaldean Arratzu eta Gernika-Lumo. Herriguneaz gain (Enderika eta Terlegiz), hainbat auzotan sakabanatutako biztanle-gune txikiak daude herrian: Basondo, Oma, Elorriaga-Santa Ana, Idokilis, Barrutia (Arratzurekin banatutako auzoa)...

Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritzen da bertako ekonomia. Dena dela, biztanle gehienek industrian edo zerbitzuen sektorean dihardute, batez ere, Gernikan.

Gaur egun ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

3.5.1.1.15. Gautegiz-Arteaga

Gautegiz-Arteaga Busturialdea zeharkatzen duen Oka ibaiaren ekialdean kokaturik dago. 13,57km² ditu eta 868 biztanle. Iparraldetik Ibarrangelu, hegoaldetik Kortezubi, ekialdetik Ereño eta mendebaldetik Urdaibaiko Itsasadarrarekin egiten du muga, azken honek Busturia eta Muruetatik banatzen duelarik. Herriaren erdigunea Zelaietako

auzoan dago, bertan daude udaletxea, eliza eta herriko plaza. Horrez gain, erdigunetik bananduta hainbat auzo daude: Basetxeta, Isla Goizkoa, Isla Bekoa, Muruetagane, Orueta eta Tremoia. Gautegiz-Arteagako eraikinik garrantzitsuena “Arteagako dorrea” edo gaztelua da. Erdi Aroko dorretxe baten hondarren gainean berreraiki zen, Eugenia Montijokoaren aginduz, Napoleon III.a bere senarraren garaian. Gaur egun, jatetxe eta hotel txiki bat daude bertan.

Gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntza Hezkuntzako eskola bat dago herrian, baina ostean Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira Bigarren Hezkuntzako ikasketak egitera eta ondoren Gernika-Lumoko Institutura.

3.5.1.1.16. Ibarrangelu

Ibarrangelu Oka ibaiaren ekialdean dago kokatuta. 15,6km² ditu eta 639 biztanle. Laga eta Laidako hondartzak udalerrri honetan daude. Iparraldean Elantxobeko udalerriarekin egiten du muga; mendebaldean Oka ibaiarekin; ekialdean Eako udalerriarekin eta hegoaldean Gautegiz-Arteaga eta Ereñoko udalerriekin. Udalerrri hau Urdaibaiko biosferaren erreserbaren barnean dago, Arboliz auzoa izan ezik. Herriko gune nagusia Elexaldeko eta Ibinagako auzoak biltzen dituen haranean dago. Sakabanatutako auzo ugari ditu: Arboliz, Akorda, Antzora, Andikone, Durukiz, Gametxo, Gandika, Ibaeta, Bolueta, Iturriotz, Tremoia, Iruskieta, Garteiz, Allike, Ibinaga, Laga, Laida, Lastarri eta Merru; horietatik garrantzitsuena Akordako auzoa da.

1858. urtean, ordura arte Ibarrangeluko auzo izandako Elantxobe, herritik banandu zen eta udalerrri independente bihurtu zen. Horrela, arrantza herriaren jarduera ekonomiko nagusi izateari utzi zion. Ia 150 urtez banandurik egon arren, bi herrien arteko lotura oraindik oso handia da.

Azken hamabost urteetan biztanleria gorantz joan da pixkanaka, eta etxebizitza ugari eraiki da, gehienak udarako bigarren etxebizitzak diren arren.

Gaur egun ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera. Hala ere, gure lekuko gaztea txikia zenean irekita zegoen herriko eskola.

3.5.1.1.17. Elantxobe

Elantxobe kostaldean dagoen udalerria da. 1,9km² ditu eta 391 biztanle. Elantxobetik iparraldera Bizkaiko Golkoa dago, eta hegoaldean Ibarrangeluko udalerria. Ogoño mendiaren ekialdeko magalean 150 metroko altueratik itsas mailaraino iristen da, bertan arrantza portua kokatzen delarik. 1527. urtean arrantzatik bizitzeko asmoz sortua Ibarrangeluko portu moduan, garrantzia izan zuen portu eta defentsarako postu bezala. 1833 arte Ibarrangeluko auzoa izan zen. Hain zuzen, Elantxobe izena Ibarrangeluko Elantxo baserri auzoaren behealdean kokatuta egotetik datorkio.

Herri honen lehen biztanleak Ibarrangeluko marinel eta arrantzaleak ziren, Ogoño lurmuturrean ainguratuta zituzten itsasontziengandik gertuago bizi nahi zutenak. Elantxobe pixkanaka hazi egin zen, eta XVIII. mendearen erdialdean hiribilduen itxura zuen.

Hala ere, udalerrri bezala egindako ibilbideari erreparatuta, Elantxoberen historia laburra da, 1854 arte Ibarrangeluko auzo izan baitzen. 1858an Ibarrangelutik banandu eta udalerrri burujabe bilakatu zen.

XX. mendean hirietara egondako migrazioek herriaren biztanleria asko murriztu zuten. 1900an Elantxobek 1.200 biztanle izan zituen arren, ondorengo urteetan Bilbora eta Gernikara joan ziren elantxobetar asko, etorkizun hobe baten bila, Euskal Herriko hainbat herritan gertatu bezala.

Horrelako erliebe malkartsuarekin, errepide bi baino ez daude, bata Ibarrangelutik portura doana, eta bestea herriaren erdigunera doana. Herriaren erdigunean, 1990. urtean, Bizkaiko foru aldundiak Elantxobe Bilborekin lotzen duen autobusak (Bizkaibus enpresakoa) buelta eman ahal izateko plataforma bat eraiki zuen.

Gaur egun ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera. Hala ere, gure lekuko gaztea txikia zenean irekita zegoen herriko eskola.

3.5.1.1.18. Ea

Ea Busturialdeko kostaldean dagoen udalerrria da; itsasadar batean dago kokaturik, portu natural baten ondoan. 14,17km² ditu eta 865 biztanle. Udalerrria ondoko auzo hauek osatzen dute: Ea (herrigunea), Bedaroa eta Natxitua. Herri hauekin egiten du muga: iparraldean Bizkaiko golkoa; ekialdean Ispaster (Lea-Artibai); mendebaldean Ibarrangelu; eta hegoaldean Ereño.

Earen kasuan, baliteke arrantza eta antzeko jarduerak egiteko aldi baterako egonleku izatea. Hala ere, herria bera Bedaronako, Ereñoko eta Natxituako elizateetako arrantzale nabigatzaileek sortu zuten XVI. mendean. Beranduago Gernika eta Lekeitio arteko komunikabide berria sortu zen eta nekazaritzarako lur aprobezagarriagoetan ereiten hasi ziren. Gainera, jaurreirian bakea ezarri zen. Egoeraren hobekuntza orokorrak Bedaronako eta Natxituako hazkuntza ekonomiko eta demografikoa eragin zuen eta gutxika herriak garatzen joan ziren. 1884. urtean Natxitua eta Bedaronako elizateak batu egin ziren eta gaur arte iraun duen Eako udala sortu zuten.

Sasoi batean Eako herritar gehienak arrantzan aritzen ziren. Hori dela eta, ibaia itsasoratzen den gunean portu txiki bat zeukaten eta eskabetxe-industria bat sortu zuten esekitoki eta gazitegiekin. Gaur egun, ostera, inguruko herrietara joaten dira lan egitera; dela Lekeitiora, dela Gernika-Lumora, dela urrunago.

Gaur egun ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera. Hala ere, gure lekuko gaztea txikia zenean irekita zegoen herriko eskola.

3.5.1.1.19. Ereño

Ereño Busturialdea barrualdeko udalerrria da. 10,67km² ditu eta 244 biztanle. Ereño, Ereñozar mendiaren magalean dago, itsasoaren mailatik 150 metrora. Ibarrangelu eta Earekin egiten du muga iparraldean; Gautegiz-Arteagarekin mendebaldean; Ispasterrekin (Lea-Artibai) ekialdean; eta Kortezubi eta Nabarnizekin hegoaldean. Guztira lau auzo daude: Akorda-Bollar, Basetxeta-Atxoste, Elexalde-Zieta eta Gabika. Herriaren erdigunea Elexalde-Zieta da, San Miguel elizaren inguruan sorturiko etxe multzoa. Orografiaren aldetik, oso udalerrri menditsua da.

Bi izan dira Ereñoko elizatearen historiaren ardatzak, Santimamiñeko kobazuloa batetik eta harrobiak, bestetik. Ereño "Marmolaren hiriburu" ere deitu izan dute, udalerriko harrobietatik ateratzen zen marmol gorriagatik. Harrobian lan egitera erdaldun asko etorri ziren; baita herriko eta inguruko gizonak ere.

Nekazari-herria izanik, batez ere nekazaritzan oinarritzen da bertako ekonomia, baina baita abeltzaintzan ere. Dena den, harrobiaren ustiaketari esker, nekazaritzaz gain beste jarduera ekonomiko batean ere aritzeko aukera izan zuen herriak, inguruko nekazari-udalerrietan gertatu ez bezala. Hala ere, 1950eko hamarkadatik aurrera harrobien gainbehera etorri zen eta horrekin batera biztanleriaren beherakada. Herritar askok Gernikara eta Bilbora jo zuten.

Gaur egun ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako haurrak Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera. Hala ere, gure lekuko gaztea txikia zenean irekita zegoen herriko eskola.

3.5.1.1.20. Nabarniz

Nabarniz Busturialdea barrualdeko udalerria da, mendialdean kokatuta dagoena. 11,75km² ditu eta 239 biztanle. Busturialdeko eskualdean biztanle gutxien daukan herria da eta, bestetik, Busturialdeko herririk euskaldunena ere bada, Udalaren arabera herritarren %98a baita euskalduna. Nabarnizek mugakide ditu Ispaster (Lea-Artibai) eta Gizaburuaga (Lea-Artibai) ipar-ekialdean; Aulesti (Lea-Artibai) hego-ekialdean; Mendata hego-mendebaldean eta Arratzu eta Kortezubi ipar-mendebaldean. Herriak sei auzo ditu guztira: Ikazurieta, Intxaurreaga, Uribarri-Zabaleta, Elexalde, Merika eta Lekerika.

Nabarnizko ekonomiaren ardatza nekazaritza izan da betidanik, eta horren oinarri baserria. Baserri bakoitzak bere ortua, abelburuentzako zelaiak eta fruitu arbolak ditu. Baserriak bertan bizi zirenei behar zutena eskaintzen zieten unitate buruaskiak ziren.

XX. mendeak aurrera egin ahala, gauzak aldatuz joan ziren. Bizkaiko nekazaritza herri gehienetan gertatu bezala, landa mundua gainbehera etorri zen industrializazioaren garapena zela eta. Gauzak horrela, baserriak eta herria bera hustuz joan ziren eta herriko biztanle askok Gernikara lehenik eta Bilbora ondoren jo zuten, bizimodu hobearen bila.

Biztanleriaren jaitsierak behea jo zuen 2001ean eta ordutik apur bat igo da, baina XX. mende hasierako biztanle kopurutik oso urruti oraindik ere.

1960ko hamarkadan Euskal Herriko hainbat herri txikirekin gertatu bezala, Nabarniz ere, indarrez beste udalerrri handiago bati anexionatzera behartu zuten. Horrela, 1964an Nabarniz Gernika-Lumoko auzo bilakatu zen. 1987an, berriz, Gernika inguruko beste hainbat herriekin egin bezala, independentzia berreskuratu zuen.

Nabarnizek 3242 errepidetik du sarbideetako bat; horrez gain, Aulestiatik datorren mendi bidetik ere sar daiteke. Hori dela eta, estua izan da betidanik Aulestiako biztanleekin izan duen harremana.

Gaur egun, ez dauka eskola propiorik, beraz, bertako biztanleak Gernika-Lumora edo Arratzuko Barrutia eskolara joaten dira ikastera.

3.5.1.2. Adina

Lehen esan dugun bezala, duela gutxira arte euskalkien edota hizkeren inguruko ikerketa gehienetan dialektologia klasikoak finkatutako bideari jarraitu izan zaio eta, beraz, belaunaldi zaharren gauzapean baino ez dira aztertzen izan. Gaur egun, ostera, batez ere EuDia ikerketa taldearen EAS eta EDAK ikerketa-proiektuei esker eta Iñaki Gaminderen azterketa anitzei esker ugarituz doaz adin-talde desberdinetako hitzunen gauzapean ikertzen dituzten euskarari buruzko lanak (Gaminde 2003b, 2009, 2010a, 2010b; Amorrortu 2003; Aurrekoetxea 2008; Ormaetxea 2008; Garmendia 2008; Santazilia 2009; Unamuno 2010; Gaminde eta Zubillaga 2010; Gaminde eta Romero 2011; Lujanbio 2011; Gaminde eta lag., 2012; Unamuno, Ensunza eta Ormaetxea 2012a, 2012b; Ensunza 2012, 2014). Gizarte-faktoreei dagokienez, ikerketa honen ardatz nagusia den aldagaia da adina, batez ere helduen belaunalditik gazteen belaunaldira gertatutako bizimodu aldaketaren ondorioz eta euskara estandarraren sorreraren eraginagatik.

Lujanbiok (2011: 7) dioen bezala, adinak beste gizarte-faktoreen eraginak islatzen ditu eta, horregatik, ez da batere aldagai sinplea. Bestalde, haur denbora, nerabetasuna, gazte denbora, heldutasuna eta zahartzaroa, ez dira sekuentzia kronologiko hutsak, gure bizi honetako gertakariei eta egoerei zuzenki loturik dauden aldiak baizik. Beraz, espero

izatekoa litzateke adin-fase desberdinetan hizkera edo molde desberdinak baliatzea. Bizialdian, hiztunak irudipena du adinean eta heldutasunean aitzinera doala; honela, bere biziko hurrengo garapenei begira dago, eta doan norabide kronologiko horretan, izateko era berriak asumituko ditu eta mintzatzeko era berriak bereganatuko (gehiagorako ik. Camino 2009: 66).

Hori dela eta, interesgarri bezain beharrezko da adinaren araberako banaketa egitea. Ikerketa hau, ikuspuntu soziolinguistikotik egin da eta, beraz, bi adin-taldetako hizkera batu dugu, jakina baita adineko lekukoen berbakera soilik aztertzean forma zaharrak jasotzen direla, ondoko belaunaldietan jada desagerturik daudenak eta, beraz, ez dute herriko eguneroko hizkeraren osotasuna islatzen. Hori bai, iraganeko hizkeraren berri ematen dute beraien berbakerak eta, honek, gaur egungoa nondik datorkeen eta norantz doan ikusten laguntzen du. Horregatik da ezinbesteko zaharren mintzoa batzeaz gain, gainontzeko adin-taldeetako jendearen hizkera ere biltzea hiztun komunitatearen ordezkari izango diren ondorioak aterako badira.

Bestalde, gisa honetako atzerriko ikerketetan oso ohikoa da adinaren araberako banaketa egitea, alabaina adin-multzoak ez dira beti bat etortzen. Dena dela, ikerketa honen helburuak kontuan izanik, bi adin-talde egitea erabaki da: 1) helduak; 2) gazteak. Banaketa hau, batez ere, batzuek eta besteek euskara estandarrarekiko duten hurbiltasunean oinarrituta egin da; izan ere, batetik, gaztelaniazko hezkuntza jaso zutenak eta euskara batuko hezkuntza jaso dutenak elkarrekin bizitzen daude gaur egun; eta bestetik, euskara estandarraren sorrerak eta hezkuntzan erabiltzen hasteak eragin handia izan dute euskaldunen berbakeran oso denbora-tarte txikian. Gainera, belaunaldi bien artean bizimodu aldaketa handia gertatu da: mugitzeko erraztasuna, globalizazioa, ohiturak, etab.

1. Helduak (<1950). 1950 urtea baino lehen jaiotakoak, 65 urtetik gorakoak, beraz. Hala eta guztiz ere, oro har ez da jende oso heldua baliatu ikerketa honetarako, nekagarria izan daitekeelako beraienez gisa honetako galdetegiak jasatea eta, gainera, badaudelako jasota Gernika-Lumoko lekukotasun zaharrak Badihardugu Euskara Elkartearen www.ahotsak.com web orri interesgarrian, besteak beste.

Adin-tarte hau osatzen duten lekuko gehienek ez dute ikasketa maila alturik eta herri txikietan, gehienbat, baserri munduari lotutako bizimodua izan duten biztanleak

dira; dela nekazaritzari, dela abeltzantzari lotua. Oro har, herritik gehiegi mugitu ez den jendeak osatzen du talde hau, lana bera ere herrian egiteko aukera izan dutenak dira; izan ere, gaur egun herririk herri mugitzeko ditugun erraztasunak urriak ziren sasoikoak dira. Ikasketak, gainera, herriko eskolan gauzatu dituzte gaztelania hutsean eta, beraz, lekukoetarik askok ez dute hizkera estandarra ezagutu ez bada telebista, irrati edo egunkarietatik. Bestela esanda, garai bateko beren senideen berbakerari jarraitzen diote, ez dira egokitzen aro berriak ekarri dituen aldaketetara, dagoeneko gainditurik, aldaturik, itzalirik edo indargaldurik dauden aldaerak baliatzen dituzte.

2. Gazteak (1985-1995). 1985-1995 urteen artean jaiotakoak, 20-30 urte artekoak, beraz. Adin-tarte honetakoak dira txikitatik teknologiaren garapena ezagutu duen lehenengo adin-tartea eta antzinako gizartetik modernorako jauzia jasan dutenak. Pentsatzekoa da, aldaketa hauekin guztiekin hizkeran bertan ere aldaketak gertatu direla, gizarte berrira egokitzeko borroka horretan. Gaur egun talde hau osatzen duten gazteek euskara estandarren eragina izan dute txikitatik, bai eskolan, bai komunikabideetan, bai gizarte-harremanetan. Euskara estandarra eguneroko kontaktuan oso presente duen adin-tartea da honakoa, beraz. Horrez gain, ikasketa-mailari dagokionez, helduek baino formazio maila altuagoa dute adin-tarte honetakoek, oro har. Bestalde, herririk herri mugitzeko dauden baliabide ugarietarako esker, eskualdekoak ez diren herrietako gainontzeko euskaldunekin harremana izatea oso erraza da eta, beraz, hizkera gehiagorekin daude kontaktuan adin-tarte hau osatzen duten lekukoak. Lana ere, gehienetan, herritik kanpo zein eskualdetik haratago bilatzen dute adin-tarte honetakoek.


3.5.1.3. Ikasketak

Gauza jakina da herri txikietatik handietara mugitu dela jendea bizitzera eta, horrekin batera, herri txikietako jaiotza-tasak nabarmen egin duela behera. Horrek eragin duen ondorioetako bat herri txikietako eskolak zarratzea izan da, ikasle faltagatik. Ondorioz, herri txikietako umeek hurren dagoen herri handiago bateko eskolara joan behar izan dute ikastera. Busturialdeko herri txikien kasuan, Gernika-Lumo, Bermeo, Arratzu edo Lekeitiora mugitu dira normalean umeak. Lekuko helduen kasuan, guztiek ikasi dute beraien herriko eskolan; are gehiago, bere auzoko eskolan.


Hezkuntza gaztelaniaz jaso duten arren, umeez euren arteko harremanetan euskara baliatu izan ohi dute, baita familia arteko harremanetan ere. 3.5.1.2§ atalean esan bezala, horrek eraginda garai bateko beren senideen euskararen oinordeko dira.

Hori dela eta, garrantzitsua begitandu zaigu eskolen araberako banaketa egitea. Horretarako, kontuan izan dugu lekuko gaztea, txikia zenean, bere herriko eskola irekita ala itxita zegoen eta, beraz, bertan ikasi zuen ala mugitu egin behar izan zen ondoko herriren batera. Izan ere, bere herriko eskolan ikasi bazuen, hezkuntza euskara estandarrean izan arren, ikaskide guztiak herrikoak bertakoak izan zituen eta, beraz, ondoko herrietako hizkeraren eragina txikiagoa zen eskolan. Ondoko herriren bateko eskolara mugitu bazen, ostera, etxean jasotako euskara eta ikaskideena ez zen erabat berdina izan eta, beraz, beste herrietako hizkerak eragin egingo zuten bere hizkeran.

Ondoko mapan ikus dezakegu zein herritan zegoen eskola zabalik (berdez) eta zeinetan itxita (gorriz) gure lekuko gazteak txikiak zirenean eta, beraz, nork ikasi duen herrian (berdez) eta nork handik kanpo (gorriz). Bestalde, inguruko herrietako ikasleak biltzen dituzten herri-eskolak zeintzuk diren ere ikus daiteke (urdinez): Bermeo eta Gernika-Lumo. Hauek, Busturialdeko erdigune eta herri populatuena izateagatik, jende askok bidaltzen ditu bere seme-alabak bertara ikastera. Gainera, garraio publiko zabala (autobusak, trenak) dutenez, irtenbide erraza suertatzen da. Bestalde, Arratzuko Barrutia eskola dugu, eskolarik gabeko inguruko herri txikiak biltzen dituen. Hori dela eta, batez ere Arratzuko Barrutia Ikastetxeko ikasleen artean gertatzen da hizkeren arteko nahasketa, Busturialdeko herri askotako ikasleak biltzen baitira bertan:



5. Mapa: Busturialdeko herriak geografikoki



6. Mapa: Busturialdeko herri eskolak. Berdea: zabalik. Gorria: zarratuta. Urdina: zabalik, ondoko herrietako ikasleen bilgune

Erdigune eta bilgune funtzioa egiten duten Bermeo eta Gernika-Lumon, ikasketa-zentro bat baino gehiago daude. Gaminde, Romero eta Legarra-k (2012) Bermeon eta Ensunzak (2012, 2014) Gernika-Lumon erakutsi dutenaren arabera, badaude aldeak batetik bestera. Oro har, aurreko ikerketa hauen arabera ikastolako umeak berritzaileagoak dira eta eskolakoak gordetzaileago. Badagoenez ikasketa-zentroen araberrako ikerketa aitzindariarik, haietan irakurritakoak ekarriko ditugu hona, baina ez ditugu gure gizarte-faktoreen barruan zehaztu ikasketa-zentroak.

3.5.1.4. Generoa

Gisa honetako ikerketa guztietan ez bada, gehienetan, ohikoa da gizarte-faktoreen artean generoa bereiztea. *A priori* ez dago jakiterik Busturialdeko herrietan generoaren araberrako alderik dagoen, baina Gamindek (2010a), Gaminde, Romero eta Legarra-k (2012) eta Ensunzak (2012, 2014) egindako ikerketa eta iradokizunek baiezkoaren aldeko zantzua erakusten dute. Hala ere, gure ikerketaren mugak ezartzerakoan emakumezkoak soilik grabatzea hautatu dugu eta, beraz, etorkizunean ikerketa bera gizonezkoekin egin eta konparaketak gauzatzeko aukera izango dugu.

Gainera, Caminok (2009: 299-300) dioenarekin bat egiten dugu:

Gauza jakina da Euskal Herrian gizonak sarritan etxetik atera direla lan bila, gerran beste herrietako eta eskualdeetako euskaldunekin batera ibili direla, tabernetarako ohitura eduki dutela, azokarako, bertsoetarako zaletasuna... eta, horregatik, arruntagoa da gizonak beren hizkerakoak ez diren hitz eta moldeak erabiltzea. Bestalde, emakumeak neskame joan behar izan dira maiz. Hori dela eta, berritzaile izatea ez dagokio norberaren generoari, pertsona bakoitzak duen jokabideari, rolari eta izaerari baizik, irekia edo irekizalea izateari, bizi izan den egoerari eta errealitateari.

3.5.2. Hizkuntza-aldagaiak

Hizkuntza-aldaketak eguneroko hizkeran gertatzen dira eta aldaketak, funtsean, bariazioarekin hasten dira; hau da, hiztunak gauza bera adierazteko aldaera bat baino gehiago erabiltzean (Campbell 2004 [1998]: 219). Hizkuntza-aldagaia edo *linguistic*

variable delakoa hizkuntza-unitate bat da, gauza berbera adierazteko aldaera bi edo gehiago dituena (Tagliamonte 2012: 15). Honela dio Sankoff-ek ere (1988: 142-143):

Linguistic variables must also be alternatives (i.e. options) within the same grammatical system which have the same referential value (meaning) in running discourse.

Bestalde, hizkuntza-aldagaiak hautatzeko kontuan izan beharrekoak zehazterakoan honela esaten du Labov-ek (1969: 728):

Although some variants may differ subtly in meaning and distribution, if they are part of a linguistic variable they will be members of a structured grammar. Moreover, the choice of one variant or the other must vary in a systematic way. There is difference, but there is structure to it. Different ways of saying more or less the same thing may occur at every level of grammar in language, in every variety of a language, in every style, dialect, and register of a language, in speaker, often even in the same discourse in the same sentence. In fact, variation is everywhere, all the time. This is why it is referred to as “inherent” variation.

Hizkuntza-aldagaiak bi eratakoak izan daitezke: beregainak edo menpekoak. Honela azaltzen ditu Tagliamontek (2012:7):

The dependent variables are the features of the linguistic system that vary (e.g. the varying pronunciations of the same phoneme, the choice of relative pronoun, the selection of an intensifying adverb). Independent variables are the features associated with the variation. They can be external to the grammar, out in the world, relating to aspects of the social context, situation, community settings, or register. They can also be internal to the grammar, relating to the linguistic environment such as the grammatical category of the world, the type of subject in the clause, or its function.

Ikerketa honetarako beregainak diren hizkuntza-aldagaiak hartu dira eta hauetako bakoitzak goian (3.5.1§) deskribatutako gizarte-faktoreekin duen harremana aztertu da.

Hizkuntza askotan hotsei dagokienean aldakortasuna handiagoa izaten da bokaletan kontsonanteetan baino. Egia da gisa honetako ikerketa garrantzitsuenak hizkuntza germanikoetako bokalen inguruan egindakoak izan direla. Ikerketa honetan, ordea, Busturialdeko herrietako euskararen aldakortasuna erakusten duten hizkuntza-aldagaiei erreparatzean kontsonantetan bokaletan besteko aldea ikusi da.

Bestalde, ezin ahantz daiteke, hizkuntza-aldaketaren aitzinean kokatzen direnak ez direla gramatika, hizkuntza edo hizkuntzalaria, hiztuna bera baizik. Hizkuntza-aldaketa gertatzen den garaian, sistema nagusiari dagozkion aldaera paraleloen aitzinean nahi eta nahi ez kokaturik daude hiztunak; ondorioz, aldaeren arteko halako lehia aurkituko dute ezinbestean: “materia indigena”-ren eta “spirito estraniero”-ren arteko lehian, sistema menperatuko zenbait aldaera foniko eta morfologikok iraunen dute, eutsiko diote. Oldar berriaren aitzinean, hiztunak erabaki beharko du, ondarez jaso duen eta berezkoa duen hizkuntza-tradizioaren autonomia babestu eta nabarmen-araziko duen, ala berrikuntzei egokituko zaien (Grassi 1998: 771-72, *apud* Camino 2009: 41). Hiztunak eurak dira aldaera bat ala bestea erabiltzearen aldeko hautua egiten dutenak.

Ikerketa honetarako erabili diren hizkuntza-aldagai independenteak 19 dira guztira. Ez dira ausaz hautatu; alde batetik, Zuazok (2003) zehaztutako sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkietan bereziak diren ezaugarriak hautatu ditugu. Bestetik, Gamindek (2007) Bizkaiko hizkeren azterketarako erabilitako ezaugarriak ere hartu ditugu. Honekin, denboran isoglosak aldatu ote diren eta norantz aldatu diren antzeman ahalko dugu. Bestetik, euskara estandarraren eraginez sartu diren ezaugarriak ere hautatu ditugu, Busturialdeko hizkeretan gertatzen ari den konbergentziaren berri izateko. Honako hauek dira ikertutako aldagaiak: (a) aldagaia, (i_V) aldagaia, (oa) aldagaia, (i_a) aldagaia, (au) aldagaia, (-atu) aldagaia, (dau) aldagaia, (-tzen) aldagaia, (edun) aldagaia, (j-) aldagaia, (zait) aldagaia, (it) aldagaia, (ind) eta (ild) aldagaiak, (-kin) aldagaia, (joan-eroan) aldagaia, (bi) aldagaia, (hau) aldagaia, (loi) aldagaia eta (lar) aldagaia. Azaldu da jada (4§) aldagai bakoitza aztertzeke erabilitako metodologia, beraz, aldagai bakoitzak Busturialdean erakusten dituen aldaerak azalduko dira jarraian eta, ostean, hizkuntza-aldagai bakoitzak beste gizarte-faktoreekin duen harremana aztertuko da.

3.5.2.1. (a) aldagaia

Gauza jakina da mendebaldeko euskalkian *-a* amaiera duten hitzei *a* artikulua eransten zaienean, $-a + a \rightarrow -ea$ arau fonologikoa gertatzen dela: *neska + a \rightarrow neskea*. Gero, jakina, *-ea* horretatik *-ia, -ie, -i* edo *-e* sortzen dira, hizkeren arabera: *neskia, neskie, neski, neske*. Horrez gain, eremu batzuetan $-o + a \rightarrow -ua$ araua ere gertatzen da (*astoa > astua*) eta, gero, jakina, *-ue, -u* edo *-o*: *astua, astue, astu, asto*.

Busturialdeko hizkeretan, batetik *-ie* eta *-i* aldaerak eta, bestetik, *-oa*, *-ue* eta *-u* aldaerak aurki daitezke: *neskie/neski; astoa/astue/astu*. Eremu honetako herrien artean dagoen desberdintasuna, beraz, artikulua asimilazioan datza (a) aldagaiari dagokionean. Hori dela eta, bi aldaera izango ditugu aztergai atal honetan: (+a) aldaera eta (-a) aldaera. (+a) aldaerak adierazten du azaleko egituraren artikulua azaltzen dela hizkera horretan eta (-a) aldaerak, ostera, azaleko egituraren artikulua ez dela azaltzen adierazten du.

Hualdek (1991: 64) honela azaltzen du Ondarroako adibidea:


Instead of a rule creating long vowels and another rule shortening them, we can assume a rule deleting the second vowel in a sequence, ordered after Mid Vowel Raising; e.g.: /etše-a/ → /etši-a/ → /etši/. Now, not all vowels are deleted in this context. For instance, there is no deletion in the proximate plural /etši-ok/ [etši-ok]. The only vowels that are deleted are /a/ and /e/; or, if we order Low Vowel Assimilation before Vowel Deletion, only [e].²

Zuazok dioenez (2014: 205), bokalez amaitzen diren hitzetan artikulua asimilatzea hizkera askotan gertatzen da, “Bizkaiko Uribe Kosta eskualdean, esate baterako, araua da hori. Getxokoak dira adibideak (Hualde eta Bilbao 1992: 57): *basoak* > *basok*; *basoek* > *bások*; *basoari* > *basori*; *basoei* > *básori*; *basoaren* > *bason*; *basoen* > *báson*... [...] gauza bera gertatzen da Gipuzkoako Goierri eskualdean. Uribe Kostan, gainera, absolutibo singularrean ere gauzatzen da asimilazioa, eta hori ez da hain gertakari arrunta [...]: *etxea* ‘etxea’ > *etze*; *basoa* > *baso*; *iturria* > *iturri*; *burua* > *buru*; *alabea* ‘alaba’ > *alabe*. Uribe Kostatik kanpora, Lea-Artibaiko hizkera batzuetan (Ondarroa, Berriatua...) eta Nafarroako Basaburua gehienez eta Larraun ibarreko zenbait herritan gertatzen da. Beste alderdi batzuetan ere bada horretarako joera, baina baldintzak ez dira beti berberak. Gipuzkoako Errezilen, esate baterako, hitza *-i* edo *-u* bokaletan amaitzen denean gertatzen da; ez bestela: *ogia* > *ogii*; *eskua* > *eskuu*.”

Gamindek (2007: 22), ostera, zehatzago adierazten du mugatzailearen asimilazioa 3 eratakoa izan daitekeela: 1) singularrean gertatzen den “a” mugatzailearen asimilazioa edozein bokalen aurrean; 2) gainerako arauak aplikatu ondoren “e” edo “a” asimilatzea bokal altuen ostean; eta 3) pluraleko asimilazioa. Hala ere, Busturialdeko herrietan 2. araua bakarrik gertatzen da. Gainera, ohartarazten duenez, asimilazio arauaren bat

² Salbu eta Lekeition, /katuak/ → [katuk] bihurtzen baita bertan eta, beraz, asimilatzen dena /a/ bokala da.

gertatzen den herrietan berau ez da aplikatzen silaba bakarreko erroekin: *keye, sue, lue*, e.a. (Elantxobe, Ondarroa). Gamindek ematen duen mapa honetan ikus daiteke 2. arauaren hedadura:

V>0	Elantxobe, Ondarroa, Berriatua, Munitibar	
V>0 ez beti	Bermeo, Mundaka, Ea, Nabarniz, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti, Ispaster, Lekeitio, Mendexa, Markina, Bolibar, Etxebarria	

7. mapa: Bokalaren asimilazioaren hedadura bizkaian (Gaminde 2007: 23)

7. mapan ikus daitekeenez, Busturialdeko herrien artean Elantxobe da bokal altuen osteko artikulua beti asimilatzen duena (berdez); Bermeon, Mundakan, Ean eta Nabarnizen, asimilazioa gertatzen da baina ez beti (horiz); eta sortaldeko azpi-euskalkiko hizkera guztietan gertatzen da (batzuetan beti; besteetan ez beti), baina sartaldeko azpi-euskalkietan ez (zuriz). Beraz, ezaugarri honek *sortalde* eta *sartalde* bereizketa egiteko balio duela ondoriozta daiteke.

Zuazoren eta Gaminderen ohar hauek kontuan izanik prestatu ditugu gure galdetegiko esaldiak eta, beraz, bokal guztietan amaitzen diren berbak sartu ditugu, ez soilik *-i* eta *-u* bokal altuez amaitzen direnak³ eta, horrez gain, berbak absolutibo singularrean eta pluralean ere aztertu ditugu. Hauek dira erabilitako galdera batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- Mi hija ha venido con flores
Nire alabie lorakas etorri de (Mundaka gaztea)
Nire alabi tor da larrosakas etzera (Bermeo heldua)
- Tu hijo ha entrado cantando a casa
Sure semie kantetan sartu xate geur nire etzin (Nabarniz heldua)
Sure semi kantaten sartun de etzera (Ibarrangelu heldua)
- El burro se ha puesto enfermo
Astoa geixorik pare da (Forua heldua)
Astue geixorik parau de (Ereño heldua)

³ Kontuan izan behar da *-i* bokalez amaitutako berbei *-a* artikulua gehitzen zaionean, Busturialdeko hizkera guztietan kontsonante epentetikoa tartekatzen dela bi bokalen artean. Honek, galarazi egiten du artikulua desagertzea hala egiten den herrietan.

Astu geixotu in da (Elantxobe gaztea)

-El cielo está azul

Serue asul dau (Kortezubi heldua)

Seru deu asul (Elantxobe heldua)

3.5.2.2. (i_V) aldagaia

Jakina denez, mendebaleko euskalkian *i* bokala nahiz *Vj* bokal-erdia *a*, *e*, edo *o* bokalaren aurretik doanean arau fonologiko bat gertatzen da, bokal bien artean kontsonante epentetikoa tartekatzen duena. Gure ikerketan “(i_V) aldagaia” izendatu dugu. Hualdek (1991: 57) ohartarazten duen bezala, “this process of consonant insertion takes place only after an underlying /i/ and not after /i/ created by rule” eta, bestalde, “do not apply across word-boundaries, across the members of a compound or, in general, with derivational suffixes”: [mendialde], ez **[mendižalde]; [belarñiaundiže], ez **[belarñizaundiže]; [donoštiār], ez **[donoštižar̄].

Aldagai honek, halaber, hiru aldaera ditu Busturialdeko euskararen, tartekatzen den kontsonantearen nolakotasunean datzana: (z) aldaera ([ʒ] frikari sabaiurreko ahostuna), (x) aldaera ([ʃ] txistukari sabaiurreko ahoskabea), (s) aldaera ([s] frikari apiko-albeolare ahoskabea) eta (0) aldaera ([∅] kontsonanterik ez tartekatzea).

(i_V) aldagaia aztertzeko erabili diren berbak honako hauek izan dira: *ogixe* ‘ogia’, *sikinkerixe/porkerixe* ‘zikinkeria’, *maixe* ‘mahaia’, *aterkixe* ‘aterkia’, *gustixe* ‘guztia’, *iturrixen* ‘iturrian’, *begixen* ‘begian’, *txikixeixe* ‘txikiegia’, *bixer* ‘bihar’, *merixendan* ‘meriendan’, *kanarixoa* ‘kanarioa’, *radixoa* ‘irratia’.

Igurzkarien ezaugarri akustikoak aztertzeko indize desberdinak iradoki dira. Euron arteko bat igurzkariak espektroan sortzen duten zarataren banaketa eta kontzentrazioaren altuera desberdintasuna dira, baita energiaren kontzentrazioa ere (Silbert & Jong 2008, *apud* Gaminde eta lag. 2012:57):

Previous research leads us to expect that coronal fricatives will have higher spectral means, lower spectral standard deviations, higher spectral kurtosis, and lower spectral skewness, than labio dental fricatives. More specifically, coronals will have negative spectral skewnesses, while labiodentals will have spectral skewnesses near zero. Phonologically voiced fricatives will have higher spectral standard deviations, lower i.e., more negative spectral slice, and lower

spectral kurtosis, regardless of prosodic context. Although the effects of changes in cross-section area.




Gaminde eta lag. (2012) lanean /s/-ren palatalizazioa akustikoki aztertze bost adierazle akustiko hartu dira: “Grabitate zentroa” (Gz), “Desbiderapen estandarra” (Sd), “Skewness” (Sk) edo “alborapen neurria”, “Kurtosia” (K) eta “Energiaren kontzentrazioa” (Hz). Grabitate zentroaren bidez, espektro bateko frekuentzien altueraren batez bestekoa neurtzen da; desbiderapen estandarren bidez neurtzen da, espektroaren frekuentzia zenbatetan desbidera daitekeen grabitate zentrotik; skewness distribuzio baten asimetria graduaren neurria da; kurtosia distribuzio baten erpin gradua da, distribuzio baten laugarren erdiguneko momentuaren forma normalizatutzat definitua; eta azkenik, energiaren kontzentrazio handiena zein frekuentzietan gertatzen den aztertzen da iraupena eta energia. Hualdek (2009:5) egindako ikerketak erakusten duenez, [s̺]-ren grabitate zentroa [s̺]-rena baino askoz altuagoa da eta [ʃ]-ren grabitate zentroa da denetan baxuena. Skewness-ari dagokionez, Hualderen ikerketaren arabera, [s̺] eta [ʃ] dira balio altuena erakusten dutenak, baina bien arteko desberdintasuna ez da oso nabarmena. Gaminde eta lag. (2012) lanean adierazten denez, desbiderapen estandarra eta kurtosia dira [s̺] eta [ʃ] arteko aldea ondoen irudikatzen dutenak; izan ere, [ʃ] sabaiaurrekoak [s̺] apikariak baino desbiderapen estandar altuagoa daukala erakusten dute haien datuek eta, kurtosia, aldiz, bajuagoa.

Ikerketa honetako datuetatik ateratako emaitzek erakusten dute [s̺] eta [ʃ] aldaeren arteko desberdintasun nagusia desbiderapen estandarrean (Sd) eta kurtosian (K) datzala; izan ere, hurrengo taulan ematen diren batezbestekoen arabera, [ʃ] aldaerak desbiderapen estandar altuagoa eta kurtosi bajuagoa ditu [s̺] aldaerak baino:

	Sd	K
[s̺]	856, 98	14,68
[ʃ]	1457	2,9

1. Taula: (i_V) aldagaiaren sd eta k-ren bataezbestekoak

Bestalde, (i_V) aldagaiaren (z) aldaera eta (s) aldaera bereizten dituen, ahoskuneaz gain espektrograman agertzen den (z) aldaeraren ahostuntasun barra da:



Aldagai honek bi bereizketa egiteko balio digu; alde batetik, epentesiaren izaera; eta bestetik, epentesia tartekatzea ala ez tartekatzea. Izan ere, sortaldean arauzkoa da /i+a, e, o/ tartean epentesia sartzea, baina sartaldean ez (*apud* Zuazo 2014: 184). Gamindek zehazkiago eskaintzen du epentesi honen izaeraren distribuzio geografikoa:

ahostuna (dx)	Ubide, Ajangiz, Arteaga, Bermeo, Mundaka, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gernika, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zornotza, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Ugao, Zaratamo, Zollo, Amoroto, Aulesti, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Mendexa, Munitibar, Arrieta, Bakio, Frui, Gamiz-Fika, Meñaka, Mungia*	
ahoskabea (x)	Mallabia, Ermua, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Markina, Ondarroa	
biak	Elorrio, Zaldibar	

8. Mapa: Txertatzen den kontsonantearen hedadura (Gaminde 2007: 21)

8. mapan ikus daitekeenez, Busturialdea osoan aldaera ahostuna (horiz) jaso du Gamindek. Hala ere, honako hau ohartarazten du:

Arauetan adierazi ez badugu ere, ahoskabetze prozesua burutzen hasi da Gernika inguruko herrietan ere hiztun gazteen artean. Aldaketa hau oraintsu hasi da burutzen eta baliteke oraindino hiztun guztietan ez gertatzea, belaunaldi berean; hala ere, indartsu eta gora datorren joera da.

Ensunkak (2012: 229) zehatzago deskribatzen du Gernika-Lumon aldagai honek erakusten duen desberdintasuna:

Gernika-Lumoko hizkeran 1. eta 2. adin-taldeetan aldaera ahostuna bakarrik erabiltzen da eta 3. adin-taldean hasten da aldaera ahoskabea agertzen, oso maiztasun txikiz bada ere (%5). Ondorengo adin-taldeetan, ordea, aldaera ahoskabea lekua hartuz doa, baina ahostunarekin oso parekatuta ageri da. Dena dela, 5. adin-taldean aldaera ahoskabearen maiztasuna (%43) ahostunarena (%41) baino altuagoa da.⁴

Gernika-Lumon gaur egun dagoen desberdintasuna ikusita, pentsatzekoa da Busturialdeko herrietan ere abian izango dela aldaketa eta belaunaldi gazteetan (z) aldaera urrituz doala.

⁴ 1. adin-taldea: 1950 aurretik jaiotakoak; 2. adin-taldea: 1951-1964 artean jaiotakoak; 3. adin-taldea: 1965-1980 artean jaiotakoak; 4. adin-taldea: 1981-1990 artean jaiotakoak; 5. adin-taldea: 1991-2000 urteen artean jaiotakoak.

3.5.2.3. (oa) aldagaia

Gauza jakina da *-o* bokalez amaitzen diren hitzei *-a* artikulua gehitzen zaienean, *-oa* batuketak aldaketak jasaten dituen hainbat euskalkitan. Hori dela eta, *-ua*, *-ue* zein *-u* bilaka daiteke, edo *-oa* bere horretan mantendu.

Honela dio Zuazok (2014: 207):

Euskal Herri osoko hainbat lekutan *e* eta *o* bokalak *a*, *e* edo *o* bokalekin batzen direnean, *e* > *i* eta *o* > *u* aldatzen dira: *etxea* > *etxia*/*etxie*; *besoa* > *besua*/*besue*. Hizkera batzuetan besteetan baino indartsuagoa da eta, gorago esan dudanez, Nafarroako Sakanan da, dakidala, denetan indartsuena. Bokalarteko kontsonantea galdu ondoren ere gauzatzen da: *basora* > *basoa* > *baswa*; *papera* > *papea* > *papja*. Zuberoan ere indartsua da: *eraiki* > *iaiki*; *erori* > *ioi*; *laborari* ‘baserritar’ > *labuai*; *Zuberoa* > *Xibeua*. Dena dela, bilakaera bi horiek ez dute eremu bera: *e* > *i* egiten den alderdian *o* > *u* egiten dena baino zabalagoa da. Gernika inguruetan, esate baterako, *kalea* > *kalie* egiten da, baina *kanpoa* bere horretan gelditzen da, *kanpua* edo *kanpue* egin gabe. Beharbada, antzinakoagoa da *e* > *i* bilakaera, eta horren ondorioa zabalduago egotea.

Kontuan izan behar da sortaldean arauzkoak direla hiatuetako honako bilakabide hauek, baina sartaldean ez (*apud* Zuazo 2014: 184):

- /e+a, e, o/ > *i* (*luzia*/*luzie* ‘luzea’)
- /o + a, e, o/ > *u* (*berua*/*berue* ‘beroa’)
- /i+a, e, o/ tartean *-x-* edo *-dx-* epentesiak sartzea (*barrixe*/*barridxe* ‘berria’)

Bigarrena arrotza da sartaldean; epentesia Mungialdean eta Nerbioi ibarrean ere tartekatzen da; eta lehenengoa Txorierriko ekialdean, Larrabetzun eta Lezaman ere gertatzen da. Bestalde, “Gernika inguruetan” dio Zuazok, baina ez du zehaztasun gehiagorik ematen. Busturialdean aldakortasuna dago aldagai honetan, herri guztietan *e* > *i* egiten baita, baina ez *o* > *u*. Beraz, (oa) aldagaiaren bi aldaera izango ditugu aztergai atal honetan: (oa) aldaera eta (ue) aldaera.

(oa) aldagaia aztertzeko euskal berbak zein maileguak erabili ditugu: *astoa*, *zuloa*, *gogoa*, *besiñoa*/*auzokoa*, *karniseroa* ‘harakina’, *kanarioa*, *boligrafoa*, *radixoa* ‘irratia’, *pianoa*, *ekolojiko*, *famosoa* ‘ospetsua’.

3.5.2.4. (i_a) aldagaia

Gauza jakina da euskalki askotan *a* bokalaren aurretik *i* eta *u* bokalak nahiz *Vj* eta *Vw* bokal-erdiak daudenean, *a* > *e*-ra ixtea eragiten dutela, baita bi bokalen artean kontsonantea dagoenean ere. Izan ere, bokal altuen ostean gertatzen den arau hau, orokorra da eta, beraz, mugatzaileari eragiteaz gain, gramatika eta lexikoaren beste atal batzuei ere eragiten die. Hortaz, asimilazio hau honako testuinguruan gauzatzen da⁵:

- 1) Hitz-oina + mugatzailea: *arrautzie, etxie, errekie, farolie, kokakolie, bariantie, zerue, piñue...*
- 2) -iC/-uC + mugatzaile singularra: *ogixe, mendixe, txikixe, politxe, guzurre, berdure...*
- 3) -iC/-uC + mugatzaile plurala: *txakurrek, mendixek, mutillek, berdurek...*
- 4) Morfema mugetatik kanpo:
 - a. Izena + *bat*: *lagun bet, eperdi bet...*⁶
 - b. Partizipioa + *izan* aditz laguntzailea klitikoa denean: *sartu de, etorri zen...*
 - c. *izaneko* orainaldiko 1. eta 3. pertsona singularrean: *gazti nez, Arratzu de...*⁷
 - d. -*gaz* soziatibo singularrean: *nigex, zugez...*
 - e. Silaba bakarreko atzizkileekin: *korrike, txistuke...*
 - f. Izena + *-tzat* prolatiboarekin: *laguntzet, ezaguntzet...*
 - g. Partizipioa + *-ta* modalarekin: *sartunde/ sartute, ikusitxe...*
 - h. Aditz laguntzailea + *-la*: *ikusi dogule, ez dozule esango, apurtuko yatzule...*
 - g. Aditz laguntzailea + *-na*: *esan dostazune, jeusi yatzune...*
 - i. *-ra* adlatiboarekin⁸: *mendire, eskure, Forure, lekuten...*⁹
 - j. *eta* juntagailua: *bi tte huts, etorri tte jun ein da segixen, apurtu te alde...*

Hala ere, asimilazio arau honek baditu bere mugak, ez baita atzizki guztiekin gertatzen. Honela dio Hualdek (1991: 56):

⁵ Kontuan izan behar da ez dela eremu geografiko guztian berdin gauzatzen.

⁶ Busturialdean ez da sartaldeko hizkeretan bezain indartsua; izan ere, Arratiako hizkeretan “batzuk”-ekin ere gauzatzen da, baina Busturialdean ez (*gozoki batzuk (**gozoki betzuk), katu batzukaz (**katu betzukez), etab.*)

⁷ *Izaneko* aditz laguntzaileak silaba bat baino gehiago baditu, Busturialdeko hizkeretan ez da gauzatzen, ez baitute talde foniko bera osatzen (*jausi nazenien, apurtu dala, jun gara...*)

⁸ Busturialdean ez da sartaldeko hizkeretan bezain indartsua; izan ere, silaba batetik gorako deklinabide atzizkietan ez da gauzatzen, ez baitute talde foniko bera osatzen (*-gana, -gandik, -ganantza, -ganaino, -tasun, -garren, -tar...*).

⁹ Sartaldeko hizkeretan emankorragoa da *nigex, zugez* gisakoak erabiltzen baitira; Busturialdean ez.

In Gernika the derivational suffixes that do not undergo the rule seem to be rather more numerous than those which do undergo it [...]:

(70)	/-(t)ār/	[ondāru-tār-a] [gērnik-ār-a] [bāsēri-cār-a]	‘Ondarroan’ ‘Gernikan’ ‘farmer’
	/-lai/	[t̄šīstu-lai]	‘flautist’
	/-tāsun/	[anāi-cāsun] [ār̄yi-cāsun]	‘brotherhood’ ‘clarity’
	/-gār̄i/	[ār̄yi-gār̄i]	‘surprising’
	/-gāren/	[bi-yāren]	‘second’

Asimilazio hau ez da Bizkaian bakarrik gauzatzen. Esate baterako, Hualde eta Elordietak ezaugarri hau aipatzen dute Baztango euskalkian eta honela diote:

Bokalen asimilazio arau batez /a/ bokal baxua [e] bihurtzen da bere aurretik [+goiko] bokal bat baldin badago hitz berean (N’Diaye 1970, Salaburu 1983, Hualde 1989b, 1991, Bonet 1993). Arau hau eman daiteke bai hitz soiletan, hau da, hitz eratorrigabekoetan, bai hitz eratorrietan eta inflesionatuetan. Beste eremu batzuetan, ordea, araua ez da ezartzen. Zenbait eratorpen atzizkirekin, hitz konposatuetan, edo hitz biren artean ez dugu bokalen asimilaziorik aurkitzen (*apud* Hualde eta Elordietak 1993: 362).

Mitxelenak (1977 [1961]: 63-64) ere aipatzen du ezaugarri hau:

[...] en zonas muy distintas del país se observa el cierre de *a* en *e* detrás de *i* y *u* en la sílaba anterior: más precisamente, la pronunciación de /a/ se ha ido apartando de la normal hasta llegar a ser una variante de /e/ (vid. *Supra*, 1.1, nota 1). Así ya en VJ, texto vizcaíno del siglo XVII, *ayte*, *Hostie*, *ogúie*, *berdaderue*, *dogune*, *deucegule* (<*deutsagula*), *laune*, *Gorpuce*, *libredu* ‘librado’, *hícen* ‘ser’, *Divine*, *Caridedea*, *bulerrera* ‘al pecho’, *Virgine*, *horduen*, *zuges*, *bíten*, *Christiñeu*, *iteundu*, *ceimbet*, *au de* ‘esto es’, etc. Naturalmente el cierre se produce solamente cuando ambas vocales se encuentran en sílabas estrechamente unidas en la pronunciación.

Mitxelenak aipatzen duenez, *VJ*¹⁰-en jada agertzen da islatuta, beraz, duela mende batzuetako bilakabidea dela esan dezakegu. Bestalde, Busturialdeko XVIII. mendeko testuetan oraindik ez dago bilakabide honen arrastorik, esate baterako, Gernikako Gandararen testuetan *-ia* (*eguzquia*, *gustia*, *egúia*) lekukotzen baita soilik eta Bermeoko De la Quadraren testuetan ere *-ia* bakarrik dugu (*berbia*, *catoliquia*) (Ensunza 2013: 8). Kontuan izan behar da idatzizko testuek dakarten arriskua; izan ere, badakigu hauetan

¹⁰ *VJ*: *Viva Jesus*.

sarritan saihestu egiten zirela herriko hizkerako fonetismoak. Hala ere, uste dugu, kasu hauetan, herriko hizkera islatzen saiatu zirela idazleak eta nahiko fidagarriak direla haietatik atera daitezkeen ondorioak.

T. Navarro Tomás-ek (1923) Gernikako euskararen inguruan egindako oharrek erakusten dutenez, euskarazko *i*, *e*, *o*, *u* bokalak espainolak baino malguago eta irekiago ahoskatzen dira eta euskarazko *a* espainolezkoa baino palatalagoa da normalean. Horrek dakarrena da sistema bokalikoa antzekoa izan arren hizkuntza bietan, fonemen arteko banaketa (*a*, *e*, *e*, *i*, *o* y *u*) murriztagoa dela euskaraz.

Zuazok (2014: 182) mendebaldeko euskalkiaren barruko azpieuskalkietako bereizgarriak zerrendatzean azaltzen duenez:

i eta *u* bokalek eraginda, *a*>*e* egitea indartsuagoa da sartaldean. Han gertatzen den zenbait ingurune ezinezkoak dira sortalde gehienez; esate baterako: *geuges* (<*geugaz*) ‘geurekin’; *laguntzet* ‘laguntzat’; *arrikeda* ‘harrikada’; *lagun bet* ‘lagun bat’; *leku betzuten* ‘leku batzuetan’; *bixi nes* (<*bizi nas*) ‘bizi naiz’; *sartu de* ‘sartu da’.

Beraz, (ia) aldagaiak sartaldeko azpieuskalkia eta sortaldeko azpieuskalkia bereizten ditu. Busturialdeko hizkeretan, oster, aldagai honen bi aldaerak entzun daitezke: (i_a) aldaera eta (i_e) aldaera.

Hauek dira (i_a) aldagaia aztertzeko erabili diren galderetako batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- Para mañana se me va a olvidar lo que me has dicho
Bixarko astu ingo dast esastazune (Mundaka gaztea)
Bixerko astu eingo yat esastazuna (Gernika-Lumo gaztea)
Bixerko astu eingo xat esan dostazune (Gernika-Lumo heldua)
- Mi hija ha venido con flores
Nire alabie lora batzukas etorri de (Sukarrieta heldua)
Nire alabie lorakin etorri da (Arratzu gaztea)
- Tu hijo ha entrado cantando a casa
Sure semie kantetan sartun de etzera (Busturia heldua)
Sure semie kantaten sartun da etzien (Murrueta heldua)
- Tus hijos traen un amigo a comer hoy
Zure umiék lagun bet dakar dzaten etzera (Bermeo gaztea)
Zure seme-alabak lagun bat dakarre geur bazkaltzen (Errigoiti gaztea)

-¿Ha venido tu amigo?

Zure lagune etorri de? (Ea heldua)

Etorri da zure lagune? (Murueta gaztea)

-Hay que hacer mucha fuerza para abrir la puerta

Iñyer asko ein bi de atie iditteko (Morga heldua)

Iñyer handixe ein bi da atie zabaltzeko (Mendata gaztea)

Iñdzar asko ein bi da atie zabaltzeko (Ea gaztea)

3.5.2.5. (au) aldagaia

Euskalki batzuetan *-au-* diptongoa *-eu-* egiten da: *eurre* ‘aurre’; *geur* ‘gaur’, *geuse* ‘gauza’; *euza* ‘auzo’, *jeusi* ‘jausi [erori]’, *euntz* ‘ahuntz’. Zuazok dioenez (2014: 166), “Bizkaiko alderdi zabalean” egiten da hau eta “arauzkoa da *-au* duten partizipioetan: *dedikeu* ‘dedikatu’; *deklareu* ‘deklaratu’; *pareu* ‘paratu [jarri]’; *separeu* ‘separatu’”. Eta ostean gehitzen du: “badirudi bilakaera horixe gertatu dela *eduki*-ren adizkietan, baina hauetan beste urrats bat egin da: *-au-> -eu-> -e*. Ia Bizkai osora zabaldu dira *dekot*, *dekok/ dekon*, *deko*, *dekogu*, *dekozu*, *dekozue*, *dekie* adizkiak.” Bigarren parte hau 3.5.2.6. (-atu) aldagaia§ atalean aztertuko dugu zehazkiago.

Mitxelenak honako hau dio (1977 [1961]: 87. or.-ko oin-oharra):

Según Navarro Tomás, en el vizc. de Guernica la vocal del diptongo *au* puede tener timbre palatal, aproximándose a *e* abierta, o velar, cercano a *o*. He observado lo mismo en un informador de Navárniz, población cercana a Guernica.

Beraz, Mitxelenak eta Navarro Tomás-ek Gernika-Lumo eta Nabarnizen lekukotzen dute (eu) aldaera. Guk, ordea, badakigu eremu zabalagoa hartzen duela aldaera honek.

Bestalde, Mitxelenak **edun* aditzeko *du> dau> deu* azaltzeko hauxe dio:

Las formas de presente del auxiliar transitivo guipuzcoano (*det*, *degu*, etc., vid. Supra, 4.3 y .6) y sobre todo el guip. ant. (Pampl. 1610, O. de Arin, Larramendi) y mer. *deu* ‘lo ha’ acusan *au>eu*, tal vez por el carácter enclítico del auxiliar (1977 [1961]: 102).

Busturialdean ere desberdintasuna dago herri batetik bestera, batzuetan (au) aldaera baitugu eta besteetan (eu) aldaera. Alternantzia hori aztertzeko erabili ditugun berbak Zuazoren (2014: 166) zerrendatik hartu ditugu: *gauza*, *aurreregi*, *gaur*, *jausi*, *auzokoa*, *ahuntza*...

(au) aldagaiaren hedadurari dagokionez, Gamindek honako mapa hau ematen du:

au>eu	Bedia, Galdakao, Igorre, Lemoa, Ajangiz, Arteaga, Bermeo, Busturia, Ea, Ereño, Errigoiti, Forua, Gernika, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Izurtza, Zomotza, Begoña, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Derio, Larrabetzu, Lezama, Zamudio	
au=	Artea, Dima, Ubide, Zeanuri, Zeberio, Elantxobe, Mundaka, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Buja, Etxebarri, Orozko, Ugao, Zaratamo, Zollo, Amoroto, Aulesti, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Erandio, Leioa, Loiu, Sondika, Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gorniz, Jatabe, Laukiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz	
biak	Iurreta, Mungia	

9. Mapa: “au” diptongoa eta beronen aldaketen eredu (Gaminde 2007: 30)

9. mapan ikus daitekeenez, Busturialdea osatzen duten herrietako bik (au) aldaera soilik darabilte (horiz): Elantxobe eta Mundakak. Busturialdeko gainontzeko herrietan (eu) aldaera jaso du Gamindek (berdez), baina gure ustez aldakortasun handiagoa dago aztergai dugun eremuan.

3.5.2.6. (-atu) aldagaia

Gaztelaniaz *-ar* amaiera daukaten aditzak mailegatzera, mendebaleko hizkeretan era desberdinetara egiten da amaiera: *-au* (*kantau, gozau, aparkau*), *-eu* (*kanteu, gozeu, aparkeu*), *-a* (*kanta, goza, aparke*) eta *-e* (*kante, goze, aparke*).


Zuazok azaltzen duenez (2014: 172), “Gaztelaniazko *-ado* eta *-idu* [sic] partizipioak *-au* (> *-a*) eta *-idu* bilakatu dira: *aluzinau/alizina* ‘aluzinatu’; *entretenu* ‘entretenu’”. Busturialdeko hizkera guztietan, *-idu* egiten dira gaztelaniazko *-ido* partizipioak, baina *-ado* partizipioarentzat, oster, *-au*, *-a*, *-eu* eta *-e* aldaerak ditugu. Horrez gain, bilakaera hau *edun* aditz laguntzailearekin ere gertatzen da Busturialdeko hizkeretan, baina hori hurrengo atalean (3.5.2.7. (dau) aldagaia§) aztertuko dugu.

Aurreko atalean aipatu dugu (3.5.2.5. (au) aldagaia§) Zuazok (2014: 166) *-au*-diphtongoa *-eu*-egiteko joera azaltzen duenean honakoa dioela: “[a]rauzkoa da *-au* duten partizipioetan: *dedikeu* ‘dedikatu’; *deklareu* ‘deklaratu’; *pareu* ‘paratu [jarri]’; *separeu* ‘separatu’.”

Iglesias-ek (2014) honako hau dio:

Bilakaera hau oso garrantzitsua da Arratian bertoko hizkerak bereizteko. Igorren [ew] ahoskatzeko joera da nagusi, baina, hala eta guztiz ere, hiztun batzuek [aw] ahoskatzen dute.

Ostean, Arratiako *-au-* eta *-eu-* diptongoen distribuzioa erakusten duen mapa ematen du (10. mapa):



Busturialdean ere desberdintasuna dago herri batetik bestera, batzuetan *au* diptongoa baitugu (*kantau*) eta besteetan *eu* (*kanteu*). Gainera, *-au* egiten den herri batzuetan *-eu* ere egiten du pertsona berak (dela erregistroatik, dela prestigioatik); beraz, ezin esan daiteke erabat arauzkoa denik. Beste alde batetik, urrats bat gehiago gertatu da hizkera hauetan eta diptongoa monoptongatu egin da. Hori dela eta Busturialdean (*-atu*) aldagaiaren 4 aldaera erabiltzen dira: (*au*) aldaera, (*a*) aldaera, (*eu*) aldaera eta (*e*) aldaera.

Gamindek dioenez (2007: 141), *-eu* amaiera erabiltzen den lekuetan, aditz laguntzaileen aurrean diptongoa monoptongatzen duen arau bat dago; horregatik, *akabeu*, *akordeu*, *gozeu* gisakoak ditugu, baina gero *akabe dot*, *akorde nas*, *gozeu dot* gisakoak herri berean. Ondoren, hiperzuzenketaz, “gordeu” eta “beteu” gisakoak sortu dira eremu horietan; hau da, *akabe dot* > *akabeu bada*, *gorde dot* > *gordeu* izango da. Esan behar da, Gamindek egiten duen arauaren deskribapena ez dela guztiz betetzen; izan ere, *akabe dot*, *akorde nas*, *goze dot* esaten duten askok *-e* amaiera erabiltzen dute

(*akabe, akorde, goze*) ostean aditz laguntzailerik gabe. Izan daiteke pauso bat aurrera egin dutela hiztunek eta berrinterpretazioz *akabe dot* bada, *akabe* interpretatu dutela.

Honako mapa hau ematen du Gamindek aldagai honen distribuzioa erakusteko:

au	Artea, Dima, Ubide, Zeanuri, Zeberio, Ereño, Nabarniz, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Arakaldo, Arrigorriaga, Basauri, Buja, Orozko, Ugao, Zaratamo, Zollo, Amoroto, Aulesti, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Markina, Mendexa, Munitibar, Sondika	
au/ou	Arrankudiaga	
au/eu	Iurreta, Etxebarri	
eu	Bedia, Galdakao, Igorre, Lemoa, Ajangiz, Errigoiti, Forua, Gernika, Kortezubi, Mendata, Muxika, Zornotza, Begoña, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Derio, Larrabetzu, Lezama, Zamudio	
a	Arteaga, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ibarangelu, Mundaka, Lekeitio, Ondarroa, Erandio, Leioa, Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gorniz, Jatabe, Laukiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz	
a/au	Loiu	
a/eu	Murueta	
au/eu/a	Mungia	

11. Mapa: Mailegatze arauen mapa (Gaminde 2007: 140)

11. mapan ikus daitekeenez, Busturialdean banaketa nagusia kostako (laranjaz) eta barruko (berdez) herrien artean dago. Ereño eta Nabarnizek, ostera, sortaldeko herriekin egiten dute bat (horiz). Gure ikerketan aldaera honen aldakortasun diatopikoa ikusteaz gain, belaunaldien artean gertatutako aldaketari ere erreparatuko diogu, egoera konplexuagoa dela uste baitugu.

Zuazok dioen bezala, badirudi *eduki*-ren adizkietan bilakaera bera gertatu dela: *-au-* > *-eu-* > *-e*. Ondorioz, “ia Bizkai osora zabaldu dira *dekot, dekok/ dekon, deko, dekoğu, dekozu, dekozue, dekie* adizkiak”. Beharbada zuzenagoa litzateke proposatzea *-au-* diptongoa *-eu-* bilakatu dela zenbait hizkeratan eta, gerora, denborarekin *-au-* zein *-eu-* monoptongatu egin dela *-a* edo *-e*-ra, lekuan lekukoa. Gainera, aditz-partizipioa *-au-* diptongoa egiten duten hizkera batzuetan, *eduki*-ren adizkietan *-a* egiten dute, beraz, *dakot, dako, daku, dakozu, dakozuie* gisakoak ere badira Busturialdeko hizkeretan.

3.5.2.7. (dau) aldagaia

Aurreko ataletan esan dugunez (3.5.2.6. (-atu) aldagaia§), *-au* diptongoa *-eu* bilakatzen da zenbait hizkeratan. Bilakaera hau *edun* aditz laguntzailearekin ere gertatzen da. Hori dela eta, Busturialdeko hizkeretan (dau) aldagaiak bi aldaera ditu:

(dau) aldaera eta (deu) aldaera. Busturialdeko hizkeretan bilakabide honek distribuzio desberdina duenez, aurreko bilakabidetik bereizita aztertzea erabaki da.

Gamindek bere 2007ko lanean ez du (dau) aldagaia kontuan hartzen eta, beraz, ezin dezakegu bere orduko daturik eman. Hala ere, badu beste lan bat 1984-1985 artean argitaratua (Gaminde 1984a, 1984b, 1985) eta, bertan, Bizkaiko hainbat herritako ezaugarrien zerrendak eta mapak ematen ditu. Horien arabera, Zuazok sortaldeko azpieuskalkian sailkatutako herrietan *dau* aldaera erabiltzen da eta sartaldekoetan *deu*. Beraz, ezaugarri honek sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien arteko banaketa egiteko balio du.

3.5.2.8. (-tzen) aldagaia

Beste alde batetik, baina aurreko bilakabideekin lotuta, aspektu ez-burutua egiteko *-au/-eu* amaiera daukaten aditzekin *-etan* atzizkia erabiltzen da Busturialdeko hizkeretan: *kanteu-kantetan*, *akabeu-akabetan*, *flipeu-flipetan*. Horrez gain, Busturialdeko zenbait hizkeratan *-ten* atzizkia erabiltzen da: *kantaten*, *akabaten*, *flipaten*, etab. Oro har, esan daiteke *-au/-a* amaiera egiten duten hizkeretan *-ten* erabiltzen dela gehienbat eta *-eu/-e* amaiera egiten dutenetan, ostera, *-ten* edo *-teten*. Hori dela eta, (-tzen) aldagaiak hiru aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (-taten) aldaera, (-teten) aldaera eta (-tetan) aldaera.

Gamindek honako mapa honetan erakusten du *-etan* alomorfoaren hedadura:

-ETAN	<p>Artea, Bedia, Dima, Galdakao, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri, Zeberio, Ajangiz, Ereño, Errigoiti, Forua, Gernika, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Zomotza, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Orozko, Ugao, Zaratamo, Zollo, Amoroto, Aulesti, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Markina, Mendexa, Munitibar, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Mungia, Derio, Larrabetzu, Lezama, Loitu, Sondika, Zamudio</p>	
<p>12. Mapa: -etan alomorfoen hedadura (Gaminde 2007: 142)</p>		

12. mapan ikus daitekeenez, Busturialdearen barruan desberdintasun nagusia kostako eta barruko herrien artean dago. Aitzitik, ez dakigu *-etan* egiten ez den herrietan (horiz) zein forma daukagun, ez baita zehazten. Gainera, uste dugu aldagai honek aldakortasun handiagoa daukala eremu honetan; izan ere, herri guztietan ez dago forma


bat eta bakarra, hirurak baizik. Hori dela eta, interesgarri iritzi diogu eremu honetan bilakabide honen distribuzio diatopiko eta soziala aztertzeari.

3.5.2.9. (edun) aldagaia

Iraganaldiko esaldietan subjektua "nik", "hark" eta "haiek, eurek" direnean **edun* aditzaren NOR-NORK sailean hainbat forma aurki ditzakegu Busturialdeko hizkeretan: batetik, *neban/naben,(e)ban, dabe*; eta bestetik, *neuen/ nauen, euen, deue*. Beraz, (edun) aldagaiak bi aldaera izan ditzake: (+b) aldaera eta (-b) aldaera. Aldagai honen azterketa, beraz, Mitxelenak berak aspaldi azaldu zuen (1977 [1961]: 90) *u* bokalaren kontsonantizazioan datza: “Hay casos aislados de consonantización de *u* segundo elemento de diptongo ante consonante continua. Se registra al parecer con máxima intensidad en alto-nav. [...]”.

Gamindek 2007ko lanean ez du aldagai hau aztertzen, baina 1984b-ko lanean, bizkaierazko aditzak aztertzen ditu eta ematen dituen zerrendetan ikus daiteke *u* bokalaren kontsonantizazioa zein herritan gertatzen den eta zeinetan ez (301-302; 355-358. or). Honen arabera, Zuazok sortaldeko azpieuskalkiaren barruan sailkatutako hizkeren ezaugarria da *u* bokalaren kontsonantizazioa eta, beraz, sartaldeko eta sortaldeko hizkerak bereizten ditu ezaugarri honek.

Bestalde, Busturialdeko hizkeretan **edun* aditzaren subjektua "hark" denean, herri gehienetan "0" da agertzen den subjektuaren morfema: "*eban, euen*". Leku batzuetan, ostera, "s" kontsonantea agertzen zaigu (*saben, seuen*). Hona hemen Gamindek eskaintzen duen mapa:



13. mapan ikusten denaren arabera, Busturialdeko herrietan batasun handia dago, herri gehienetan "0" baita erabiltzen den subjektuaren morfema (horiz); Bermeon, ostera, "s" morfemadun formak bakarrik lekukotu ditu Gamindek (marroiz) eta Mundakan "s" morfema "0" morfemarekin batera (berdez) erabiltzen da. Dena dela, uste dugu "s" morfema hedatuago dagoela Busturialdeko hizkeretan.

Beraz, aldagai honekin **edun* aditzeko *u* bokalaren kontsonantizazioaz gain, "hark" subjektua denean (*edun*) aldagaiaren (+z) aldaera eta (-z) aldaera erabiltzen den ere aztertuko ditugu.

Hauek dira (*edun*) aldagaia aztertzeko erabili diren galderetako batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- Mis amigos han comido un bocadillo

*Nire lagunek bokadillo bat dzan **dabe*** (Mundaka heldua)

*Nire lagunek bokadiyo bat jan **dauie*** (Sukarrieta gaztea)

*Nire lagunek geur bokadillu jan **deue*** (Gauegiz-Arteaga heldua)

*Nire lagunek bokadilloa yan **deurie*** (Morga gaztea)

- Ellos en Navidades comen anchoas

*Eurek Gabonatan antxoak dzaten **dauie*** (Mundaka gaztea)

*Eurek Gabonetan antxoak jaten **dabes*** (Nabarniz gaztea)

- Yo cantaba mucho de pequeña

*Nik txikitxen asko kantate **neban*** (Sukarrieta heldua)

*Nik txikitxen asko kantate **naben*** (Elantxobe gaztea)

*Nik asko kanteta **neuen** umetan* (Morga gaztea)

-Jon me ha dicho que ha sido Mikel el que ha perdido el balón

*Yonek esan doste Mikel ixen dala baloie galdu **deuena*** (Gernika-Lumo heldua)

*Yonek esan dost Mikel ixen dala baloie galdu **dauena*** (Mundaka heldua)

*Yonek esan deu base, Mikel ixen dala baloie galdu **dabena*** (Nabarniz heldua)

- Antes Andoni comía muchas nueces

*Len Andonik intxur asko jate **sabesen*** (Muxika gaztea)

*Len Andonik intxaur larrei dzaten **sausen*** (Bermeo gaztea)

*Len Andonik intxur asko yate **seusen*** (Morga gaztea)

*Len Andonik intxur asko jate **basen*** (Kortezubi gaztea)

-Ane cosió el agujero de la camisa

*Anek arkondarako sulue josi **ban*** (Kortezubi heldua)

*Anek alkondarako suloa yosi **seuen*** (Morga gaztea)

*Anek kamiseko sulue dzosi **sauen*** (Bermeo gaztea)

3.5.2.10. (j-) aldagaia

(j-) aldagaiari dagokionez, euskal hitzen hasieran agertzen den *j*- soinuaren aldaera desberdinak izango ditugu aztergai.

Aspaldi azaldu zuen Mitxelenak berak ere (1977 [1961]: 43):

En los continuadores modernos de *j*- (vid. Cap. 9), que se siguen representando por *j* a pesar de las diferentes pronunciaciones, *j* nota la semivocal más o menos fricativa, *ʒ* la fricativa prepalatal sonora (fr. *j*), *dʒ* la africada correspondiente (inglés *j*) y *x* la fricativa velar sorda (cast. *j*).

Hitz hasierako soinu honi dagokionez, Busturialdeko hizkeretan aldakortasun geografikoa badagoela esan daiteke; izan ere, 20 herri hauetan Mitxelenak adierazitako soinu guztiak entzun daitezke; bat han, bestea hemen.

(j-) aldagaia aztertzeko erabili diren berbak honako hauek izan dira: *jan, jaten, jateko, jausi, jausten, josi, jo, joan*. Kasu hauetan, (j-) aldagaiaren zein aldaera erabiltzen den aztertu da: (j) aldaera ([x] frikari belare ahoskabea), (y) aldaera ([j] hurbilkari sabaikari ahostuna), (dj) aldaera ([ʝ] herskari sabaikari ahostuna), (dz) aldaera ([dʒ] afrikatu sabaiaurreko ahostuna) ala (z) aldaera ([ʒ] frikari sabaiaurreko ahostuna). Hala ere, Gamindek (2007: 35) ohartarazten duenez, “"jota" afrikatu ahostun gisa hasierako gunean egiten da, bokalen artean suertatuz gero frikarizatu egiten da”. Beraz, funtsean (dz) eta (z) aldaerak banaketa osagarrian daude: (dz) aldaera hitz hasieran edo eten baten ostean; (z) aldaera bokal ostean. Gauza bera gertatzen da (dj) eta (y) aldaerekin; lehena hitz hasieran, eten ostean edo kontsonante ondoren erabiltzen da eta, bigarrena, bokal artean.

Bestalde, Gamindek honako mapa hau ematen du:

y	Artea, Bedia, Dima, Galdakao, Igorre, Lemoa, Zeanuri, Zeberio, Arakaldo, Arrankudiaga, Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio, Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gorliz, Jatabe, Laukiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz	
dx	Ubide, Bermeo, Ea, Elantxobe, Ibarangelu, Mundaka, Otxandio, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Ugao, Zaratamo, Zollo, Ispaster, Lekeitio, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Mungia (auzo batzuetan)	
j	Ajangiz, Arteaga, Busturia, Ereño, Errigoiti, Forua, Gemika, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Zaldibar, Zornotza (dx auzo batzuetan), Amoroto, Aulesti, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Gizaburuaga, Markina, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Orozko (y ere bai)	

14. Mapa: “j”ren ebakerak aditz partizipioetan (Gaminde 2007: 33)


14. mapan ikus daiteke badagoela desberdintasuna Busturialdeko herrien artean (j-) aldagaiari dagokionez. Kostaldeko hizkerek bat egiten dute ondoko Mungialdea eta Lea-Artibaiko kostaldeko hizkerekin, hauetan *dx-* aldaera erabiltzen baita (berdez). Barrualdeko hizkerek, ostera, Lea-Artibai eta Durangaldearekin egiten dute bat, hauetan *j-* aldaera erabiltzen baita. Hala ere, uste dugu Busturialdeko herrien artean dagoen aldakortasuna konplexuagoa dela eta, horregatik, merezi duela aldagai hau sakonkiago aztertzea.




Aztergai dugun aldagaiari buruz honako hau dio Zuazok (2014: 184):


Hitz hasieran *y-* dago sartaldeko eremu zabalean (*yan* ‘jan’, *yo* ‘jo’) edo *dx-* (*dxan*, *dxo*). Bigarren hori gehienbat itsasbazterreko hizkeretan entzuten da, Bakio eta Lekeitio bitartean. Sortaldean, berriz, [x] ahoskera dago: *jan*, *jo*.

Zuazok aipatzen duen Bakio eta Lekeitio bitarteko itsasbazter hori Busturialdeko kostako herriek osatzen dute, berak esplizituki adierazten ez duen arren. Beraz, Busturialdeko herrien artean, ezaugarri honi dagokionez, banaketa bat dagoela dirudi: batetik, kostaldeko herriak leudeke *dx-* egiten dutenak hitz hasieran; bestetik, barnealdeko hizkerak genituzke, [x] egiten dutenak sartaldeko hizkerekin bat eginez. Horrez gain, badaude *y-* egiten duten hizkerak ere.

Busturialdeko hizkeretan erabiltzen diren aldaerak identifikatzeko azterketa akustikoa egin dugu eta espektrogramei erreparatu diegu. Afrikatuen ebakieran momentu bi daude: hersketarena (etenaldia) eta frikzioarena (zarata). Frikarietan, ostera, ez da hersketarik gertatzen eta, beraz, frikzioa soilik agertzen da espektrograman.








3.5.2.11. (zait) aldagaia

(zait) aldagaiari dagokionez, NOR-NORI saileko adizkien hasieran agertzen den soinuaren aldaera desberdinak izango ditugu aztergai. Izan ere, Zuazok azaldu bezala, gauza jakina da “mendebaleko euskalkian bilakaera fonetiko berezia egon dela NOR-NORI saileko adizkietan [‘zait’ gisakoak]; *y-* / *dx-* / *j-* aurkitzen ditugu mendebaletik ekialdera goazela; ez *z-* orokorra. Hona hemen zabalduen dauden adizkiak: *yat* ‘zait’, *yak* ‘zaik/zain’, *yako* ‘zaio’, *yaku* ‘zaigu’, *yatzu* ‘zaizu’, *yatzue* ‘zaizue’, *yake* ‘zaie’. Ipar-mendebaleko hizkeretan, berriz, *d-* nagusitu da azkenaldian” (Zuazo 2008: 77-78; 2014: 172).


Bizkaierazko gramatika eta deskribapen guztietan aipatzen da euskalki honek NOR-NORI sailean “j” duela hasieran, gainontzeko euskalkietan /z/ dena. Baina deskribapen gehienak hor geratzen dira, “j” horren nortasun fonetikoari garrantzia gehiagorik eman gabe. Gamindek berak (1984a, 1984b, 1985, 2007), (zait) aldagaiak bizkaieran duen eremu geografikoa eta herri bakoitzean duen izaera fonetikoa zehazten ditu, baina ez du kontuan hartzen herri bakoitzean desberdintasunik egon daitekeenik gizarte-faktoreen arabera, adibidez, adinaren araberako desberdintasuna. Honako hau da Gamindek eskaintzen duen mapa:

d	Getxo, Berango, Sopela (y), Barrika (y), Laukiz, Gatika, Urduliz, Plentzia, Gorliz, Lemoiz, Jatabe, Mungia (y), Gamiz-Fika, Mañaka, Kortezubi, Arteaga (dx), Leioa (y), Erandio, Loiu (y), Derio, Zamudio, Lezama, Elantxobe, Buja (dx)	
y	Sopela, Barrika, Leioa, Loiu, Sondika, Arrankudiaga, Arakaldo, Orozko, Galdakao, Zeberio, Larrabetzu, Bedia, Lemoa, Igorre, Artea, Dima, Zeanuri	
dx	Basauri, Arrigorriaga, Zaratamo, Ugao, Zollo, Begoña, Buja, Fruiz, Arrieta, Morga, Errigoiti, Bakio, Bermeo, Mundaka, Busturia, Murueta, Arteaga, Nabarniz, Ereño, Ibarrangelu, Ea, Ispaster, Aulesti, Lekeitio, Mendexa, Amoroto, Gizaburu, Munitibar, Mendata, Zornotza, Gernika, Forua, Ajangiz, Muxika, Abadiño, Izurtza, Mañaria, Atxondo, Berriz, Elorrio (x), Ubide, Otxandio, Zaldibar (0)	
j	Markina, Etxebarria, Bolibar, Berriatua, Mallabia, Ermua	
g	Ondarroa	
x	Elorrio	
0	Zaldibar	


15. Mapa: nor-nori adizkien hasiera (Gaminde 2007: 156)

15. mapan ikus daitekeenez, Busturialdeko hizkeren artean batasun nabarmena dago eta ondoko sortaldeko hizkerekin eta Durangaldearekin egiten dute bat, hauetan *dx*- aldaera erabiltzen baita (lilaz). Gaminderen mapa honen arabera, ostera, *d*- aldaera erabiltzen da (berdez) Elantxobe, Kortezubi eta Gauegiz-Arteagan, azken honetan, *dx*- aldaerarekin batera bada ere (marroiz). Hala ere, aldagai honen aldakortasuna handiagoa delakoan gaude, adinari begiratu gero, behintzat. Esate baterako, Gernika-Lumon egindako aurreko ikerketa batek erakutsi zuen (Ensunza 2012: 232-233) herri hartan bertan denek ez dutela “j” berdin ebakitzen. Gernika-Lumon aldagai honek, oro har, lau aldaera ditu: (z) aldaera ([ʒ] frikari sabaiaurreko ahostuna), (dz) aldaera ([d͡ʒ] afrikatu sabaiaurreko ahostuna), (y) aldaera ([j] frikari sabaikari ahostuna) eta (d) aldaera ([d] herskari horzkari ahostuna). Bestalde (y) eta (d) aldaerak erabiltzen dituzten hiztunek, hasierako kontsonante hori ez dute beti ahoskatzen ([ate] ‘zait’, [ako] ‘zaio’, etab.). Beraz, (0) aldaera ere badugu ([∅] kontsonanterik ez ahoskatzea). Pentsatzekoa den bezala, Busturialdeko 20 herrietan ere Gernika-Lumon agertzen diren aldaera guztiak entzun daitezke; bat hemen, bestea han.


(zait) aldagaiari dagokionez ere, Busturialdeko hizkeretan erabiltzen diren aldaerak identifikatzeko azterketa akustikoa egin dugu eta espektrogramei erreparatu diegu. Esan bezala, afrikatuen ebakeran momentu bi daude: hersketarena (etenaldia) eta frikzioarena (zarata). Frikarietan, ostera, ez da hersketarik gertatzen eta, beraz, frikzioa soilik agertzen da espektrograman.





9. Espektrograma: (zait) aldagaiaren (dz) aldaera, “zaie” berba.



10. Espektrograma: (zait) aldagaiaren (z) aldaera, “zait” berba.



11. Espektrograma: (zait) aldagaiaren (y) aldaera, “zait” berba.



Beraz, (zait) aldagaiari dagokionez, bost aldaera hauetatik zein erabiltzen den izango dugu aztergai: (z) aldaera, (dz) aldaera, (y) aldaera, (d) aldaera eta (0) aldaera.

3.5.2.12. (it) aldagaia

Gauza jakina da hizkera batzuetan [i] bokalak edo haren kide [j] irristariak ondoan dituen kontsonanteak palataliza ditzakeela. (it) aldagaiaren kasuan, aurreko "i" horrek ostean "t" kontsonantea duenean gauzatzen diren aldaerak aztertuko ditugu; hau da, (2) bilakabide fonetikoaren emaitzaren ondorio gisa (it) aldagaiak izan ditzakeen aldaera posibleak Busturialdeko hizkeretan:

$$(2) i / Vj+ t \rightarrow itt / V(j)tt$$

(it) aldagaia aztertzeko Busturialdeko hizkera arruntean erabiltzen diren berbak aukeratu ditugu, zahar zein gazteentzat arrotzak ez direnak: *iturri, ito, aitita, bisitatzen, txikitan, sarritan, edegiteko, polito, polita* eta *badakit, eztakit*. Horrez gain, kontuan izan dugu aztergai dugun soinuaren testuingurua; hala nola, hitz barruan zein amaieran eta "it" osteko bokalaren nolakotasuna.

Busturialdeko hizkeretan (it) aldagaiaren hainbat aldaera aurki genitzake: (tt) aldaera ([c] herskari sabaikaria), (tx) aldaera ([tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa) eta (tz) aldaera ([tʃ] afrikatu hobikari-lepokaria). Bestalde, gazteen artean palatalizatu gabeko aldaera ere entzun daiteke, (it) aldaera, batez ere hitz amaieran.


Beste alde batetik, hainbat hizkeratako gazteek atzeranzko prozesua egin dute eta hiperzuzenketaz "ittasoa" 'itsasoa', "nitten" 'nintzen' eta "ittel" 'itzel' gisakoak entzun daitezke. Horrek adierazten duenez, hiztun hauek ez dituzte bereizten "tx" eta "tz"; Barrutiak berak ere (1996: 22) aspaldi ohartarazi zuen Bermeon edadeko andrazkoek bakarrik gordetzen zutela ondo "tx" eta "tz" arteko bereizketa. Bestalde, Hualdek (1991: 54) adierazten duenez, [c] soinua ez da fonema, /i/ osteko /t/ baten alofonoa baizik:

In the case of a sound like [c] the lack of phonemic status is clear.
Both dialect-internal and interdialectal considerations indicate that this
sound is patently only an allophone of /t/ after /i/ [...]


(it) aldagaiaren aldaerak bereizteko azterketa akustikoa egin dugu eta espektrogramei erreparatu diegu. [c] kontsonanteak herskari ahoskabeen ezaugarri akustikoak betetzen ditu; hau da, hersketaren ostean leherketa barraren aztarna ikus dezakegu espektrogrametan. Afrikatuetatik bereizten da, azken hauetan hersketaren ostean igurtziera dagoelako eta, beraz, afrikatuaren espektrograman igurtziera honen zarata luzea agertzen da. Herskariak leherketa barra luzea eduki dezakeen arren, beronen iraupenaren eta afrikatuaren zarataren iraupenaren aldean datza euren arteko bereizgarri akustikorik garrantzitsuenak. Herskariaren zarata handituz gero afrikatu bat lortuko litzateke. Hala ere, Gernika-Lumon eta beste hainbat herritan herskariaren zarata handiagoa da eta sarritan zaila egiten da biak bereiztea. Bestalde, (tx) eta (tz) aldagaiek antzeko ezaugarri akustikoak dituzte. Afrikatuak izanik, hersketaren ostean igurtzieraren zarata dator. Zarata hori altuera desberdinetan kontzentratzen da kontsonante bakoitzaren arabera (Gaminde eta lag. 2012: 59):

	tx		tz	
	Gizonezkoa	Andrazkoa	Gizonezkoa	Andrazkoa
Gz¹¹	2888,85	4109,32	3209,2	4015,89
Sd	879,28	868,91	1498,4	953,66
Sk	1,18	0,83	-0,86	-0,038
K	15,60	7,85	0.60	11.18
H_z	2694,92	4029,36	3028,33	3733

2. Taula: [tʂ] eta [tʃ] aldaeren ezaugarri akustikoen batezbestekoak.




14. Espektrograma: (it) aldagaiaren (tt) aldaera, “badakit” berba.




15. Espektrograma: (it) aldagaiaren (tx) aldaera, “badakit” berba.

¹¹ Gz: Grabitate Zentroa; Sd: desbiderapen estandarra (*standard deviation*); Sk: Skewness-a; K: Kurtosia; Hz: Energiaren Kontzentrazioa.



16. Espektrograma: (it) aldagaiaren (tz) aldaera, “badakit” berba.



17. Espektrograma: (it) aldagaiaren (it) aldaera, “badakit” berba.

Palatalizazio mota honen hedaduraz, Gamindek honako mapa hau eskaintzen du:

-pala	Artea, Bedia, Dima, Galdakao, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri, Zeberio, Arakaldo, Arrankudiaga, Orozko, Ugao, Zollo, Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio, Getxo	
+pala	Ajangiz, Errigoiti, Arteaga, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Ibarrangelu, Mundaka, Forua, Gemika, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ea, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Mallabia, Ermua, Zornotza, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Zaratamo, Amoroto, Berriatua, Gizaburuaga, Ispaster, Mendexa, Ondarroa, Lekeitio, Markina, Aulesti, Bolibar, Etxebarria, Munitibar, Fruiz, Gamiz-Fika, Barrika, Berango, Laukiz, Plentzia, Gatika, Jatabe, Urduliz, Gorliz, Lemoiz, Sopela, Arrieta, Meñaka, Mungia, Bakio	

16. Mapa: /t/ren palatalizazioaren hedadura (Gaminde 2007: 38)

16. mapan ikus daitekeenez, Busturialdeko herri guztiak agertzen dira "+pala" (aldaera palatalizatuak) eremuaren barruan (berdez) eta ondoko herrietan ere

palatalizazio hau ezaguna da. Bestalde, Gamindek zehazten duenez, palatalizazio horren emaitzak bi izan daitezke: "tt" eta "tx"; eta honakoa gaineratzen du:

"tx"ren gailentzea herri askotan oraindik ez da guztiz burutu baina aurrera doan prozesua dena ezin uka daiteke, horregatik ondoko taulan [mapan] hainbat lekutan biak erabiltzen direla adierazten dugu. Batetik, herri bereko auzo batzuetan "tx" baino ez delako erabiltzen eta, bestetik, belaunaldi batzuek herrian berori baino erabiltzen ez dutelako:

Palatalizazio honen bi aldaeren hedaduraz, honako mapa hau eskaintzen du Gamindek:

tt	Ajangiz, Errigoiti, Forua, Gernika, Kortezubi, Mendata, Murueta, Muxika, Nabarniz, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Zornotza, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Zaratamo, Aulesti, Bolibar, Etxebarria, Munitibar, Fruiz, Gamiz-Fika, Barrika, Berango, Laukiz, Plentzia	
biak	Ea, Mallabia, Lekeitio, Markina, Arrieta, Meñaka, Mungia, Gatika, Jatabe, Urduliz	
tx	Arteaga, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Ibarrangelu, Mundaka, Ermua, Amoroto, Berriatua, Gizaburuaga, Ispaster, Mendexa, Ondarroa, Bakio, Gorliz, Lemoiz, Sopela	

17. Mapa: /t/ren palatalizazioaren gauzapenak (Gaminde 2007: 39)

17. mapak erakusten duenez, Busturialdeko hizkeren artean desberdintasun nabarmenena kostako eta barruko hizkeren artean dagoena da. Kostaldeko hizkeretan "tx" jaso du Gamindek (berdez) eta barrualdeko hizkeretan, ostera, "tt" (horiz). Ean, berriz, bi aldaerak jaso ditu (laranjaz).

Gainera, Gamindek aipatzen duen moduan, auzoaren arabera desberdin egiten da herri berean, baina Gernika-Lumoko hizkeran, behintzat, adinaren arabera desberdintasuna ere badagoela adierazten du Ensunzak (2012: 218). Horrez gain, Gamindek (2007: 39) zehazten duenez, "tx" kostaldetik barrurantz zabalduz doala esan daiteke. Gaminderen ikerketaz geroztik 8 urte pasatu direnez, merezi du aldagai honen hedadura sakonago aztertzea eta erreparatzea "tx" Busturialdeko gainontzeko hizkeretara hedatu den ala ez.

3.5.2.13. (ind) eta (ild) aldagaiak

3.5.2.12§ atalean azaldu denez, hizkera batzuetan [i] bokalak edo haren kide [j] irristariak ondoan duen "t" kontsonantea palataliza dezake. Gauza bera gertatzen da "d"


kontsonantearekin; izan ere, "ind" edo "ild" taldeetako "n" edo "l" palatalizatzen ditu aurrean duen goiko bokalak eta, honen ondorioz, "d" ere palatalizatu egiten da. Hualdek (1991: 108) honela azaltzen du:

A geographical area where the process of palatalization is particularly pervasive is the northeastern area of Biscay. Characteristically, in this area, /l/, /n/ and /t/ undergo palatalization after vocalic or nonvocalic /i/. The consonant /d/ also palatalizes, but only after /il/ or /in/, a context where /t/ is palatalized as well. Directly after /i/, on the other hand, /d/ is not palatalized.


Gamindek dioenez (2003b: 11-12), [n] sudurkari hobikariak eta [l] albokari hobikariaren arteko antzekotasuna, kontsonante ozen izatean datza. Kontsonante sudurkariak, albokariak eta dardarkariak dira ozenak, baina euskaran, behintzat, lehenengo biak bakarrik palatalizatzen ditu [i] bokalak edo [j] bere kide irristariak. Bestalde, /d/ren palatalizazioa gertatzeko lehenengo eta behin arau baten bidez /l/ eta /n/ palatalizatzen dira eta horren ondorioz /d/ palatalizatzen da:

(3) +horz---> +sabai /+sabai_____


(ind) eta (ild) aldagaiak aztertzeko erabili diren berbak honako hauek izan dira: *ilda, eginda, indar, indaba, beldur, isildu, trankildu, hurbildu, egin dute, ipini ditut, egin du eta ezin dut*. Kasu hauetan, aldaera palatalizatua erabiltzen den ala ez aztertu da; izan ere, aldagai bakoitzerako bi aldaera entzun daitezke Busturialdeko hizkeretan: (ind)/(ild) aldaera ([ind] eta [ild] palatalizatu gabekoak); eta (iñy)/(illy) aldaera ([inʲj]/[ilʲj] zein [inḑ̺]/[ilḑ̺] palatalizatuak). Hauen arteko desberdintasuna ikusteko azterketa akustikoa egin dugu eta espektrogramei erreparatu diegu:




18. Espektrograma: (ind) eta (ild) aldagaiaen (iñy) aldaera, “egin du” berba.




19. Espektrograma: (ind) eta (ild) aldagaiaen (ily) aldaera, “hilda” berba.




20. Espektrograma: (ind) eta (ild) aldagaiaen (iñy) aldaera, “eginda” berba.



21. Espektrograma: (ind) eta (ild) aldagaiaen (ily) aldaera, “ilda” berba.




22. Espektrograma: (ind) eta (ild) aldagaiaen (ind) aldaera, “egin du” berba.



23. Espektrograma: (ind) eta (ild) aldagaiaen (ild) aldaera, “ilda” berba.

Gamindek aldagai honen hedadura aztertzen du eta ondoko mapa hau eskaintzen du:



18. Mapa: /d/ren palatalizazioaren hedadura (Gaminde 2007: 39)

18. mapari begiratuta argi ikusten da Busturialdearekin sartaldetik kontaktuan dauden herrietan ezagunak direla aldaera palatalizatuak (horiz); baita sortaldean ere. Dena dela, Ensunzak (2012: 222-223) erakusten duen bezala, Gernika-Lumon,

behintzat, adinean beherantz egin ahala beherantz doa (iñy)/(illy) aldaeraren erabilera ere. Hori dela eta, Busturialdeko gainerako hizkeretan ere aldakortasunaren zantzuak egon behar direlakoan gaude.

3.5.2.14. (-kin) aldagaia

Gauza ezaguna da mendebaleko euskalkian soziatiboko morfema berezia dagoena: *-gaz* singularrean (*lagunegaz*); *-kaz* (*lagunekaz*) pluralean. Hala ere, singularrean *-gaz* darabilten hizkera askotan, pluralerako *-kin* morfema (*lagunekin*) erabiltzen dute. Beste hizkera batzuetan, ostera, bi morfemak erabiltzen dituzte pluralerako; batzuetan *-kaz*, besteetan *-kin*, inolako desberdintasunik barik (batez ere zubi-hizkeretan gertatzen da honakoa).

Honela dio Zuazok (2014: 184) sartalde eta sortaldeko azpieuskalkiak bereizten dituzten ezaugarri morfologikoak zerrendatzerakoan:

Sortaldeko eremu zabalean *-kin* dago soziatibo pluralean. Deba ibarrean, pluralean ez eze, singularrean ere *-kin* da ohikoena.

Busturialdeko herrietan *-kaz* da soziatibo pluraleko marka nagusia. Hala ere, badaude herriak sortaldeko azpieuskalkiarekin bat egin eta *-kin* marka dutenak pluralean eta, esan bezala, Busturialdea tarteko-hizkera denez, badaude herriak *-kaz* eta *-kin*, biak erabiltzen dituztenak. Hori dela eta, (-kin) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (-kaz) aldaera eta (-kin) aldaera.

Aldagai honi dagokionez, Gamindek honako mapa hau eskaintzen du:

-kaz	Artea, Bedia, Dima, Galdakao, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri, Zeberio, Bermeo, Errigoiti, Forua, Gernika, Morgia, Murueta, Muxika, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Begoña, Buja, Etxebarri, Orozko, Ugao, Zaratamo, Zollo, Arrieta, Bakio, Fika, Fruiz, Meñaka, Mungia, Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio, Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gorliz, Jatabe, Laukiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz	
-kin	Ajangiz, Ereño, Kortezubi, Mendata, Nabarniz, Abadiño, Berriz, Elorrio, Zaldibar, Ermua, Mallabia, Atxondo, Aulesti, Ispaster, Lekeitio, Munitibar, Amoroto, Ondarroa, Bolibar, Markina, Berriatua, Mendexa, Gizaburuaga	
biak	Arteaga, Busturia, Ea, Elantxobe, Forua, Ibarrangelu, Mundaka, Iurreta, Otxandio, Durango, Izurtza, Mañaria, Zornotza	

19. Mapa: -kaz/-kin morfemen hedadura (Gaminde 2007: 113)

19. mapan argi ikusten da Zuazok egiten duen sartalde eta sortaldeko azpieuskalkien banaketa. Busturialdean sortaldearekin kontaktuan dauden herrietan eta

hauen ondokoetan *-kin* morfema erabiltzen dela ikus daiteke (berdez) (Ajangiz, Ereño, Kortezubi, Mendata, Nabarniz) eta sortaldeko hizkeretatik urrunxeago dauden herrietan *-kaz* morfemarekin batera erabiltzen da *-kin* (marroiz) (Gauegiz-Arteaga, Busturia, Ea, Elantxobe, Forua, Ibarangelu, Mundaka). Sartaldeko hizkerekin kontaktuan dauden hizkeretan, ostera, *-kaz* morfema soilik erabiltzen da (horiz).

Gure ikerketan, desberdintasun diatopikoari begiratzeaz gain, belaunaldien artean gertatutako aldaketari ere erreparatuko diogu. Horretarako, hauek izan dira (*-kin*) aldagaia aztertzeke erabili diren galderetako batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- Mi hija ha venido con flores
Lorakiñ etorri de nire alabie (Ibarangelu heldua)
Nire alabi tor da larrosakas etzera (Bermeo heldua)
- Antes se trabajaba mucho con los burros
Antziñe biar asko eitxe san astukin (Ea gaztea)
Len astoakas bier asko eitte san (Mendata heldua)
- Esta tarde he visto a Aitor paseando con sus amigos
Geur arratzaldien ikusi dot Aitor beren lagunekiñ (Ibarangelu heldua)
Geur arratzaldien Aitor ikusi dot beran lagunekas pasietan (Ajangiz heldua)
- Esta tarde no puedo ir al cine con vosotras
Geur arratzaldien esiñyot juan suekiñ siñera (Mendata gaztea)
Geur arratzaldien esiñyot xoan siñera suekas (Gernika-Lumo gaztea)
- Esa ensalada está hecha con verduras ecológicas
Ori ensaladie dau eñye berdura ekolojikukin (Ereño heldua)
Ori ensaladie berdura ekolojikoakas eñye dau (Forua gaztea)

3.5.2.15. (joan-eroan) aldagaia

Atal honetan *joan* eta *eroan* adizkietako formak izango ditugu aztergai; izan ere, Busturialdeko hizkera batzuetan *-i-* bokala tartekatzen baita, baina ez guztietan eta, beraz, aldakortasuna dago hizkeren artean.

Honela dio Zuazok (2014: 182):

Sortaldeko eremu zabalean *-i-* sartzen da *joan* eta *eroan*-en adizkietan:

- *Joan*-enak dira hauek: *noia/noie* ‘noa’; *oia/oie* ‘hoa’, *doia/doie* ‘doa’; *goiaz/goiez* ‘goaz’; *zoiaz/zoiez* ‘zoaz’; *zoiaze/zoieze* ‘zoazte’; *doiaz/doiez* ‘doaz’.
- *Eroan*-enak beste hauek: *daroiat/daroiat* ‘daroat’; *daroiak/daroiak* ‘daroak/daroan’; *daroiia/daroiie* ‘daroa’;

*daroia*gu/*daroie*gu ‘daroagu’; *daroia*zu/*daroie*zu ‘daroazu’;
*daroia*zue/*daroie*zue ‘daroazue’; *daroie* ‘daroate’.

Zabalagoa da *joan*-en adizkien eremua *eroan*-ena baino. Hauxe, berriz, *-i-* agertzearen arrazoia: *a + a* gertatu da adizki horiek *-ana* edo *-ala* morfemekin batu direnean. Hori dela eta, *doa + an* > *doean* (> *doian*, *doien*), *doa + ala* > *doeala* (> *doiala*, *doiela*) izan da emaitza. Horrelako adizkietatik sortu dira *doia/doie* ‘doa’ gisakoak.

Busturialdean, Zuazok aipatzen dituen aldaerez gain (joan-eroan) aldagaiaren (due) aldaera ere entzuten da. Izan daiteke 4.1.2.3§ ataleko *-oa* > *-ue* aldaketaren ondorioz. Beraz, (joan-eroan) aldagaiaren kasuan hiru aldaera izango ditugu aztergai: (doa) aldaera, (doie) aldaera eta (due) aldaera.

Hauk dira (joan-eroan) aldagaia aztertzeko erabili diren galderetako batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- El rio va al mar

Errekie itxosora **doa** (Kortezubi heldua)

Errekie ittasora **doie** (Mendata heldua)

Errekie itxosora **due** (Mundaka heldua)

- El rio va hacia la mar

Errekie itxosorantza **doa** (Ajangiz gaztea)

Errekie itxosorutz **doie** (Nabarniz heldua)

Errekie itxosorantz **due** (Sukarrieta gaztea)

- El rio lleva la porquería hasta el mar

Errekiek sikinkerise **daroa** *itxosora* (Gernika-Lumo gaztea)

Errekiek porkerixe itxosora **daroie** (Nabarniz gaztea)

Errekiek txarrikerixek edo sikinkerixek **darue** *itxosorarte* (Busturia heldua)

Erreixuk **daru** *porkeri gustixe itxosorarte* (Elantxobe heldua)

- ¿A dónde vais tan temprano?

Nora **soase** *aiñ arin?* (Forua gaztea)

Nora **soise** *aiñ goiztik?* (Nabarniz gaztea)

Nora **susie** *ba aiñ gois?* (Sukarrieta heldua)

- Si llevo todos esos platos, se me van a caer

Orrek plater gustixek **badaroatesen**, *jeusi engo yates* (Kortezubi gaztea)

Orrek plater gustixek **badarutes**, *dxeusi ingo dastes* (Elantxobe gaztea)

- Me gusta mucho el jersey que llevas puesto

Asko gustete xat aldien **daroasun** *jersie* (Muxika heldua)

Asko gustaten xat soñien **daroiesun** *jertsie* (Ea gaztea)

Asko gustaten dast **darusun** *jertsie* (Bermeo gaztea)

3.5.2.16. (bi) aldagaia

Gauza jakinda da mendebaleko hizkeretan *bi* zenbatzailea izen sintagmaren ondoren jarri ohi dela: *Harek gixonak **libru bi** ostu deuz* ‘Gizon hark *bi* liburu lapurtu ditu’. Hala ere, euskara estandarraren eraginez gaur egun nagusitzen ari den egitura *bi+izena* da; hau da, *bi* zenbatzailea izen sintagmaren aurretik jartzea. Hala ere, oraindik erabat gauzatu ez den aldaketa da honakoa eta Busturialdeko hizkeretan era desberdinean eutsi diote ezaugarri zaharrari. Hori dela eta, (bi) aldagaiaren aldaera *bi* aurki daitezke: (I+*bi*) aldaera eta (*bi*+I) aldaera).

Hauek dira (bi) aldagaia aztertzeko erabili diren galderetako batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- Aquel hombre ha robado dos libros
*Arek gixonak **libru bi** ostu txus* (Ereño heldua)
*Gison arek **bi liburu** ostu daus* (Ibarrangelu gaztea)
- Andoni le puede traer dos libros a Itziar
*Andonik ekarri leikixos **libro bi** Itziarrerri* (Murueta heldua)
*Andonik **bi liburu** ekarri al tzos Itziarrerri* (Errigoiti gaztea)
- Ayer fui a Bilbo a visitar a mis dos tios
*Atzo Bilbora joa nitten nire **osaba bixek** bisittetan* (Muxika heldua)
*Atzo Bilbora joan nitzen nire **bi osabak** bisitzetan* (Gernika-Lumo gaztea)

3.5.2.17. (hau) aldagaia

3.5.2.16. (bi) aldagaia§ atalean esan dugunez, *izena* eta *bi* zenbatzailearen arteko hurrenkera aldatzen ari da mendebaldeko hizkeretan. Antzeko zerbait gertatu da erakusleekin ere. Gauza jakina da mendebaleko hizkeretan erakusleak izen sintagmaren aurrean jartzeko joera egon dela: *Onék mutillek guzurre esan deu* ‘Mutil honek gezurra esan du’; *Ori liburue loi dau* ‘Liburu hori zikin dago’.

Beste hizkera batzuetan, *erakuslea+izena+erakuslea* egitura erabiltzen da, esate baterako, Ea herriko auzo den Bedaronan: *au liburuau, au alkondariau, onek mutillok, onek neskok, orrek mutillok, orrek plater guztixok, oneri mutillorreri, ori kali ori, ori mutillori, ori ur botillori, ori ensaladiori, ori liburuori, aretxek gixonak...* Nabarnizen, Busturian ere entzun daitezke gisa honetako egiturak, baina ez erakusle guztiekin: *onek mutillok, au liburuau, ori mutillori*; baina *oneri mutilleri, arek gixonak*.

Gamindek (2007: 95) azaltzen duenez, erakuslearen lekua funtzioaren arabera da eta, beraz, erakuslea deiktikoa denean izenaren aurrean eta atzean agertzen da, Bedaronan bezala. Bestalde, leku askotan izenaren aurrean edozein erakusle doan arren, izenaren ostean artikulua baino ez dela erabiltzen dio Gamindek. Gure datuetan, ostera, jaso ditugu artikulua ez diren adibideak ere:

- A este chico le han mentido
Mutill oneri gusurre esan dotzie (Muxika heldua)
Mutill oneri gusurre esan dotzoe (Mundaka heldua)
Mutil oneri gusurre esantze (Nabarniz gaztea)
- Estos chicos están cansados
Mutiy onek kantzeta daus (Muxika gaztea)
Mutiy auek kantsaute dauz (Nabarniz gaztea)
- Aquel hombre ha robado dos libros
Gixon arek bi liburu ostu deus (Muxika gaztea)

Dena dela, hizkera hauetan izena erreferentziala (lehenago aipatua) denean, erakuslea izenaren ostean joan daiteke eta, beraz, inkestan jada gaztelaniaz aipatu den "mutil", "gizon" edo dena delakoari erreferentzia egiten diolako hiztunak gertatu ahal izan da adibide hauek jasotzea.

Hala ere, ez da kasualitatea bildutako adibide gehienak gazteenak izatea; izan ere, euskara estandarren eraginez, nagusitzen ari da erakuslea izenaren ostean erabiltzea eta, beraz, izena erreferentziala ez denean ere horrela erabiltzen hasi da. Busturialdeko hizkeretan, baina, hedadura desberdina erakusten du berrikuntza honek; hori dela eta, (hau) aldagaiaren bi aldaeren distribuzioa aztertzeak badauka bere garrantzia: (hau+I) aldaera eta (I+hau) aldaerarena, hain zuzen.

Goian aipatutakoez gain, hauek dira (hau) aldagaia aztertzeko erabili diren galderetako batzuk eta jasotako erantzun batzuk:

- Ese bolígrafo está gastado
Ori boligrafu gastata deu (Elantxobe gaztea)
Boligrafo ori gastata dau (Sukarrieta gaztea)
- Este libro está sucio
Au librue loi dau (Morga gaztea)
Liburu au sikiñe dau (Nabarniz gaztea)
- Si llevo todos esos platos, s eme van a caer
Orrek plater gustixek badaroatesen, jeusi engo yates (Kortezubi gaztea)
Plater orrek gustisek eruten batesen, jeusi engo dastes (Gautegiz-Arteaga gaztea)
Plater gusti orrek eruten badotas, jeusi engo xates (Nabarniz gaztea)

- No se si a Josu le va a quedar bien esta camisa
*Estakitx Yosuri ondo geratuko bayako **au arkondarie*** (Forua gaztea)
*Estakitx Yosuri **arkondara au** ondo lotuko badatzon* (Sukarrieta gaztea)
- Si veo esa película, me van a entrar ganas de llorar
***Ori pelikuli** kusten badot, negarguri sartungo dast* (Elantxobe gaztea)
***Pelikula ori** ikusten badot, negar eitxeko gogue zartuko yat* (Busturia gaztea)
- Ese balde es demasiado pequeño
***Ori baldi** txikixeixe da* (Elantxobe heldua)
***Balde ori** lar txikixeixe da* (Mundaka gaztea)
- Esas chicas han hecho un buen trabajo
***Orrek neskak** biar ona ein dabe* (Elantxobe heldua)
***Neska orrek** lan ona ein dabe* (Muxika gaztea)
- He pensado que ese chico era el primo de Ane
*Pentze ot base, **ori mutille** Anen lengusu dala* (Nabarniz heldua)
*Pentze dot **mutiy ori** Anen lengusue dala* (Gernika-Lumo gaztea)
- Se puede pensar que ese pez está muerto
*Esan leike base, **ori arrañe** illye dauela* (Gautegiz-Arteaga heldua)
*Pentze leike **arrañ ori** ilde dauela* (Gautegiz-Arteaga gaztea)
- Esa ensalada está hecha con verduras ecológicas
***Ori ensaladie** dau eñye berdura ekolojikukin* (Ereño heldua)
***Ori ensaladie** berdura ekolojikoakas eñye dau* (Forua gaztea)

3.5.2.18. (loi) aldagaia

Adjektibo bat, predikatu osagarriaren funtzioan, "egon" aditzarekin batera erabiltzen denean, joera bi aurkitzen ditugu euskaraz. Herri batzuetan artikularekin batera agertzen da eta beste batzuetan artikulurik gabe. Hori dela eta, (loi) aldagaiak bi aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (loi) aldaera eta (loixe) aldaera.

Gamindek aldagai honen bi aldaerak aztertzen ditu eta ondoko mapa eskaintzen du:

- a	Artea, Abadiño, Ajangiz, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrieta, Arrigorriaga, Bakio, Barrika, Basauri, Bedia, Begoña, Berango, Bermeo, Buja, Busturia, Derio, Dima, Durango, Erandio, Errigoiti, Etxebarri, Forua, Fruiz, Galdakao, Gamiz-Fika, Gatika, Gernika, Getxo, Gorliz, Igorre, Iurreta, Izurtza, Jatabe, Kortezubi, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lemoa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Mañaria, Meñaka, Mendata, Mundaka, Mungia, Murueta, Muxika, Orozko, Otxandio, Plentzia, Sondika, Sopela, Ubide, Ugao, Urduliz, Zamudio, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio, Zollo, Zornotza	
+ a	Arteaga, Amoroto, Atxondo, Aulesti, Berriatua, Berriz, Bolibar, Ea, Elantxobe, Elorrio, Ereño, Ermua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ispaster, Lekeitio, Mallabia, Markina, Mendexa, Munitibar, Nabarniz, Ondarroa, Zaldibar	

20. Mapa: Predikatuen erabileren hedadura (Gaminde 2007: 89)

20. mapan ikus daitekeenez, sortaldeko azpieuskalkiak eta sartaldeko azpieuskalkiak bereizten dituen ezaugarria da honakoa. Busturialdean, ostera, biak erabiltzen dira; batez ere sortaldeko hizkerekin kontaktuan dauden herrietan erabiltzen da (loixe) aldaera (berdez) eta, gainerakoetan, (loi) aldaera (horiz). Hala ere, uste dugu euskara estandarrek izan duela nolabaiteko eragina aldagai honi dagokionez eta, ondorioz, (loixe) aldaera galtzen ari dela.

Aldagai honen aldaerek Busturialdean duten hedadura aztertzeke, honako hauek izan dira erabili ditugun esaldietako batzuk eta jasotako erantzunetako batzuk:

- Este libro está sucio
*Au librue **sikin** dau/ Au librue **loi** dau* (Morga gaztea)
*Liburu au **sikiñe** dau* (Nabarniz gaztea)
*Au liburue **loixe** dau* (Kortezubi heldua)
- El cielo está azul
*Serue **asule** dau* (Nabarniz heldua)
*Serue **asul** dau* (Muxika gaztea)
- La sopa está salada
*Sopie **gasixe** dau* (Mendata heldua)
*Sopie **gasi** dau* (Sukarrieta gaztea)

3.5.2.19. (lar) aldagaia

Superlatibozko graduatzailea lau modutara gauzatzen da Busturialdeko hizkeretan: adjektiboari atzizki hutsa erantsiz, (-egi) aldaera; aldejtiboaren aurretik adberbioa jarritz, (lar) aldaera; eta forma pleonastikoak, hau da, adjektiboaren aurretik adberbioa jarritz eta adjektiboari atzizkia erantsiz, (lar-egi) aldaera; edota adberbioari zuzenean atzizkia erantsiz, (larrei) aldaera.

Gamindek ere aldagai hau aztertzen du eta ondoko mapa ematen du:

+egi,-lar	Abadiño, Ajangiz, Amoroto, Arrieta, Arteaga, Atxondo, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Berriz, Bolibar, Busturia, Durango, Ea, Elantxobe, Elorrio, Ereño, Ermua, Etxebarria, Getxo, Gizaburuaga, Gorliz, Ibarangelu, Ispaster, Izurtza, Jatabe, Kortezubi, Leioa, Lekeitio, Mallabia, Mañaria, Markina, Mendata, Mendexa, Mundaka, Munitibar, Murueta, Nabarniz, Ondarroa, Plentzia, Zaldibar, Zomotza	
-egi,+lar	Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Begoña, Buja, Derio, Dima, Etxebarri, Galdakao, Lezama, Ubide, Ugao, Zaratamo, Zeberio, Zollo	
+egi,+lar	Artea, Bakio, Barrika, Basauri, Bedia, Berango, Erandio, Errigoiti, Forua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gernika, Igorre, Iurreta, Larrabetzu, Laukiz, Lemoa, Lemoiz, Loiu, Meñaka, Mungia, Muxika, Orozko, Otxandio, Sondika, Sopela, Urduliz, Zamudio, Zeanuri	
<p>21. Mapa: Graduatzailearen morfemen hedadura (Gaminde 2007: 91)</p>		

21. mapan ikus daitekeenez, Gamindek Busturialdeko hizkera batzuetan ere (larregi) aldaera bildu du (berdez); baina, (larregi) aldaerarik ez du jaso. Hori dela eta, azterketa sakonagoa egitea beharrezkoa da eta adinaren araberako desberdintasunak zehaztea. Horrela, aldaera berri horiek helduek erabiltzen ote dituzten eta non eta nola hedatu diren ikusi ahal izango dugu.

Aldagai honen aldaera desberdinak aztertzeko honako hauek izan dira erabilitako galderetako batzuk eta jasotako erantzunetako batzuk:

- He aparcado el coche demasiado adelante
Kotxie eurrerei aparka dot (Busturia gaztea)
Igual kotxie lar aurrien aparka ot (Gaategiz-Arteaga gaztea)
Yokiñek lar aurrerei aparka deu kotxie (Ibarrangelu gaztea)
Kotxie larrei aurrien aparke dot (Muxika gaztea)
- Jokin ha aparcado el coche demasiado adelante
Yosuk eurrerei aparke deu kotxie (Forua gaztea)
Yokiñek autoa lar eurrera aparke deu (Muxika heldua)
Yokiñek lar eurrerei aparke deu kotxie (Kortezubi gaztea)
- Ese balde es demasiado pequeño
Hori baldie txikixeixe da (Muxika heldua)
Hori baldie lar txikixe da (Morga gaztea)
Balde hori lar txikixeidxe da (Mundaka gaztea)
Balde hori larrei txikixe da (Muxika gaztea)

4. Datuen-analisisa

Ezinbesteko bezain garrantzizkoa da gisa honetako ikerketetan atzerrian egin diren aurrerapenak gureari aplikatzeko ahalegina egitea. Datuen ustiaketa eta interpretazio estatistikoa aparteko garrantzia eman nahi izan zaio, beraz. Hasiera batean Goldvarb programa erabili nahi izan zen, honek atzerriko ikertzaile prestigiodunengan izan duen erabilera hedatuagatik (Pollock 1996; Paolillo 2001; Carrera-Sabaté 2002; Tagliamonte 2006; Becker 2007; Blake eta lag. 2009; Tagliamonte eta Baayen 2012), baina programa estatistiko honek gisa honetako ikerketetarako dituen mugak edo oztopoak erakutsi dizkigu. Izan ere, eremu urbano bateko komunitatearen hizkera aztertzeke balio du, aldagai-linguistiko bakoitzak dituen aldaera desberdinen agerpen-maiztasunen frekuentziak edo aukerak eskaintzen dizkigulako, etorkizunerako proiektzioak ahalbidetuz. Gainera, aldaera-linguistiko bakoitza zein gizarte-faktorek baldintzatzen duen erakusten digu. Hala ere, ikerketaren oinarria 20 herritako aldakortasuna denean, programa honek ez du balio, aldaera guztiak ez baitira agertzen herri guztietan eta, honek KNOCK OUT-ak agertzea dakarrenez, ezin daiteke azterketa estatistikoarekin aurrera jarraitu, ez badira 20 herri horiek eremu linguistikoetan multzokatzen; baina, gure ustean, hori ez litzateke zintzoki jokatzeko, gure asmoa aldaera-linguistiko bakoitza zein herritan ager daitekeen eta zenbateko maiztasunez zehaztea baita. Arazo honen eta beste batzuen berri Johnsonek (2009) ere ematen du:

Imagine that we were looking at the effect of speech style on the variable (ing) in English – the use of [n] instead of [ŋ] at the end of words like working. In the variable rule tradition, style would be called a factor group and the individual styles being studied – spontaneous speech, reading passage, wordlist – would be called factors. Given a set of observations of (ing) across the styles, GoldVarb would return an input probability representing the overall likelihood of [n] in the data, and another probability, called a factor weight, for each style factor.

Beraz, DiaTech¹² tresna dialektometrikoa erabili dugu gisa honetako ikerketetarako egokiagoa delako. Goldvarb, oster, herri/hiri bakarreko hizkeraren aldakortasuna

¹² Lantalde baten emaitza da eta partaidetza eta lan mota desberdinak egin dituzte parte hartzaileek: J. Sánchez da datu-basearen arduraduna (Ingeniaritza Goi Eskolako Aholab laborategia), K. Fernández eta J. A. Rubio dira estatistika modularen arduradunak (Ekonomia Aplikatua III (Estatistika eta Ekonometria)) eta euren ardurapean aritu da lanean I. Usobiaga master ikaslea. Informatika arduraduna G. Santander da eta aplikazioaren ideia eta lanen koordinazioaren ardura G. Aurrekoetxeak izan du (EuDia ikerketa-taldearen buruak); bera da datuen arduraduna eta berak gidatu dituen ikerketa-proiektu biren barnean kokatzen da Diotech aplikazioa (UPV-EHUK babestutako GIU 07/05 eta GIU 10/09).

aztertzeko balia daiteke baina, horretarako, gizarte-faktore ugari zehaztea gomendatzen dugu, adibidez: adina, sexua, eskola/ikastola, jatorrizko hizkuntza, heziketa-maila, diru-sarrerak, familiartekotasuna, lanbidea, etab. (ik. López Morales 1994: 26-27).

Badira azterketa dialektometrikoak gauzatzeko beste programa batzuk ere; horietatik ezagunenak Hans Goebel-ek Salzburgoko Unibertsitatean gidatutako *VDM* programa eta John Nerbonneren gidaritzapean Groningengo Unibertsitatean sortutako *Gabmap* dira. Bestalde, badaude estatistika pakete informatiko komertzialak ere, esate baterako, Norman H. Nie, C. Hadlai Hull eta Dale H. Bent-ek Chicagoko Unibertsitatean sortutako *SPSS* eta Estatu Batuetako SAS Institutuko kide diren Anthony Barr, Jim Goodnight, John Sall eta Jane Helwig-ek sortutako *SAS*. Bestalde, badago doako, *open source* eta erabiltzaile anitzekoa den software estatistiko bat ere: *R*. *R* software estatistikoa Auckland Unibertsitateko Robert Gentleman eta Ross Ihakak sortu zuten eta hizkuntzalariek gero eta gehiago erabiltzen dute (Baayen 2008). Gure ikerketarako, batetik DiaTech erabili dugu azterketa geolinguistikoa eta soziolinguistikoa egiteko eta, bestetik, emaitza horiek osotzeko *SPSS* programa estatistikoa ere erabili dugu, aldagai bakoitza esanguratsua den ala ez zehaztu ahal izateko.

DiaTech aplikazioak datu-basea kudeatu, analisi estatistikoak burutu eta datuak mapa zein grafikoetan ikusteko aukera ematen du. Gainera, aurreko programek ez bezala, erantzun anitzak onartzen ditu. Beste alde batetik, on-line erabil daiteke edozein nabigatzailearekin eta kanpoko datuak inportatzea onartzen du (aplikazioa eskuragarri dago ondoko helbidean: <http://eudia.ehu.es/diatech>). Horrez gain, datuak estatistikoki aztertzeko dialektometriari ezinbestekoak diren baliabideak eskaintzen ditu: isoglosa mapak, izpi mapak, mapa sinoptikoak, cluster analisia, korrelazioak, e.a.. Mapa kuantitatibo edo sintetiko hauek datu kopuru handiak erabiliz, hizkeren arteko desberdintasun linguistikoki estatistikoki aztertzeko aukera eskaintzen dute. Mapa sintetiko edo metakorrak egiteaz gain, kontzeptukako mapak egiteko aukera ere eskaintzen du, ohiko hizkuntza-atlasetan agertzen diren bezalakoak. Mapa guztiek mapazola bera dute eta poligonalak dira; poligono bakoitzak herri bat ordezkutzen du. Poligono hauei Voronoi edo Thiessen poligonoak deritze eta geolinguistikan oso

erabiliak izan dira, batez ere, H. Goebel hizkuntzalariari esker. Euskal Herrian era honetako mapekin egindako lanik aipagarrienak *Bourciez bildumako euskal atlasa* (Aurrekoetxea eta lag., 2004 eta 2005) eta *Euskal Herri Hizkeren Atlas*a (Euskaltzaindia 1999-2013) dira.

Estatistikak egiterako orduan lau analisi mota eskaintzen ditu DiaTech tresnak: poligono mapa, barizentro mapa, muga mapa eta sailkapen hierarkikoa. Analisia egiteko ikerketaren helburuen arabera aukera batzuk zehaztu behar dira (gehiagorako *ikus*. Aurrekoetxea, Ensunza eta Unamuno 2012).

- *Eremu linguistikoa*: Eragiketa guztietan galderen eremu linguistikoa definitzeko aukera dago edo hutsik uzteko erantzun guztiak erabil daitezkeen analisian.
- *Distantzia indizea*: IPI, IRI eta Levenshtein aukeratu daitezke.
- *Eragiketa estatistikoak*: Desbiderapen estandarra, Asimetria, Mediana, Maxima, Minima eta Korrelazioa.
- *Bigarren eremu linguistikoa*: Eragiketa estatistiko bezala *korrelazioa* aukeratuz gero, bigarren eremu linguistikoa aktibatzen da.
- *Estatistika algoritmoak*: *Med*, *MinWmMax* eta *MedWm* aukeratu daitezke.
- *Analisi multidimentsionala*: cluster analisia aukeragarri, *Ward*, *Average* eta *Complete* algoritmoak erabili daitezke.
- *Talde kopurua*: 1etik 10erako talde kopurua.

Argi dago DiaTech lanabesak aurrerapen handia ekarri diola dialektologiari, ukaezinak baitira teknologiak eta informatikak dakartzaten onurak. Hala ere, oraindik badago zer indartu, EuDia ikerketa taldekoek onartzen dutenez (Aurrekoetxea, Ensunza eta Unamuno 2012: 12): “lanabes indartsua den arren, ikertzaileen proiektuak errazago inportatu eta haien interesak kudeatzeko hobetu daitezkeen urratsak eman baitaitezke”. Esate baterako, DiaTech analisi geolinguistikorako tresna denez, ez da posible aldagai soziolinguistikoen arabera sailkapen edo analisirik egitea. Datu-baseak aukera ematen du informatzaileen adinari buruzko informazioa sartzeko (nagusia-heldua-gaztea), baina erantzunen mapak ateratzeko orduan ez dago aukerarik mapetan helduen erantzunak bakarrik ezartzeko, edo gazteen erantzunak soilik eskatzeko; aitzitik, erantzun guztiak mapa berean agertzen dira eta ez dago jakiterik batzuek zein erantzun eman duten eta zein besteek. Hori dela eta, gure kasuan datu-base desberdin bi (gure kasuan 2 adin-tarte ditugulako) inportatzea izan da, momentuz, irtenbide bakarra. Hortik, gero, adin-tarte

bakoitzari dagozkion mapak eta analisi estatistikoak ateratzeko ez dago inolako arazorik. Gure ikerketa honetarako ez dugu behar izan sexuen arteko bereizketarik egiterik eta, beraz, ez dakigu erantzunen mapan honek ekarriko lituzkeen arazoak zeintzuk diren; baina etorkizuneko erronketako bat denez, horren berri emateko tartea zabaldu nahi dugu eta ordurako DiaTech lanabesa garatuago egotea espero da.

Guk, “Busturialdea helduak” eta “Busturialdea gazteak” izeneko proiektu bi sortu ditugu, bakoitzean 20 informatzaile bildu ditugu (herri bakoitzeko bat; adin bakoitzean bat) eta 19 aldagai linguistiko aztertu ditugu. Beraz, mapa bakoitzak 20 herri edo poligono irudikatzen ditu eta, guztira, 38 mapa edo aldagai aztertu ditugu.



Jarraian DiaTech lanabesarekin egindako analisiak eskeiniko ditugu. Lehendabizi, analisi geolinguistikoa egingo dugu (4.1§); ostean, analisi estatistikoa eskainiko dugu (4.2§) eta, bukatzeko, analisi sailkatzailea ere egingo dugu (4.3§). Lehenengo atalean, ezaugarrien hedadura geografikoa eta belaunaldien artean gertatutako aldaketak ikertuko ditugu; bigarrean, Busturialdeko helduen hizkeratik gazteen hizkerara gertatutako aldaketen esanguratasun estatistikoa ikertuko dugu eta, azkenik, datuen analisi sailkatzailea eskeiniko dugu, herrien arteko distantzia linguistikoak neurtzeko.

4.1. Analisi geolinguistikoa

Atal honetan 3.4§ atalean definitutako aldagaien analisi kualitatiboa egingo dugu. Horretarako, DiaTech programaren bidez egindako mapa geografikoak eskeiniko ditugu. Era honetara, ikergai dugun hizkuntza-aldagaien azterketa geolinguistikoa eta soziolinguistikoa aztertuko ditugu; hau da, hizkuntza-aldagai bakoitzaren aldaera desberdinek helduen hizkeran eta gazteen hizkeran hartzen duten hedadura geografikoa aztertuko dugu eta batetik bestera dauden aldeak konparatuko ditugu.

4.1.1. (a) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.1§ atalean deskribatutako (a) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (+a) aldaera eta (-a) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa artikularen azaleko egituran datza; beraz, (+a) aldaerak izena azaleko egituran artikularekin azaltzen dela adierazten du eta (-a) aldaerak, ostera, izena azaleko egituran artikulurik gabe azaltzen dela adierazten du, asimilatu egiten dela arau fonologiko baten bitartez. 22. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 23. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



22 eta 23. mapak konparatuz gero, ikus daiteke (kolore morez) helduen kasuan lau herritan (Bermeo, Elantxobe, Ea, Nabarniz) gutxitan azaltzen dela artikulua; beraz, ohikoena izenak artikulua asimilatuta erabiltzea da (*kotxi* ‘kotxea, autoa’, *itxosu* ‘itsasoa’, *neskine* ‘neskarena’, etab.). Gazteen kasuan, ostera, ikus daiteke Bermeon eta Nabarnizen ez dela hainbeste asimilatzen artikulua eta, beraz, “gehienetan” multzora pasatu dira (kolore horiz). Kontuan izanik Bermeo, Elantxobe eta Ea kostako herriak direla, ondoriozta daiteke artikulua asimilatzea ohikoagoa dela kostako herrietan barrualdeko herrietan baino. Nabarniz, ostera, barruko herria da, baina sortaldeko hizkeretatik oso hur dago; beraz, haien eraginez asimilatzen da bertan artikulua.

Beste alde batetik, ikus daiteke Gernika-Lumo inguruetako herrietan erabiltzen dela (+a) aldaera (kolore urdina); hau da, artikulua ez da inoiz asimilatzen herri hauetako hizkeretan. Gainera, gazteen mapan ikus daiteke aldaera hau hedatu egin dela ondoko herrietara eta, beraz, lehen helduek noizbehinka artikulua asimilatzen zuten hizkeretan (horiz) gazteek gaur egun beti asimilatu gabe erabiltzen dituztela (urdinez). Honako herrietan gertatu da aldaketa: Errigoiti, Murueta, Gautegez-Arteaga, Kortezubi eta Ereño. Ostera, artikulua noizbehinka erabiltzea berdin mantendu da herri hauetan: Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Mendata eta Ibarrangelu.



(a) aldagaiari dagokionean, aipatu behar da (+a) aldaera herri guztietan *-ie* eta *-oa/-ue* formekin lekukotu dela gure datuetan. Gamindek (2007: 25), ostera, berezitat daukan Mundakako kasua aipatzen du esanez bertan "*etxia*" eta "*basua*" gisakoak entzuten direla adineko andrazkoen ahotan eta ez ingurune horietan ohikoak diren "*etxie*" eta "*basue*". Guk, ostera, ez dugu lortu halako laginik jasotzea, "a" dun moldeak erabiltzen zituzten hiztunak dagoeneko urriak direlako eta, bestalde, Mundakako hizkeran inguruko hizkeretan ohikoak diren *-ie* eta *-ue* formak nagusitu direlako jada. Beraz, esan daiteke Gamindek *fase esparitan* zegoen forma bat lekukotzea lortu zuela eta gure datuetan, ostera, bilakabidea guztiz gauzatuta agertzen dela.

4.1.2. (i_V) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.2§ atalean deskribatutako (i_V) aldagaiak lau aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (z) aldaera, (s) aldaera, (x) aldaera eta (0) aldaera. (s) aldaeraren azpian, ordea, bi gauzatze fonetiko sartu ditugu, batetik [s] frikari apiko-

albeolare ahoskabea (horiz mapan); eta bestetik, [ʃ] txistukari sabaiaurreko ahoskabea (urdinez mapan).

Esan dugunez, aldagai honen azterketa bi bokalen artean tartekatzen den epentesiaren izaeran datza. 24. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 25. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



24 eta 25. mapak konparatuz gero, ikus daiteke helduen kasuan herri guztiek tartekatzen dutela epentesi ahostuna (kolore horiz) batek izan ezik: Forua (kolore urdinez), bertan [ʃ] txistukari sabaiaurreko ahoskabea erabiltzen baitute helduek; baina, Busturialdeko hizkeretan ohikoena helduen kasuan epentesi ahostuna tartekatzea da.

Foruan (s) aldaera jaso dugun arren, horrek ez du esan nahi aldaketa herri honetatik abiatu denik. Ikerketa zehatzago bat beharko genuke aldaketaren nondik-norakoak zorrozki definitzeko eta (s) aldaera zein gizarte-faktorek (estatus soziala, generoa, ikasketak, etab.) baldintzatzen duen jakiteko.

Gazteen kasuan, ostera, ikus daiteke areagotu egin dela (s) aldaera (urdina eta horia) eta, ondorioz, gazteek maiztasun gutxiagoz erabiltzen duela (z) aldaera honako



herrietan: Murueta, Muxika, Mendata, Forua, Errigoiti, Gernika-Lumo, Ajangiz, Arratzu eta Gaategiz-Arteaga.

Bestalde, honako herri hauek (z) aldaera zaharra mantentzen dute (morea): Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Morga, Kortezubi, Ibarrangelu, Elantxobe, Ea, Ereño, Nabarniz.

(0) aldaera ez dugu bildu gure datuen artean, baina badakigu Gernika-Lumon, behintzat, hiztun batzuek erabiltzen dutena aldaera hori; izan ere, Ensunzak (2012: 229) bertako hizkera zehatz aztertu zuen eta erakutsi zuen aldaera hau 1981-1990 urteen artean jaiotakoengan lekukotzen dela lehenengoz oso maiztasun txikian bada ere (%5) eta 1991-2000 urteen artean jaiotakoen artean, ostera, gora egiten duela aldaera honen erabilerak (%17).

4.1.3. (oa) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.3§ deskribatutako (oa) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (oa) aldaera eta (ue) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa hiatuetan gauzatzen den /o + a, e, o/ > u (*berua/berue* ‘beroa’) bilakabidean datza. 26. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 27. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





26 eta 27. mapetan ikus daitekeenez, erdiguneko herrietan (Gernika-Lumo eta Ajangiz) erabiltzen da *-oa* aldaera, bai helduen hizkeran, bai gazteenean. Helduen kasuan, erdigunearen ondoan dauden herrietan ere *-oa* aldaera erabiltzen da (Forua, Errigoiti, Morga, Muxika, Arratzu), baina berba jakin batzuetan *-ue* amaiera erabiltzen da (*pianue* eta *karniserue*). Ondoan dagoen Kortezubin, ostera, aldaera biak erabiltzen dira, (oa) aldaera zein (ue) aldaera. Gainerako herrietan, aldiz, (ue) aldaera erabiltzen da eta, herri hauek kostaldean daude edo sortaldeko hizkerekin kontaktuan.

26 eta 27. mapak konparatuz gero ikus daiteke aldaera biak erabiltzea hedatu egin dela lehen (ue) aldaera bakarrik erabiltzen zen hizkeretara (Ibarrangelu, Mendata eta Sukarrieta). Hizkera estandarren eraginez izan daiteke aldaketa, *-oa* baita onartutako forma. Hala ere, erdigune den Gernika-Lumoko hizkerak ere eraginen bat izango duelakoan gaude. Bestalde, Muruetako helduek (ue) aldaera erabiltzen bazuten ere, gazteen hizkeran aldatu egin dela ikus daiteke; izan ere, hauek (oa) aldaera erabiltzen dute nagusiki, *-ue* egiten duten berba jakin batzuetan izan ezik (*karniserue* eta *pianue*).

4.1.4. (i_a) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.4§ atalean deskribatutako (i_a) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (i_a) aldaera eta (i_e) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa *i* bokalak edo *j* bere kide irristariak osteko $a > e$ bihurtzeko indarrean datza; izan ere, herri batzuetan beste batzuetan baino indartsuagoa da bilakaera hau. 28. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 29. mapan, aldiz, gazteen emaitzak erakusten dira:



28 eta 29. mapak konparatuz gero, ikus daiteke (i_e) aldaera (morez) galduz joan dela helduen hizkeratik gazteen hizkerara, aldaera hau lehen nagusi baitzen Busturialdeko hizkeretan eta orain, ostera, (i_a) aldaera da nagusi (urdinez). (i_e) aldaera bakarra da helduen kasuan Bermeon eta Ajangizen; baina gazteen hizkeran aldaera nagusia izan arren, (i_a) aldaerarekin batera erabiltzen dute. Sukarrietan, Busturian, Errigoitin, Muxikan, Ean eta Ereñon, ostera, helduen hizkeran (i_e) aldaera da bakarra eta gazteen hizkeran, aldiz, (i_a) aldaera da bakarra. Gernika-Lumon, Elantxoben eta Gaategiz-Arteagan, ostera, oraindik gazteen hizkeran entzun daiteke helduen hizkeran bakarra den (i_e) aldaeraren adibiderik, baina (i_a) aldaera da nagusi. Honek adierazten duenez, *i* bokala eta *j* bere kide irristariak osteko $a > e$ bihurtzeko zuen indarra galduz doa Busturialdeko hizkeretan. Kontuan izan behar da ahozkoan gertatzen den bilakabidea dela honakoa eta euskara estandarrea (i_a) dela onartutakoa; beraz, honen eraginari egotz dakioke Busturialdeko hizkeretan gertatutako aldaketa.



Bestalde, 28 eta 29. mapak erakusten dutenez badago (i_e) aldaera mantendu duen herri bat: Morga. Herri hau geografikoki Busturialdeko gainontzeko herrietatik aldenu xamar dago eta harremana mantentzen du (i_e) aldaera bakarra den auzo-herriekin; hala nola, Arrieta (Mungialdea), Zornotza (Durangaldea), Larrabetzu (Bilbo Handia), Gamiz-Fika (Uribe) eta Fruiz (Uribe). Harreman horrek nolabait lagundu du Morgako hizkeran (i_e) aldaera mantentzen.

Nabarniz eta Mundakan, ordea, (i_a) aldaera da bakarra helduen hizkeran. Nabarnizen berdin mantentzen da gazteen hizkeran ere; baina Mundakan (i_e) aldaera lekua hartuz joan dela ikus genezake, seguruenik auzo-hizkeren eraginez.

Forua eta Ibarangelun, helduen kasuan aldakortasuna dagoela ikus daiteke, aldaera biak erabiltzen baitira, baina (i_e) aldaera da nagusi. Gazteen hizkeran, ordea, Ibarangelun (i_a) aldaerak irabazi du lehia eta hau da erabiltzen den bakarra. Foruan ere (i_a) aldaera nagusitu da, baina oraindik (i_e) aldaera ere entzun daiteke, beraz, aldaketa ez da guztiz gertatu. Horrez gain, Murueta, Mendata, Arratzu eta Kortezubin ere helduen hizkeran aldakortasuna dago aldagai honi dagokionez; izan ere, (i_a) aldaera da nagusi, baina (i_e) aldaera ere erabiltzen dute helduek. Kortezubin gazteen hizkeran berdin mantendu da, baina Arratzun eta Muruetan (i_a) aldaerak irabazi du eta hau da bakarra bertako gazteen hizkeran. Mendatan, ostera, (i_e) aldaera gailendu da. Honek adieraz dezake herri horretako hiztun gazteak ezaugarri berezitzat hartu duela helduen hizkeran entzuten zuen (i_e) aldaera eta hedatu egin duela bere egunerokotasuneko adierazpenetarako.

4.1.5. (au) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.5§ atalean deskribatutako (au) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (au) aldaera eta (eu) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa *-au-* diptongoa duten berbetan *-eu-* egiteko joeran datza; beraz, (au) aldaerak diptongoa bere horretan mantentzen dela adierazten du eta (eu) aldaerak, berriz, *-au->-eu-* bilakaera gertatzen dela hizkera horretan. 30. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 31. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



30 eta 31. mapak konparatuz gero, ikus daiteke (morea eta gorria) helduen kasuan lau *-eu-* diptongoa dela nagusi; beraz, *-au->-eu-* bilakabideak indar handia dauka. Ikus daitekeenez, bilakabide hau ondoko herrietan da indartsuen: Busturia, Murueta, Forua, Errigoiti, Morga, Muxika, Ajangiz, Mendata, Ereño, Ea, Ibarangelu eta Gautegiz-Arteaga; izan ere, beti-beti gauzatzen gauzatzen da. Hori dela eta, herri hauetan *euntz* ‘ahuntz’, *eurre* ‘aurre’; *geur* ‘gaur’, *geuse* ‘gauza’; *neusi* ‘nagusi’; *yeusi* ‘jausi [erori]’ formako berbak erabiltzen dira. Mundaka, Gernika-Lumo, Kortezubi, Arratzu eta Nabarniz-en, ohiko formak dira hauek, baina bilakabidea indarra galtzen ari da eta, beraz, *-au-* diptongodun formak ere entzuten dira helduen hizkeran. Bermeo eta Sukarrietako helduen hizkeran, aldiz, *-au-* diptongoa da nagusi (horia), baina *-eu-* diptongoa ere entzun daiteke; seguruenik, sasoi batean honek izango zukeen nagusitasunaren arrastoa dena. Elantxoben, ostera, *-au-* diptongodun formak dira nagusi eta bakar (urdina). Hemendik ondoriozta daiteke Busturialdeko kostako hizkeretan *-au->-eu-* bilakabidea arrotzagoa dela barrualderagoko hizkeretan baino; baina, dirudienez, sasoi batean bilakabide hau Busturialdeko herri guztietan gauzatzen zen eta indarra galduz joan da.

Bilakabide honen indarraren galera argi islatzen du gazteen mapak, *-eu-* egiten duten hizkerek behera egin baitute. Esate baterako, Forua, Morga eta Ereñon helduek *-eu-* diptongodun formak bakarrik erabiltzen zituzten; gazteek, ostera, *-au-* diptongodun formak erabiltzen dituzte gehienbat (horia). Ajangizen oraindik ere *-eu-* diptongoa da



nagusi, baina *-au-* diptongodun formak ez dira arrotzak (gorria). Ea-n, ostera, *-eu-* diptongoa bakar izatetik *-au-* diptongoa bakar izatera pasatu da (urdina), beraz, aldaketa oso azkarra izan da. Arratzun, aldiz, *-eu-* diptongoa ugaritu egin da zaharren hizkeratik gazteenera, forma bakar bihurtuz haien ahotan. Azkenik, Bermeo, Mundaka, Sukarrieta eta Nabarnizen guztiz galdu da *-eu-* diptongoaren erabilera. Kontuan izan behar da *-au>-eu* bilakaera arrotza dela euskara estandarrean, beraz, helduen hizkeratik gazteen hizkerara aldaketa handia gertatu izana honen ondorio izan daiteke.

4.1.6. (-atu) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.6§ atalean deskribatutako (-atu) aldagaiaren 4 aldaera daude Busturialdeko hizkeretan: (au) aldaera, (a) aldaera, (eu) aldaera eta (e) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa gaztelaniaz *-ar* amaiera daukaten aditz partizipioak mailegatzerakoan egiten den amaierari dagokio: *kantatu, gozatu, aparkatu...*

Aldagai honek bi analisi desberdin egiteko aukera ematen du: batetik, aldaera diptongatua eta aldaera monoptongatua erabiltzen den azter daiteke, beraz, bi taldetan aztertuko ditugu aldaerak: (au) eta (eu) aldaerak batetik eta bestetik (a) eta (e) aldaerak. Bestalde, *-a* bokalduna den ala *-e* bokalduna den ere aztertuko dugu, beraz, (eu) eta (e) aldaerak batetik eta bestetik (au) eta (a) aldaerak aztertuko ditugu.

Lehenengo eta behin aldaera diptongatua ala monoptongatua erabiltzen den aztertuko dugu. 32. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 33. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:




32 eta 33. mapak konparatuz gero, ikus daiteke (kolore gorritz) bai helduen kasuan, bai gazteenean, aldaera monoptongatuak direla nagusi Busturialdeko hizkeretan. Gainera, helduen hizkeran 12 hizkerak erabiltzen dute beti aldaera monoptongatua (Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Murueta, Errigoiti, Morga, Mendata, Arratzu, Kortezubi, Gautezig-Arteaga, Ibarangelu eta Elantxobe) eta aldaera honek gora egiten du gazteen kasuan, 15 hizkera baitira aldaera hau erabiltzen dutenak (+Busturia, +Muxika, +Gernika-Lumo, +Ajangiz, +Ea/ -Mendata, -Arratzu). Ajangiz eta Muxika, Gernika-Lumo eta Ea-rekin batera aldaera monoptongatuak soilik erabiltzera igaro dira gazteen hizkeran. Arratzun eta Mendatan, ostera, helduek aldaera monoptongatua erabiltzen bazuten ere, gazteen hizkeran aldaera diptongatuak ez dira arrotzak.


Beste alde batetik, ikus daiteke aldaera diptongatua eta monoptongatua, biak (urdin argia) erabiltzen zituzten hizkerak (Busturia, Forua, Ajangiz eta Muxika), gutxika-gutxika aldaera diptongatua galduz joan direla eta, beraz, aldaera monoptongatuak honen lekua hartu du hizkera hauetan, Foruan izan ezik; hemen oraindik bi aldaerak erabiltzen dira. Horrez gain, aldaera diptongatua (morea) erabiltzen zuten hizkeretan ere gazteen hizkeran aldaera monoptongatua gailendu da Nabarnizen eta Ereñon izan ezik; hauetan oraindik aldaera diptongatua da bakarra.

Beraz, ondoriozta daiteke (au) eta (eu) aldaerak batetik eta (a) eta (e) aldaerak bestetik aztertuz gero, banaketa nagusia ez dela kostako/barruko hizkeren artean gauzatzen; desberdintasuna sortaldeko hizkerekin kontaktuan egotean datza.

Aldagai honek eskaintzen duen bigarren analisisan, ostera, *-a* bokalduna ala *-e* bokalduna izatean datza, beraz, (eu) eta (e) aldaerak batetik eta bestetik (au) eta (a) aldaerak aztertuko ditugu. 34. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 35. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



34. Mapa: (-atu) aldagaia helduak, (eu)/(e) vs. (au)/(a)



35. Mapa: (-atu) aldagaia helduak, (eu)/(e) vs. (au)/(a)



34 eta 35. mapak konparatuz gero, ikus daiteke helduen hizkeratik gazteenera (au) eta (a) aldaerek behera egin dutela (kolore gorritz) eta honen lekua (eu) eta (e) aldaerek hartu dutela herri bitan gazteen hizkeran (kolore urdinez): Murueta eta Gautegiz-Arteaga.

Kasu honetan, aldagaiak kosta/barrualde banaketa argia islatzen du, kostan *-a* aldaeradun formak erabiltzen baitira (dela *-au*, dela *-a*) eta barrualdean, berriz, *-e* aldaeradunak (*-eu* zein *-e*). Gainera, (au)/(a) aldaerak galdu diren hizkerak (eu)/(e) aldaerak erabiltzen diren hizkeretatik hur daudenak dira.

4.1.7. (dau) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.7§ atalean deskribatutako (dau) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (dau) aldaera eta (deu) aldaera. Aurreko ataletan esan dugunez (3.5.2.6§ (-atu) aldagaia), aldagai honen azterketa *edun* aditz laguntzailean gertatzen den bilakaeran datza; *-au* diptongoa *-eu* bilakatzen baita aditz honetan ere



Busturialdeko zenbait hizkeratan. 36. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 37. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



36 eta 37. mapak konparatuz gero, ikus daiteke (kolore horiz) Busturialdeko hizkeretan (deu) aldaera dela nagusi. (dau) aldaera (urdinez), ostera, kostako herrietan erabiltzen den forma da, berau baita aldaera bakarra Bermeo, Mundaka eta Ea-n helduen kasuan eta Mundaka eta Ereño batzen zaizkio gazteen hizkeran. Helduen hizkeran, ostera, Ereñon aldaera biak erabiltzen dira (laranjaz), baina esan bezala, gazteen hizkeran (dau) aldaera nagusitu da bertan. Ondoriozta daitekeenez, aldagai honek kostaldeko hizkerak eta barrualdekoak bereizteko balio du Busturialdean.

4.1.8. (-tzen) aldagai

Esan bezala, 3.5.2.8§ deskribatutako (-tzen) aldagaiaren azterketak aspektu burutua egiteko erabiltzen den atzizkiaren erabileran datza eta hiru aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (-taten) aldaera, (-teten) aldaera eta (-tetan) aldaera. 38. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 39. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



38 eta 39. mapak konparatuz gero, ikus daiteke bai helduen hizkeran (berdea, horia eta morez) bai gazteenean (urdinez eta horiz) kostako herrietan erabiltzen dela (taten) aldaera. Helduen kasuan, Bermeo, Mundaka, Murueta, Gauteviz-Arteaga eta Elantxoben forma bakarra da (berdea); Sukarrieta eta Busturian (teten) aldaera ere erabiltzen da (morez); eta Ibarrangelun (taten) zein (tetan) aldaerak erabiltzen dira (horia). Gazteen kasuan, ordea, Bermeo, Mundaka eta Elantxobez gain, Sukarrietan, Ibarrangelun eta Ean ere (taten) aldaera da bakarra (berdez); Busturian eta Gauteviz-Arteagan, ostera, aldaera biak erabiltzen dituzte gazteek (horiz); bai (taten), bai (tetan).

Barrualdeko hizkeretan, ostera, (tetan) aldaera erabiltzen da. Helduen kasuan, Ajangiz eta Mendatan aldaera bakarra da hau (gorriz) eta gainerako barrualdeko hizkeretan (teten) aldaerarekin batera erabiltzen da (urdin ilunez); hala nola, Forua, Gernika-Lumo, Errigoiti, Morga, Muxika, Arratzu, Kortezubi, Ea, Ereño eta Nabarnizen. Gazteen kasuan, ordea, Errigoiti, Morga, Muxika, Gernika-Lumo, Ajangiz eta Kortezubin aldaera bakarra da (tetan) (morez). Murueta, Forua, Mendata, Ereño eta Nabarnizen (teten) aldaerarekin batera erabiltzen da (urdin ilunez); Busturian eta Gauteviz-Arteagan (taten) zein (tetan) aldaerak erabiltzen dituzte (horiz); eta Arratzun, hiru aldaerak erabiltzen dituzte gazteek (gorriz).



Aldaketa nagusia, beraz, gazteen hizkeran (teten) aldaeraren erabilera murriztea izan da, hau gertatu baita Sukarrieta, Busturia, Gernika-Lumo, Errigoiti, Morga, Muxika, Arratzu, Kortezubi eta Ean. Mendatan eta Muruetan, ostera, kontrakoa gertatu da: helduek (tetan) aldaera bakarrik erabiltzen dute lehenengoaren kasuan eta (taten) bigarrenaren kasuan eta gazteek, berriz, (teten) aldaerarekin batera.

Beste alde batetik, (taten) eta (teten) aldaerak helduen hizkeran bereiziago daude, Ibarrangelun bakarrik erabiltzen baitira biak. Gazteen hizkeran, ordea, Ibarrangelun (taten) aldaera bakarrik erabiltzen da, baina Gautegiz-Arteagan, Busturian eta Arratzun nahasian erabiltzen dira, bata orain, bestea gero. Gainera, Ean helduek (tetan) erabiltzen dute, baina gazteek (taten); seguruenik Lekeitioko jendearekin duten harremanaren ondorioz.

Ondoriozta daitekeenez, (taten) edo (tetan) aldaera erabiltzea loturik dago kostako hizkera edo barrualdeko hizkera izatearekin. Aldaera horiez gain (teten) aldaera erabiltzea edo ez erabiltzea, ordea, belaunaldien artean gertatutako aldaketa dela esan daiteke.

4.1.9. (edun) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.9§ deskribatutako (edun) aldagaiak hainbat aldaera izan ditzake: iraganaldiko esaldietan subjektua "nik", "hark" eta "haiek, eurek" direnean (+b) aldaera (*neban/naben,(e)ban, dabe*) edo (-b) aldaera (*neuen/ nauen, euen, deue*) izan dezake; bestetik, subjektua "hark" denean (edun) aldagaiaren (+z) (*saben, seuen*) aldaera eta (-z) aldaerak (*eban, euen*) erabiltzen diren ere aztertuko dugu. 40. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 41. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



40 eta 41. mapak konparatuz gero, ikus daiteke aldakortasun handiena sartaldeko azpieuskalkiekin kontaktuan dauden herrietan dagoela; sartaldeko azpieuskalkiekin kontaktuan dauden hizkeretan, ostera, batasun handiagoa dagoela dirudi.

Helduen (kolore urdinez) zein gazteen (horiz) hizkeran (+b) aldaera da nagusi Busturialdean. Helduen hizkeran, Murueta, Morga, Gernika-Lumo eta Ibarangelun jaso ditugu (-b) aldaeraren gauzapeak bakarrik egiten dituzten hizkerak. Hala ere, Bermeo, Sukarrieta, Elantxobe, Gautegiz-Arteaga, Arratzu, Forua eta Errigoitin (+b) aldaera nagusi bada ere, (-b) aldaera ere erabiltzen da. Bestalde, Bermeon eta Sukarrietan, 'orainaldiko forma+-n' (*doten* 'nuen') aldaera ere erabiltzen dute helduek.

Helduen hizkeratik gazteenera aldaketak jasan dituzten herriak Mundaka eta Busturia dira batetik, hauetan helduek (+b) aldaera bakarrik erabiltzen baitute eta gazteek, ostera, (-b) aldaera bakarrik Mundakan eta Busturian aldaera biak. Ibarangelun eta Muruetan ere aldaketa handia gertatu da, (-b) aldaera erabiltzen baitute helduek eta gazteek, ordea, (+b) aldaera bakarrik erabiltzen dute. Gautegiz-Arteaga, Arratzu, Forua, Errigoiti eta Bermeon, helduen hizkeran aldaera biak erabiltzen dira; Bermeon, (-b) aldaera gailendu da gazteen hizkeran eta gainontzekoetan, ostera, (+b)



aldaera. Gernika-Lumon, ordea, helduek (-b) aldaera soilik erabiltzen zuten, baina gazteak (+b) aldaera erabiltzen hasi dira eta gaur egun biak entzun daitezke.

Beste alde batetik, Bermeo eta Muxikan subjektua "hark" denean (edun) aldagaiaren (+z) aldaera erabiltzen dute gazteek (*saben, seuen*). Azkenik, Morgako gazteek Txorierriko hizkeretakoak diren formak erabiltzen dituzte; *deurie* gisakoak.

Gainerako herrietan ez da aldaketarik egon helduen hizkeratik gazteenera.

4.1.10. (j-) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.10§ atalean deskribatutako (j-) aldagaiak hainbat aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (j) aldaera ([x] frikari belare ahoskabea), (y) aldaera ([j] hurbilkari sabaikari ahostuna), (dj) aldaera ([ʝ] herskari sabaikari ahostuna), (dz) aldaera ([d͡ʒ] afrikatu sabaiaurreko ahostuna) eta (z) aldaera ([z] frikari sabaiaurreko ahostuna). Esan dugunez, aldagai honen azterketa euskal hitzen hasierako *j*- soinuaren nolakotasunari dagokio (*jan, jaten, jateko, jausi, jausten, josi, jo, joan*). 42. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 43. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





42 eta 43. mapak konparatuz gero, ikus daiteke bai helduen kasuan (kolore gorriz), bai gazteen kasuan (morez), batasun nabarmena dagoela Busturialdeko herrien artean, batez ere erdialdeko hizkeretan; izan ere, hauetan (j) aldaera ([x] frikari belare ahoskabea) erabiltzen da. Kostaldeko herrietan, ostera, banaketa osagarrian dauden (dz) aldaera ([d͡ʒ] afrikatu sabaiaurreko ahostuna) eta (z) aldaera ([ʒ] frikari sabaiaurreko ahostuna) erabiltzen dira nagusiki.

Aldaketa nabarmenena Busturia, Sukarrieta eta Morgan gertatu da, helduek (dz) edo (z) aldaera erabiltzen baitute bakarrik eta gazteek, aldiz, Busturia eta Sukarrietan barrualdeko hizkeretan bezala egiten dute, (j); eta, Morgan, Txorierriko hizkeretan bezala, (y).

4.1.11. (zait) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.11§ atalean deskribatutako (zait) aldagaiak hainbat aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (z) aldaera ([ʒ] frikari sabaiaurreko ahostuna), (dz) aldaera ([d͡ʒ] afrikatu sabaiaurreko ahostuna), (y) aldaera ([j] frikari sabaikari ahostuna), (d) aldaera ([d] herskari horzkari ahostuna) eta (0) aldaera ([∅] kontsonanterik ez ahoskatzea). Esan dugunez, aldagai honen azterketa mendebaleko euskalkietan NOR-NORI saileko adizkien hasieran dagoen “j” horren nortasunari dagokio. 44. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 45. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





44 eta 45. mapak konparatuz gero ikus daiteke helduen kasuan (kolore morez eta berdez) aldagai orokorrenak (dz) eta (z) direla, 3.5.2.11§ atalean esan bezala, funtsean gauza bera direna eta banaketa osagarrian daudenak. Bestalde, Bermeo, Mundaka, Forua eta Muxikan (y) aldagaia da nagusi (urдинez); baina aldagai hau Busturialdeko herri gehienetan ere erabiltzen dute helduek. 45 mapari erreparatuz gero, ikus daiteke (y) aldaera nagusitu egin dela gazteen hizkeran eta, beraz, herri gehienetan (dz) eta (z) aldaera zaharrak galdu egin direla Nabarniz, Mendata eta Ean izan ezik.

Bestalde, helduen hizkeran leku txikia zuen (d) aldaerak (gorriz); izan ere Gaategiz-Arteagan eta Elantxoben bakarrik erabiltzen izan da orokortasunez, nahiz eta Ibarrangelun, Busturian, Muruetan, Kortezubin eta Muruetan ere erabiltzen izan den. Gazteen hizkeran, ordea, lekua hartu du eta hedatu egin da: Gaategiz-Arteagan eta Elantxoben aldaera nagusia izaten jarraitzen du eta, horrez gain, Ibarrangelu, Mundaka, Bermeo, Sukarrieta, Gernika-Lumo eta Morgan ere nagusi bilakatu da (d) aldaera. Muxika eta Arratzun, ostera, (y) da aldaera hedatuena gazteen hizkeran, baina (d) aldaera ere erabiltzen da.

3.5.2.11§ atalean esan bezala, (d) aldaera erabiltzen den hizkeretan *d-* hori ez ahoskatzeko joera ere badago (morez). Honen lekuko dira Bermeo, Gernika-Lumo, Muxika eta Arratzun jasotako gauzapeak.

4.1.12. (it) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.12§ atalean deskribatutako (it) aldagaiak hainbat aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (tt) aldaera ([c] herskari sabaikaria), (tx) aldaera ([tʃ] afrikatu sabaiaurrekoa) eta (tz) aldaera ([tʃ] afrikatu hobikari-lepokaria). Bestalde, gazteen artean palatalizatu gabeko aldaera ere entzun daiteke, (it) aldaera, batez ere hitz amaieran. Esan dugunez, aldagai honen azterketa *i* bokalaren eraginek palatalizatutako osteko *t* horren nolakotasunean datza. 46. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 47. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



46 eta 47. mapei begiratu gero, ikus daiteke helduen kasuan (kolore urdinez) Busturialde barrualdeko hizkerak direla (tt) aldaera ondoen mantendu dutenak; kostaldeko helduen hizkeran, oster, (tx) aldaera berria da nagusi. Gazteen mapari begiratu gero ere gauza bera ikus daiteke, hau da, batez ere kostaldeko hizkerak direla



berritzaileenak; izan ere, kostaldeko hizkerak (tx) aldaera erabiltzeari utzi diote eta pauso bat aurrera emanez (tz) aldaera nagusitu da gazteen hizkeran (laranjaz). Aldaera berri hau barrualdeko hizkeretara ere hedatu dela ikus daiteke, besteak beste, Forua, Gernika-Lumo, Ajangiz eta Gautebiz-Arteagan nagusitu egin baita. Hala ere, aldaera berri honen hedadura zabalagoa da baina oraindik ez da guztiz nagusitu, esate baterako, Errigoiti, Muxika eta Ereñon. Azken hauetan lehen helduek erabiltzen ez zuten (tx) aldaera nagusitu da gazteen hizkeran eta, esan bezala, (tz) aldaerak ere presentzia hartu du.

Busturialdeko hizkera gehienetan (tt) aldaera zaharra galdu egin da gazteen hizkeran, baina Morgan eta Mendatan mantendu egin da. Nabarnizen ere mantendu da, baina aldaketa abian dela dirudi, gazteen mapan ikus daitekeenez, (tx) aldaerarekin batera erabiltzen baita.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea (tt) aldaera zaharra galdu den hizkeretan galera horrek nahasketa ekarri duela afrikatueta. Izan ere, *tx*, *ts* nahiz *tz* afrikatuak berdin ahoskatzen dira hizkera horietan, dela (tx) dela (tz) aldaera. Honek, gazteen hizkeran, hiperzuzenketak gertatzea ekarri du eta egunerokotasunean (tt) aldaera erabiltzen ez dutenen ahoetan "ittasoa" 'itsasoa', "nitten" 'nintzen' eta "ittel" 'itzel' gisakoak entzun daitezke.

4.1.13. (ind) eta (ild) aldagaiak

Esan bezala, 3.5.2.13§ atalean deskribatutako (ind) eta (ild) aldagaiak hainbat aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (ind)/(ild) aldaera ([ind] eta [ild] palatalizatu gabekoak); eta (iñy)/(illy) aldaera ([inˈjɨ]/ [ilˈjɨ] zein [inˈd͡ʒ]/ [ilˈd͡ʒ] palatalizatuak). Esan dugunez, aldagai honen azterketa aldaera palatalizatua erabiltzean ala ez datza. 48. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 49. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





49. mapari erreparatuz gero, ikus daiteke Busturialdeko ia hizkera guztietan erabiltzen dela aldaera palatalizatua (berdez eta horiz). Busturialdeko ezkeraldeko hizkeretan helduek beti darabilte aldaera palatalizatua (berdez); eskumako aldean, ostera, ohikoa da aldaera palatalizatua erabiltzea, baina ez da beti erabiltzen (horiz). Elantxoben, ordea, ohikoena aldaera ez palatalizatuak erabiltzea da, baina aldaera palatalizatuak ez dira arrotzak (gorriz). Nabarnizeko helduen hizkeran, ostera, arrotzak dira aldaera palatalizatuak. Distribuzio honek badu zentzua, kontuan izanik sartaldeko azpieuskalkian sistematikoak direla aldaera palatalizatuak eta sortaldeko hizkeretan, ostera, arrotzak.

48 eta 49. mapak konparatuz gero, ikus daiteke aldaera palatalizatuak (berdez) nabarmen egin duela behera gazteen hizkeran eta, beraz, aldaera ez palatalizatua gailentzen ari dela Busturialdeko hizkera gehienetan. Aldaketa hau ere ez da harritzekoa, kontuan izanik, batetik, Busturialdeko eskumako herrietan helduen kasuan ere aldaera ez palatalizatuak erabiltzen direla; eta bestetik, euskara estandarrean aldaera palatalizatuak arrotzak direla eta hau dela egungo gazteek hezkuntzan jaso duten eredua.

Azkenik, aldaera palatalizatuari ondoen eutsi dioten hizkerak Bermeo, Sukarrieta, Busturia, Forua eta Mendata dira.

4.1.14. (-kin) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.14§ atalean deskribatutako (-kin) aldagaiak aldaera bi ditu Busturialdeko hizkeretan: (-kaz) aldaera eta (-kin) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa soziatibo plurala adierazteko erabiltzen den morfema datza. 50. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 51. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





50 eta 51. mapak konparatuz gero, ikus daiteke helduen hizkeran hedadura zabalagoa duela (kin) aldaerak (morez, gorritz eta horiz) gazteen hizkeran baino (horiz); beraz, Busturialdeko hizkeretan behera egin du (kin) aldagaiaren erabilerak. Oro har, (kin) aldaera Busturialdea ekialdeko hizkeretan erabiltzen da, sortaldeko azpieuskalkitik hur dauden hizkeretan, hain zuzen. Salbuespena Sukarrieta genuke; izan ere, (kaz) aldaerarekin batera (kin) aldaera ere erabiltzen da Busturialdea mendebaldeko herri honetan.

Mapetan ikus daitekeenez, helduen hizkeran Ibarrangelu, Ea, Kortezubi, Nabarniz eta Mendata dira (kin) aldaera soilik erabiltzen dutenak; Sukarrietan nagusi da aldaera hau, baina (kaz) aldaera ere erabiltzen da; Arratzun eta Ereñon, ostera, (kaz) aldaera da nagusi, baina (kin) ere ez da arrotza. Gazteen hizkeran, ostera, Ibarrangelu, Kortezubi

eta Nabarnizen galdu egin da (kin) aldaera eta Ea, Arratzu eta Mendatan gorde da ondoen.

4.1.15. (joan-eroan) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.15§ atalean deskribatutako (joan-eroan) aldagaiak hiru aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (doa), (doie) eta (due). Esan dugunez, aldagai honen azterketa *joan* eta *eroan*-en adizkietan *-i* bokala tartekatzea ala ez tartekatzean datza. 52. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 53. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





52 eta 53. mapak konparatuz gero, ikus daiteke helduen kasuan banaketa nahiko garbia dagoela. Batetik, Busturialdea ezkerreko itsasaldeko hizkeretan (due) aldaera erabiltzen da; Busturialdea erdialdeko hizkeretan (doa) aldaera erabiltzen da eta Busturialdea eskumaldeko herrietan (doie) aldaera. Azken honekin bat egiten du Muruetako helduen hizkerak, Busturialdea erdialde-kostan egonagatik (doa) edo (due) ohikoagoa izango balitz ere. Bestalde, Eako hizkera gainontzekoetatik urruntzen dela

ikus daiteke (doi) aldaera erabiltzen baita bertan, baina gaude ez ote den (doie) aldaeraren azpialdaera bat.

Helduen hizkeratik gazteen hizkerara aldaketa txikiak baino ez direla gertatu ikus daiteke; besteak beste, Mundakan helduek (due) aldaera erabiltzen dute, baina gazteek (doie); Muruetan helduek (doie) erabiltzen dute, baina gazteek (doa) eta Kortezubi helduek (doa) erabiltzen dute, baina gazteek (doie). Aldaketa hauek erraz uler daitezke ondoko herrietan erabiltzen diren aldaerei begiratuz gero.

4.1.16. (bi) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.16§ atalean deskribatutako (bi) aldagaiak aldaera bi ditu Busturialdeko hizkeretan: (I+bi) aldaera eta (bi+I) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa 'bi' zenbatzailea izenaren ezkerrean ala eskuman ezartzean datza. 54. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 55. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:





54. mapari begiratuz gero, ikus daiteke (kolore berdez) helduen kasuan Busturialdeko herri guztietan nagusi eta bakar dela (I+bi) aldaera; hau da, *bi* zenbatzailea izenaren ostean jartzen da: *neska bi*, *etxe zuri bi*, etab. 55. mapari

erreparatuta, ostera, ikus daiteke gazteen hizkeran aldaketa nabarmena gertatu dela; izan ere, herri askotan sartu da (bi+I) aldaera (berdez eta morez) eta berau bilakatu da forma bakar (berdez). 55. mapan ikus daitekeenez, aldaera zaharrari ondoen eutsi dioten hizkerak Mundaka, Murueta, Ea, Ereño, Nabarniz eta Mendata izan dira. Ajangizm Sukarrieta eta Gernika-Lumon oraindik erabiltzen da aldaera zaharra, baina berriarekin batera. Hori dela eta, Busturialdeko gazteen hizkera gehienetan *bi neska* eta *bi etxe zuri* gisakoak entzutea ohikoagoa da. Kontuan izan behar da hau dela euskara estandarrekin eskolan erakutsi den aldaera bakarra eta, beraz, ez da harritzekoa aldaketa hau gauzatu izana.

4.1.17. (hau) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.17§ atalean deskribatutako (hau) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (hau+I) aldaera eta (I+hau) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa erakusleak izenaren ezkerrean ala eskuman ezartzean datza. Hori dela eta, ohikoa da *hau mutille* edo *horra mahaire* gisakoak beharrez *mutil hau* edo *mahai horretara* gisakoak entzutea Busturialdeko hizkeretan. 56. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 57. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:




56. mapari begiratzuz gero, ikus daiteke Busturialdeko herri gehienetan (erak+I) aldaera dela nagusi helduen hizkeran; hau da, mendebaleko euskalkietan gaur egunera arte ohikoa izan den bezala, erakuslea izenaren aurretik jartzen da. Hala ere, jada herri batzuetako helduek erakuslea izenaren ostean jartzen dutela ikus daiteke eta (erak+I) aldaerarekin batera (I+erak) aldaera ere erabiltzen dute Mundaka, Busturia, Forua eta Muxikako helduek.

57. mapari erreparatzuz gero, ostera, erakusleareb erabileran aldaketa nabarmena gertatu dela ikus daiteke; izan ere, mendebaleko euskalkien ezaugarri bereizgarria den (erak+I) aldaerak indarra galdu du eta honen ordeztuz (I+erak) aldaera lekua hartuz joan da gazteen hizkeran. Gainera, Muxikan zein Gautegez-Arteagan erabat nagusitu da eremu honetan berria den aldaera.


Aldaera zaharrari ondoen eutsi dioten herriak Bermeo, Murueta, Kortezubi, Arratzu, Elantxobe, Ea, Ereño, Mendata eta Morga ditugu. Beste alde batetik, Busturian eta Foruan atzera egin da bilakabidean eta berriro ere (erak+I) forma zaharra bihurtu da nagusi eta bakar.

4.1.18. (loi) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.18§ atalean deskribatutako (loi) aldagaiak bi aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (loi) aldaera eta (loixe) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa adjektibo bat, predikatu osagarriaren funtzioan, "egon" aditzarekin batera erabiltzen denean, artikularekin batera erabiltzean ala artikulurik gabe erabiltzean datza. 58. mapan ikus daiteke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 59. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



58. Mapa: (loi) aldagaia helduak




59. Mapa: (loi) aldagaia gazteak

58. mapari begiratu gero ikus daitezke helduen hizkeran batez ere Busturialdeko ekialdeko hizkeretan erabiltzen dela (loixe) artikuludun aldaera; hau da, sortaldeko azpieuskalkitik hurren dauden herrietan.

Bestalde, mapa biak konparatu gero ikus daitezke gazteen hizkeran behera egin duena (loixe) aldaeraren erabilerak eta jada arrotza dela aldaera hau lehen aldaera bakarra zen herrietan; hala nola, Muxika, Korteizubi, Gauteziz-Arteaga, Ereño eta Elantxoben.

4.1.19. (lar) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.19§ atalean deskribatutako (lar) aldagaiak hiru aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (lar) aldaera, (-egi) aldaera, (lar-egi) aldaera eta (larrei) aldaera. Esan dugunez, aldagai honen azterketa superlatiboa adierazteko moduan datza. 60. mapan ikus daitezke aldagai honek Busturialdeko hizkeretan helduen artean duen distribuzioa; 61. mapan, aldiz, gazteen emaitzak islatzen dira:



60. mapari begiratu gero ikus daiteke helduen kasuan batasun handia dagoela superlatiboa egiteko erabiltzen den aldaerari dagokionez eta berau (egi) dela (berdez). Muxikan, ordea, (lar) aldaera da nagusi (horiz). Hala ere, ikus daitekeenez, Ibarrangeluko helduen hizkeran dagoeneko (lar-egi) aldaera pleonastikoa erabiltzen da eta, gainera, berau da nagusi (morez). Horrez gain, ondoan dituen herrietara ere hedatu da aldaera hau; hala nola, Gauegiz-Arteaga, Ereño eta Nabarnizera. Bermeon ere ez da arrotza (lar-egi) aldaera.

60 eta 61. mapak konparatuz gero, ikus daiteke gazteen hizkeran aldakortasuna handiagoa dela eta forma berriak hedatu direla Busturialdeko hizkeretara. Alde batetik, superlatiboa adierazteko (egi) aldaerak indarra galdu du eta (lar-egi) forma pleonastikoa hedatu da gehienbat. Horrez gain, Muxikan aldaera berri bat agertu da: (larrei) aldaera; beraz, ohikoa da “Zure arkondarie larrei txikixe da” gisako esaldiak entzutea gazteen hizkeran.

4.1.20. Analisi geolinguistikoaren ondorio nagusiak

Analisi geolinguistikoa egin ondoren, argigarri gisa puntu nagusienak laburbilduko ditugu hurrengo ataletan.

4.1.20.1. (a) aldagaia

3.5.2.1.§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 23) Elantxoben beti gertatzen da *-a* artikulua asimilazioa; Bermeo, Mundaka, Ea eta Nabarnizen, ostera, gertatzen da baina ez beti. Gure ikerketan batu ditugun datuetan, ostera, ikusi dugu helduen kasuan hedatuago dagoela araua. Gure datuen arabera, Elantxobeko helduen hizkeran ez da beti asimilatzen artikulua, baina bai sarri. Bestalde, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Errigoiti, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu, Ereño eta Mendatan ere asimilatzen da artikulua helduen hizkeran, baina maiztasun gutxiagorekin.

Elantxobeko helduen hizkeran oso indartsua da artikulua asimilatzeko araua; baina, hala ere, ez da beti-beti gertatzen (%93ko maiztasunez). Esate baterako, guk honako datuak batu ditugu:

Nire semi etor de etxera kantaten
Astu gaixotu in de
Libru maixen ganin deu
Yosuri beti astuten datzo aterkixe artzi
Sure semik lagun bat dakatxue dxaten

Baina:

Nire alabie etor das(t) lorakas
Astion kanaixue il dast
Dzonek esan dos(t) Mikelek galdu deuela baloie
Anen atxitxe bertxolari famosue ixen san
Anek djosi deu alkondarien sillu

Esan daiteke, beraz, artikulua asimilatzen duen arauak ez duela patroia bat jarraitzen Busturialdeko hizkeretan, singularrean edozein bokalen aurrean gerta daiteke; gainerako arauak aplikatu ondoren “e” edo “a” asimila daiteke bokal altuen ostean; eta pluralean ere gertatzen da, baina ez beti.

Sukarrieta, Busturia, Murueta, Errigoiti, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu, Ereño eta Mendatan, ostera, esan daiteke abiadurarekin lotura handiagoa duela bilakabideak, izan

ere, inkesta egiterakoan artikulua asimilatu dela antzeman denean, esaldi bera astiroago errepikatzeke eskatu zaie lekukoei eta, herri hauetan, esaldia astiro errepikatzerakoan ez da artikulua asimilatu. Hori dela eta, lehenengoan *atzo úmiri platerak jeusi xakesan bera* esan bada, astiro errepikatzerakoan *úmiri plaerak jeusi xakesan bera* esan da.

4.1.20.2. (i_V) aldagaia

3.5.2.2.§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 184) Busturialdeko hizkera guztietan epentesi ahostuna da tartekatzen dena, Gernika inguruko herrietan ahoskabetze prozesua abian dela aitortzen duen arren. Gure ikerketan bildutako datuek geneukan hipotesia baieztatzen dute: gazteen hizkeran oso hedatua dago epentesi ahoskabea. Are gehiago, Foruko helduen hizkeran jada agertu zaigu epentesi ahoskabearen lekukotasuna. Hala ere, esan dugun moduan, Foruan (s) aldaera jaso dugun arren, horrek ez du esan nahi aldaketa herri honetatik abiatu denik. Ikerketa zehatzago bat beharko genuke aldaketaren nondik-norakoak zorrozki definitzeko. Foruko helduengan bildu dugun epentesi ahoskabea [j] txistukari sabaiaurrekoa izan da, gazteen hizkeran Murueta, Muxika eta Mendatan jaso dugun bezala. Bestalde, gazteen hizkeran, despalatalizazio nabarmena ari da gertatzen eta, ondorioz, Forua, Errigoiti, Gernika-Lumo, Ajangiz, Arratzu eta Gautegiz-Arteagan [s] frikari apiko-albeolare ahoskabea da gazteek tartekatzen duten epentesia. Beraz, pauso bat aurrerago joan da bilakabidea herri hauetan.

Bestalde, esan dugunez, /i+a, e, o/ tartean epentesia sartzea arauzkoa da sortaldeko azpieuskalkian; ez, oster, sartaldean. Busturialdeko herri guztietan epentesia tartekatzen denez, aldagai honi dagokionez sortaldeko azpieuskalkiarekin egiten du bat. Hala ere, Ensunzak (2012: 229) adierazten duenez, Gernika-Lumoko gazteen hizkeran, behintzat, hasi dira agertzen epentesi gabeko aldaerak ere. Ikusi beharko ondoko urteetan aldaera honek indarra hartzen duen ala ezerezean geratzen den.

4.1.20.3. (oa) aldagaia

3.5.2.3§ atalean zehaztu dugun bezala /o+a, e, o/>u egitea arauzkoa da sortaldeko azpieuskalkietan, baina sartaldean ez. Busturialdeko helduen hizkeran hedatuago dago

arau hau, beraz, sortaldeko azpieuskalkiekin egiten dute bat Gernika-Lumo, Ajangiz, Forua, Errigoiti, Morga, Muxika eta Arratzuk izan ezik. Hauetan *-oa* bere horretan mantentzen da, hitz jakin batzuetan (*pianue, karniserue*) izan ezik. Gazteen hizkeran ere antzeko eremua hartzen du aldagai honek, baina Sukarrieta, Murueta, Ibarrangelu eta Mendatan indarra galdu du eta *-oa* egiten hasi dira gazteak, ondoko herrietako hizkeren eraginagatik edota euskara estandarraren influentziagatik. Hori dela eta, (oa) aldagaiari dagokionez sartaldeko azpieuskalkiarengandik hurrago dago orain Busturialdea.

4.1.20.4. (i_a) aldagaia

3.5.2.4§ atalean zehaztu dugun bezala, Zuazoren arabera *i* eta *u* bokalek eraginda *a>e* egiteak ala ez egiteak sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkiak bereizteko balio du; izan ere, esan dugunez, sartaldean indartsuagoa da joera hau, sortaldean ezinezkoak diren inguruneetan gertatzen delako. Ezinezko ingurune horien artean daude *-gaz* soziatibo singularra, *bat* zenbatzailea, *izan* aditz laguntzailea klitikoa denean, silaba bakarreko atzizkiak, *-tzat* prolatiboa, *eta* juntagailua, etab.

Busturialdeko hizkeretan arau honek indar handia daukala esan daiteke, testuinguru gehienetan gertatzen baita. Hala ere, ez da sartaldean bezain indartsua; esate baterako, *-gaz* soziatibo singularrean ez da gertatzen, ezta *-tzat* prolatiboarekin ere.

Helduen kasuan herri guztietan gertatzen da, Nabarnizen eta Mundakan izan ezik; hauek sortaldeko azpieuskalkiarekin egiten dute bat. Gainontzeko herrietan, *bat* zenbatzailearekin, silaba bakarreko atzizkiekin, *eta* juntagailuarekin, partizipioa+*-ta* modalarekin, aditz laguntzailea+*-la* zein *-narekin*, *-ra* adlatiboarekin, etab. gauzatzen da. Indar gehien, Elantxobeko helduen hizkeran dauka, bertan Busturialdeko gainontzeko herrietan gertatzen ez den testuinguruetan gauzatzen delako, esaterako, *izan* aditz laguntzailea klitikoa denean eta *-tzat* prolatiboarekin.

Gazteen hizkeran, ordea, *i* bokala eta *j* bere kide irristariak osteko *a>e* bihurtzeko zuen indarra galduz doa eta ia Busturialdeko herri guztiak hartu ditu, Morga eta Mendata izan ezik. Beraz, Busturialdeko hizkerak sartaldeko azpieuskalkitik hurrago daude orain aldagai honi dagokionez.

4.1.20.5. (au) aldagaia

3.5.2.5§ atalean zehaztu dugun bezala, *-au-* diptongoa *-eu-* egiteko joera dago Bizkaiko alderdi zabalean (Zuazo 2014: 166) eta Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 23) Busturialdeko herri guztietan hala egiten da, Elantxobe eta Mundakan salbu. Gure hipotesiaren arabera, ostera, Busturialdeko herrien artean ikerketa hauetan erakusten dena baino aldakortasun handiagoa legoke aldagai honi dagokionez. Bildutako datuek hala dela erakutsi dute; izan ere, gure datuen arabera, 12 herritan bakarrik egiten da beti-beti *au>eu* helduen hizkeran. Mundaka, Gernika-Lumo, Kortezubi, Arratzu eta Nabarnizen ohikoena da, baina sarritan *au* diptongoa mantentzen da (%30-%50 artean); izan ere, pertsona berarengan jaso dugu, adibidez *eurrien* zein *aurrien* aldaera, edota *euzo* zein *auzo*, esate baterako.

Gaminderen datuen arabera, Mundakan eta Elantxoben *au* aldaera da bakarra; gure datuen arabera, ostera, helduen hizkeran Elantxoben *au* aldaera da bakarra, baina Mundakan *eu* aldaera da nagusi eta *au* aldaera %29ko maiztasunez erabiltzen da.

Esan dugunez, Busturialdeko kostako hizkeretan *-au->-eu-* bilakabidea arrotzagoa da barrualderagoko hizkeretan baino; baina, dirudienez, sasoi batean bilakabide hau Busturialdeko herri guztietan gauzatzen zen eta indarra galduz joan da. Honen adierazle da helduen hizkeratik gazteen hizkerara gertatutako aldaketa nabarmena. Hala ere, kontuan izan behar da *-au->-eu* bilakaera arrotza dela euskara estandarrean, beraz, ez da arriskutsuegia proposatzea hezkuntzan euskara estandarra baliatzeak helduen hizkeratik gazteen hizkerara gertatutako aldaketa hau eragin izana.

Gamindek eskaintzen duen maparen arabera (2007: 23), *au>eu* bilakabideak sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkiak bereizteko balio du; izan ere, bilakabidea arrotza da sortaldeko azpieuskalkian. Busturialdean gertatutako bilakabideari erreparatuz gero, esan daiteke aldagai honi dagokionez sortaldeko azpieuskalkitik hurrago dagoela gaur egun bertako hizkera.

4.1.20.6. (-atu) aldagaia

3.5.2.6§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen (2007: 140) maparen arabera (-atu) aldagaiari dagokionez Busturialdea barrualdeko eta kostaldeko herrien artean dago

banaketa nagusia. Mailegatutako aditzekin partizipioa *-a* amaierarekin egiten da Busturialdeko kostako herrietan (Bermeo, Mundaka, Busturia, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu, Elantxobe eta Ea); *-eu* egiten da barnealdeko hizkeretan sartaldeko azpieuskalkiarekin bat eginez (Forua, Errigoiti, Muxika, Gernika-Lumo, Ajangiz, Kortezubi eta Mendatan); eta *-au* egiten da sortaldeko azpieuskalkietatik hur dauden herrietan (Ereño, Nabarniz). Muruetan, ostera, *a* eta *eu*, biak egiten direla dio Gamindek. Gure hipotesiaren arabera, ostera, Gamindek Muruetarako ematen duen aldakortasun hori Busturialdeko hizkeretan hedatuago egon behar dela izan da eta, gure datuek, hala dela erakutsi dute.

Alde batetik, gure datuen arabera, Busturialdeko hizkeretan aldaera monoptongatuak dira nagusi, bai helduen hizkeran, bai gazteenean. Diptongoak, Gamindek aipatutako Ereño eta Nabarnizen erabiltzeaz gain, Ea eta Gernika-Lumon ere %100ean erabiltzen dira; Busturia, Forua, Ajangiz eta Muxikan, ostera, aldaera monoptongatuarekin batera. Gainerako herrietan, aldaera monoptongatua soilik lekukotu dugu. Gazteen hizkeran, ordea, aldaera diptongatua galtzen ari da, baina Ereño eta Nabarnizen mantendu egin da, sortaldeko azpieuskalkiarekin bat eginez.

Beste alde batetik, gure datuak bat datoz Gaminderen datuekin; izan ere, partizipioa egiteko erabiltzen den bokala aztertu dugunean ikusi dugu kostaldeko hizkeren artean eta barrualdeko hizkeren artean dagoela desberdintasun nagusia; kostan *a/au* amaieradun partizipioa egiten da; eta, barrualdean, *e/eu*. Kostaldeko eta barrualdeko hizkeren arteko banaketa egiteaz gain, sartalde eta sortaldeko banaketa egiteko ere balio digu ezaugarri honek; izan ere, Gaminderen datuetan oinarriturik, esan daiteke sartaldean *eu* egiten dela partizipioa eta sartaldean, berriz, *a/au*. Hori dela eta, gure datuen arabera Busturialdeko kostaldeko hizkerek bat egiten dute sortaldeko azpieuskalkiarekin eta, barrualdeko hizkerek sartaldeko azpieuskalkiarekin.

4.1.20.7. (dau) aldagaia

3.5.2.7§ atalean zehaztu dugun (dau) aldagaia ez du kontuan hartzen Gamindek bere 2007ko lanean eta, beraz, ezin dezakegu bere datuekin kontrastatu. Hala ere, badu beste lan bat 1984-1985 artean argitaratua eta, bertan, Bizkaiko hainbat herritako

ezaugarrien zerrendak eta mapak ematen ditu. Horien arabera, Zuazok sortaldeko azpieuskalkian sailtatutako herrietan *dau* aldaera erabiltzen da eta sortaldekoetan *deu*.

Gure datuetatik ateratako ondorio nagusia da kostaldeko hizkerak eta barrualdekoak desberdintzeko balio duela aldagai honek; izan ere, esan dugunez, (dau) aldaera erabiltzen dute kostaldeko hizkerak eta (deu) aldagaia barrualdekoek. Gainera, helduen hizkeratik gazteen hizkerara ez da aldaketa nabarmenik gertatu.

4.1.20.8. (-tzen) aldagaia

3.5.2.8§ atalean zehaztu dugun (-tzen) aldagaiak, Gaminderen azterketaren arabera kostaldeko eta barrualdeko hizkerak bereizteko balio du Busturialdeko herrietan; izan ere, aspektu ez-burutua egiteko *-au/-eu* amaiera daukaten aditzekin *-etan* erabiltzen da Busturialdeko barrualdeko hizkeratan eta *-ten* kostaldekoetan. Gure datuak bat datoz Gaminderen datuekin, Muruetako datuak izan ere. Harenean *-etan* sailkatzen da, baina gure datuetan *-ten* batu dugu helduen hizkeran; gazteen hizkeran, ostera, *-etan*.

4.1.20.9. (edun) aldagaia

3.5.2.9§ atalean zehaztu dugun (edun) aldagaiaren barruan bi elementu aztertu ditugu; batetik, *u* bokalaren kontsonantizazioa gertatzen den ala ez; eta, bestetik, “hark” subjektuaren morfema *s-* den ala 0.

Gamindek 2007ko lanean “hark”en morfema soilik aztertzen du eta, bertan, Busturialdeko hizkeretatik Bermeon eta Mundakan soilik lekukotzen du (s) aldaera. Gure datuetan, ostera, Muxikako gazteen hizkeran ere lekukotu dugu aldaera hau.

Bestetik, gure datuetan oinarrituta esan dezakegu aldagai honi dagokionez sortaldeko azpieuskalkietatik hurrago dagoela Busturialdeko hizkera, *u* bokalaren kontsonantizazioa gertatzen baita herri gehienetan. Hala ere, ez dirudi beti horrela izan denik, helduen hizkeran oraindik kontsonantizatu gabeko formen arrasto ugari baitaude; gazteen hizkeran, ostera, urriagoak dira honen adibideak.

4.1.20.10. (j-) aldagaia

3.5.2.10§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 33) Busutialdean dagoen banaketa nabarmenena kostaldeko eta barrualdeko hizkeren artekoa da. Kostaldean, sartaldean bezala eta Lea-Artibaiko Ispaster eta Lekeition bezala, “dx” afrikatu auresabaikari ahostuna egiten dela dio Gamindek; barnealdeko hizkeretan, ostera, sortaldeko gainerako hizkeretan eta Durangaldean bezala “j” frikari belare ahoskabea lekukotzen du.

Gure ikerketako datuak, oro har, bat datoz Gamindek egindako banaketarekin, baina ez erabat. Gamindek Ibarrangelun ere “dx” egiten dela dio; guk, ordea, (j) aldaera bakarrik lekukotu dugu. Busturian ere, Gamindek “j” bakarrik egiten dela dio; baina gure datuen arabera (z) aldaera da nagusi eta (j) aldaera ere lekukotzen da. Bestalde, Gamindek Bermeon “dx” lekukotu du, baina gure datuetan (y) eta (j) aldaerak ere erabiltzen direla ikusi dugu. Gazteen hizkeran, ostera, (dz) eta (z) aldaera sabaiaurreko ahostunak galduz doaz eta (j) aldaera nagusitzen ari da. Beraz, esan daiteke Busturialdeko hizkerak sortaldeko azpieuskalkitik hurrago daudela gaur egun aldagai honi dagokionez.

4.1.20.11. (zait) aldagaia

3.5.2.11§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 33) Busturialdeko hizkeretan batasun handia dago aldagai honi dagokionez, herri guztietan egiten baita “dx” salbu eta Kortezubi, Gautegiz-Arteaga (+dx) eta Elantxoben; hauetan “d” egiten da.

Gure datuen arabera, ostera, egoera bestelakoa da. Egia da helduen hizkeran nagusi direna (dz) eta (z) aldaera sabaiaurreko ahostunak, beraz, sortaldeko azpieuskalkiarekin egiten du bat zentzu honetan. Egia da baita Gautegiz-Arteagan eta Elantxoben (d) aldaerak direla nagusi. Kortezubin, ostera, aldaera guztiak lekukotu dira gure datuetan, bai sabaiaurreko ahostunak, bai (d), bai (y) ere. Gainera, Kortezubi, Gautegiz-Arteaga eta Elantxoben ez eze, Bermeo, Busturia, Murueta eta Ibarrangeluko helduen hizkeran ere lekukotu dugu (d) aldaera, beraz, sartaldeko azpieuskalkiekin datoz bat. Bestalde, helduen kasuan Bermeo, Mundaka, Forua eta Muxikan (y) aldaera da nagusi gure

datuetan, baina ez bakarra, hauetan sabaiurreko ahostunak ere erabiltzen baitira, beraz, hauek ere sartaldeko azpieuskalkiekin datoz bat.

Gazteen hizkeran, ostera, aldaera sabaiurreko ahostunak lekua galduz doaz, Nabarniz, Mendata eta Ean izan ezik; hauek bat datoz sartaldeko azpieuskalkiarekin oraindik. Horren lekua sartaldeko (y) aldaerak hartu du Busturialdea barnealdeko hizkeretan; kostaldean, ostera, (d) aldaera nagusitu da. Beraz, aldaera honek batetik kostaldeko eta barrualdeko hizkerak banatzen ditu gaur egun; eta bestetik, sartaldeko hizkerekin bat datozenak eta sartaldekoekin bat datozenak.

4.1.20.12. (it) aldagaia

3.5.2.12§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 39) aldagai honek kostaldeko eta barrualdeko euskalkiak bereizteko balio du; izan ere, kostaldeko hizkeretan (tx) aldaera erabiltzen dela dio eta (tt) barnealdean. Horrez gain, (tx) aldaera kostaldetik barrurantz zabalduz doala adierazten du. Gure datuak ere bat datoz Gaminderen datuekin. Hala ere, gure helduen kasuan (tx) aldaera hedatuago ageri da Gaminderen datuetan baino. Izan ere, Murueta, Korteziubi eta Nabarnizen hau da lekukotu dugun aldaera bakarra; Gernika-Lumon (tt %40) aldaera nagusia eta Foruan eta Ean (tx) aldaerarekin batera. Bestalde, Ibarrangelun ere lekukotu dugu (tt) aldaera (%40), baina Gaminderen arabera (tx) soilik erabiltzen da.

Gazteen hizkeran, ostera, aldakortasun handia dagoela ikusi dugu eta herri askotan (tz) erabiltzen hasi direla gazteak. Batez ere kostako herrietan eta Gernika-Lumotik hur daudenetan gertatu da aldaketa hau. (tt) aldaera zaharra, ostera, galduz doa; izan ere, Morga eta Mendatan soilik mantentzen da, eta Nabarnizen (tx) aldaerarekin batera erabiltzen da.

(it) aldagaiaren aldaerek iradokitzen dute afrikatuak neutralizatu egin direla Busturialdeko zenbait hizkeretan; izan ere, helduek (tt), (tx) eta (tz) arteko bereizketa egiten baitute, baina gazteek denak berdin ahoskatzen dituzte, dela (tx), dela (tz)¹³.

¹³ (tt) ahoskatzen den eremutik kanpo

Beraz, helduek [kotʃe], [ajcice] eta [atʃo] desberdintzen badituzte ere, gazteek berdin esaten dituzte guztiak.

4.1.20.13. (ind) eta (ild) aldagaiak

3.5.2.13§ atalean zehaztu dugun bezala, (ind) eta (ild) aldagaiak ez du sartalde edo sortaldeko azpieuskalkien arteko banaketarik egiten, bietan baitira ezagunak aldaera palatalizatuak. Gaminderen ikerketaren arabera (2007: 39) Busturialdeko hizkera guztietan egiten da “y”, baina Bermeoko eta Gernikako informatzaile gazte askok “dx” egiten dutela adierazten du.

Gure datuen arabera, helduen hizkeran banaketa nabarmena dago Busturialdea mendebaleko eta ekialdeko hizkeren artean; mendebaleko hizkeretan helduek beti darabiltzate forma palatalizatuak eta ekialdean ez. Nabarnizen arrotzak dira forma palatalizatuak. Gazteen kasuan, ostera, ikusi dugu forma ez palatalizatuak ari direla nagusitzen. Aldaera palatalak arrotzak direnez euskara estandarrean, uste dugu ez dela ausartegia proposatzea hezkuntzan euskara estandarra baliatzeak helduen hizkeratik gazteen hizkerara gertatutako aldaketa hau eragin duela.

4.1.20.14. (-kin) aldagaia

3.5.2.14§ atalean zehaztu dugun bezala, Zuazoren arabera sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkiak banatzen dituen ezaugarrietako bat da hau, sartaldean erabat arrotza baita (-kin) aldaera. Gamindek Busturialdeko ekialdeko hizkeretan lekukotu du (-kin) aldaera, sortaldeko azpieuskalkitik hurren dauden hizkeretan. Ereño, Nabarniz, Mendata, Kortezubi eta Ajangizen forma bakarra dela dio; Ea, Ibarrangelu, Elantxobe, Gautegiz-Arteaga, Forua, Busturia eta Mundakan, ostera, biak erabiltzen direla dio.

Gure datuen arabera, ostera, helduen hizkeran Nabarniz, Mendata eta Kortezubiz gain Ibarrangelu eta Ean da forma bakarra; Sukarrietan aldaera nagusia; eta Arratzu eta Ereñon (kaz) da nagusi, baina (kin) ez da arrotza. Dena dela, Busturialdeko hizkeretan (kin) sozietiboa galduz doa gazteen hizkeran eta haren lekua (kaz) sozietiboak hartu du, beraz, sartaldeko azpieuskalkitik hurrago dago gaur egun.

Kasu honetan, (kaz) aldaera euskalkiko identitariotzat hartu dela esan daiteke, *-kin* izanik hezkuntzan euskara estandarrean erakusten den forma bakarra ez duelako euskalkian errotzerik lortu. Are gehiago, helduen hizkerako *-kin* horiek sarritan estandarreko formatzat hartu izan dituzte lekuko gazteek, helduaroan euskaraz alfabetizatu den pertsonaren ezaugarritzat, jakin gabe Busturialdeko hizkeretan forma hori arrunta zela euskara estandarren aurreko sasoieta.

4.1.20.15. (joan-eroan) aldagaia

3.5.2.15§ atalean zehaztu dugun bezala, Zuazoren arabera (2014: 182) sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkiak bereizteko balio du aldagai honek, sortaldeko eremu zabalean *-i-* sartzen baita *joan* eta *eroan*-en adizkietan.

Busturialdean banaketa garbia eta antzekoa dauka bai helduen hizkeran, bai gazteen hizkeran; beraz, ez denez aldaketa nabarmenik gertatu helduen hizkeratik gazteen hizkerara, lehengo banaketa bera dago orain ere.

Alde batetik, Busturialdeko mendebaleko kostako hizkerak ditugu, *due/darue* formak erabiltzen dituztenak; bestetik, barrualdeko hizkerak ditugu, sartaldeko azpieuskalkian eta euskara estandarrean bezala *doa/daroa* formak erabiltzen dituztenak; eta, azkenik, ekialdeko eta ekialde kostako hizkerak ere bat datoz, *-i-dun* formak erabiltzen baitira, sortaldeko azpieuskalkietan bezala.

4.1.20.16. (bi) aldagaia

3.5.2.16§ atalean zehaztu dugun bezala, euskara estandarren eraginez *bi* zenbatzailea izenaren eskumatara beharrean (*bat* zenbatzailea bezala), izenaren ezkerretara jartzeko joera areagotu egin da gazteen hizkeran. Hori dela eta, berez mendebaldeko euskalkien ezaugarria zena galtzen ari da abiadura handian.

4.1.20.17. (hau) aldagaia

3.5.2.17§ atalean zehaztu dugun bezala, euskara estandarraren eraginez erakusleak izenaren ezkerretara beharrean, izenaren eskumatara jartzeko joera areagotu egin da gazteen hizkeran. Hori dela eta, berez mendebaldeko euskalkien ezaugarria zena galtzen ari da abiadura handian.

4.1.20.18. (loi) aldagaia

3.5.2.18§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen arabera (2007: 89) predikatua “egon” aditzarekin batera artikuluekin erabiltzea sortaldeko azpieuskalkien ezaugarria da. Busturialdean, ekialdeko hizkeretan lekukotzen du eta gure datuak ere bat datoz bereekin; hala ere, helduen hizkeran Muxika, Kortezubi eta Mendatan ere jaso dugu. Gazteen hizkeran, ostera, artikulua gabe erabiltzeko joera nagusitu da eta, beraz, Busturialdea sartaldeko azpieuskalkietatik hurrago dago gaur egun aldagai honi dagokionez.

4.1.20.19. (lar) aldagaia

3.5.2.19§ atalean zehaztu dugun bezala, Gaminderen arabera (2007: 91) superlatibozko graduatzailea egiteko Busturialdean erabiltzen den atzizki nagusia da *-egi*, baina hainbat herritan *lar* ere erabiltzen da; hala nola, Muxika, Errigoiti, Forua eta Gernikan.

Gure datuen arabera ere *-egi* da nagusi Busturialdeko hizkeretan, baina *lar* atzizkia, bere horretan, Muxikan bakarrik lekukotu dugu. Ibarrangelu, Bermeo, Gautegiz-Arteaga, Ereño eta Nabarnizen, ostera, forma pleonastikoak aurkitu ditugu; hau da, *kotxie lar aurrerei aparkau dot* gisako esaldiak jaso ditugu helduen hizkeran jada. Gazteen hizkeran, espero zitekeen bezala, nahasketa nabarmenagoa da eta forma pleonastikoen erabilera hedatu egin da.

4.2. Analisi estatistikoa

Atal honetan 3.4§ atalean definitutako aldagaien analisi estatistikoa egingo dugu. Horretarako, DiaTech programaren bidez egindako grafikoak eskeiniko ditugu, hizkuntza-aldagai bakoitzaren aldaerak zein maiztasunez erabiltzen diren herri bakoitzean aztertzeko eta, era berean, helduen hizkeratik gazteen hizkerara gertatutako aldaketak konparatuko ditugu. Grafikoetako emaitzak SPSS programa estatistikoarekin datuekin osotuko ditugu, hizkuntza-aldagaiak adinaren eta herriaren arabera esanguratsuak diren ala ez jakiteko. Horrez gain, herri bakoitzean adin-tarte desberdinen artean dagoen aldea esanguratsua den ala ez zehazteko ere analisi estatistikoa egingo dugu.

Estatistikan, emaitza bat estatistikoki esanguratsua dela esaten da emaitza hori zorizkoa izan ezin daitekeenean. Test baten esanguratasun maila hipotesi baten baieztatzearekin lotuta egoten da, hipotesi nuloa benetakoa denean berau baztertzeko erabakia hartzeko ("1. klaseko akats" gisa ezagutzen den erabakia, "faltsu positiboa") probabilitate gisa definitzen dena. Erabakia p baloreari begiratuta hartzen da normalean: p balorea esanguratasun maila baino txikiagoa bada, hipotesi nuloa baztertu egiten da. Zenbat eta bajuagoa izan p balorea, esanguratsua izango da emaitza.

Estatistikan, esanguratasun maila α (alfa) sinbolo grekoaren bidez adierazten da eta komunak diren esanguratasun mailak 0,05, 0,01 eta 0,001 dira. Hipotesien arteko kontraste batek α baino p balore txikiagoa eskaintzen badu, hipotesi nuloa baztertu egiten da eta emaitza hori "estatistikoki esanguratsua" dela esaten da (Schervish 1996).



Aldea estatistikoki esanguratsua izan dadin, emaitzetan $p < 0,05$ atara behar da; hau da, 0,05 baino txikiagoa izan behar da p balorea; bestela, gure kasuan adinaren araberrako aldea ez dela estatistikoki esanguratsua esan nahi du.

4.2.1. Adinaren araberrako analisi estatistikoa

Atal honetan hizkuntza-aldagai bakoitzak dituen aldaerak helduen hizkeratik gazteen hizkerara jasandako aldaketak konparatuko ditugu; zein maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza bai helduek, bai gazteek eta bien arteko aldeak neurtuko ditugu.

4.2.1.1. (a) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.1§ atalean deskribatutako (a) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (+a) aldaera eta (-a) aldaera. 4.1.1. (a) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 1. eta 2. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



1. eta 2. grafikoetan ikusten denez, helduen kasuan Elantxobekoak dira (-a) aldaera (gorriz) gehien erabiltzen dutenak (%93) eta bere atzetik Nabarniz (%55), Bermeo (%52) eta Ea (%50); guztiek ere kasuen %50etik gora erabiltzen dute (-a) aldaera. Beraz, herri hauetan ohiko forma artikulua asimilatuta erabiltzea da. Ikus daitekeenez, helduek (-a) aldaera erabiltzen duten herri gehienetan behera egin du gazteen hizkeran: Busturian %17tik %5era (-%12); Ereñon %22tik %14ra (-%8); Errigoitin %2tik %0ra (-%2); Gautegiz-Arteagan %16tik %0ra (-%16); Ibarrangelun %20tik %18ra (-%2);

Muruetan %2tik %0ra (-%2); Mendatan %15etik %7ra; Sukarrietan %9tik %5era (-%4); Bermeon %52tik %14ra (-%38) eta Nabarnizen %55etik %5era (-%50). Azken bi herrietan nabarmen egin du behera (-a) aldaerak.

Bestalde, Elantxobeko hizkeran kontrakoa gertatu da: helduek kasuetatik %7an artikulua asimilatu gabe erabiltzen dute; baina, gazteek, araua muturrera eraman dute eta %100ean asimilatzen dute artikulua. Honek adierazten du Elantxobeko gazteek aldaera hori herriko bereizgarritzat hartu dutela, nortasuna ematen dien ezaugarritzat eta horregatik nabarmendu egin dute, gainontzeko herrietako hizkeretatik bereiziz.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (a) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,547) 145,500$; $p < *0,123$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	17,78	355,50
	2,00	20	23,23	464,50
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	145,500
W de Wilcoxon	355,500
Z	-1,547
Sig. asintótica (bilateral)	,122
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,142 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.2. (i_V) aldagaia


Esan bezala, 3.5.2.2§ atalean deskribatutako (i_V) aldagaiak lau aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (z) aldaera, (s) aldaera, (x) aldaera eta (0) aldaera¹⁴. 4.1.2. (i_V) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 3. eta 4. grafikoei erreparatu gero, oster,

¹⁴ Gogoratu 4.1.2. (i_V) aldagaia § atalean aipatu dugula Ensuzak (2012:229) (0) aldaeradun gauzapean jaso dituen arren, ikerketa honetan ez dugula horrelakorik jaso ahal izan.

ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



3. Grafikoa: (i_V) aldagaia helduengan herrika



4. Grafikoa: (i_V) aldagaia gazteengan herrika

3. eta 4. grafikoek 24 eta 25. mapetako datuak berresten dituzte eta, beraz, ez ditugu errepikatuko. Baina aipatu behar da gure datuen arabera hiztun berarengan ez dagoela aldakortasunik ezaugarri honi dagokionez; hau da, aldagai bat erabiltzen duenak aldagai hori eta soilik hori erabiltzen du, ez besterik. Izan ere, lekuko guztiek %100ean erabiltzen dute aldaera bata edo bestea.

(i_V) aldagaiak aldaera bitik gora dituzenez, SPSS bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (z) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,884) 120,000; p < 0,005$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	24,50	490,00
	2,00	20	16,50	330,00
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	120,000
W de Wilcoxon	330,000
Z	-2,884
Sig. asintótica (bilateral)	,004
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,030 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(x) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,416) 170,000; p < *0,158$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,00	380,00
	2,00	20	22,00	440,00
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	170,000
W de Wilcoxon	380,000
Z	-1,416
Sig. asintótica (bilateral)	,157
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,429 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(s) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,623) 140,000; p < *0,010$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	17,50	350,00
	2,00	20	23,50	470,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a


	emaitza
U de Mann-Whitney	140,000
W de Wilcoxon	350,000
Z	-2,623
Sig. asintótica (bilateral)	,009
Significación exacta [2*(sig. unilaterial)]	,108 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.3. (oa) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.3§ deskribatutako (oa) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (oa) aldaera eta (ue) aldaera. 4.1.3. (oa) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 5. eta 6. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:





6. Grafikoa: (oa) aldagaia gazteengan herrika

5 eta 6. grafikoetan ikusten dugunez, (oa) aldaera eta (ue) aldaera ez dute herri guztiek maiztasun beraz erabiltzen. Helduen kasuan, Arratzun, Errigoitin, Foruan eta Morgan %14ko maiztasunez agertzen da (ue) aldaera (berdez); Kortezubik, ostera, %87ko maiztasunez. Izan ere, (ue) aldaera %14ko maiztasunez erabiltzen duten herrietan, berba jakinetan bakarrik erabiltzen dute. Herri horietan (oa) aldaera da nagusi (zuriz), baina badaude berba batzuk, -oa amaiera duten arren, tradizio edo ohituragatik -ue amaitzen direnak. Gure ikerketan, berba hauek izan dira antzeman ditugunak: *pianue* eta *karniserue*. Esaldi baten baino gehiagotan sartu ditugu berba hauek eta aipatutako herrietan -oa amaitu arren berba guztiak, bi hauek -ue amaitzen izan dituzte kasu guztietan.

Bestalde, esan dugu Kortezubiko helduen hizkeran %87ko maiztasunez jaso dugula (ue) aldaera; beraz, %13ko maiztasunez (oa) aldaera. Honek adierazten du herri horretan idiolektoen arabeko aldakortasuna dagoela (oa) aldagaiari dagokionean eta aldaera biak erabiltzen direla, bata orain, bestea gero. Horregatik, ez da harritzekoa gazteen hizkeran (ue) aldaera galduz joatea, estandarren eraginpean. Gainontzeko herrietan, ostera, ondo definituta dago aldaera bata edo bestea.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (oa) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,718) 175,500$; $p < *0,474$):

Rangos				
	adina	N	Rango prom	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,28	385,50
	2,00	20	21,73	434,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a


	emaitza
U de Mann-Whitney	175,500
W de Wilcoxon	385,500
Z	-,718
Sig. asintótica (bilateral)	,473
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,512 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.4. (i_a) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.4§ atalean deskribatutako (i_a) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (i_a) aldaera eta (i_e) aldaera. 4.1.4. (i_a) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 7. eta 8. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:





8. Grafikoa: (i_a) aldagaia gazteengan herrika

7 eta 8. grafikoetan interesgarria da aldakortasuna duten herriei erreparatzea. Esate baterako, Kortezubin bai helduek bai gazteek (i_a) eta (i_e) aldaera biak erabiltzen dituzte eta bien kasuan (i_a) aldaera da nagusi (larrosaz). Hala ere, helduen kasuan (i_a) aldaera %81eko maiztasunez erabiltzen da eta (i_e) %19ko maiztasunez. 7. grafikoari erreparatuta ikus daiteke (i_a) aldaeraren erabilera gora egin duela gazteen hizkeran %94ko maiztasunez erabiltzen baitute (+%13) eta (i_e) aldaera, berriz, %6ra bajatu da (-%13).

Beste alde batetik, ikus daiteke helduen kasuan (i_e) aldaera bakarra den hizkeretan eta gazteen hizkeran (i_a) aldaera erabiltzen hasi den kasuetan, %50etik gorako maiztasunez erabiltzen dutela gazteek aldaera berria: Gernikan %56, Gautegiz-Arteagan %72 eta Elantxoben %83. Ajangizen maiztasuna aurrekoetan baino txikiagoa bada ere, (i_a) aldaeraren erabilera altua da gazteen hizkeran (%41).

Azkenik, helduen hizkeretan (i_e) aldaera nagusi, baina ez bakar, izanik gazteen hizkeretan (i_a) nagusitu den hizkeretan, ikus daiteke helduek eurak ere maiztasun handiz erabiltzen zutela (i_a) aldaera: Foruan %45 eta Ibarrangelun %44. Beraz, ez da harritzekoa gazteen hizkeran Foruan %73ko maiztasunez erabiltzea (i_a) aldaera eta Ibarrangelun erabat nagusitu izana.

Hala ere, (i_a) aldagaiari dagokionez aldaketa handiena jasan duten herriak Busturia, Ea, Muxika, Sukarrieta, Ereño eta Errigoiti izan dira; hauetan, helduen hizkeran (i_e) aldaera bakar izatetik gazteen hizkeran ez erabiltzera pasatu dira, hauek (i_a) aldaera bakarrik erabiltzen baitute gaur egun.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (i_a) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -3,309) 82,000$; $p < 0,002$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	14,60	292,00
	2,00	20	26,40	528,00
Total		40		


Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	82,000
W de Wilcoxon	292,000
Z	-3,309
Sig. asintótica (bilateral)	,001
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,001 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.5. (au) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.5§ atalean deskribatutako (au) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (au) aldaera eta (eu) aldaera. 4.1.5. (au) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 9. eta 10. grafikoei erreparatuz gero, oster, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:





10. Grafikoa: (au) aldagaia gazteengan

9 eta 10. grafikoetan (au) aldagaiari dagokionez aldakortasuna erakusten duten hizkeren datuak dira interesgarriak. Alde batetik, Foruan (au) aldagaia (zuriz) arrotza izatetik %71ko maiztasunez erabiltzera pasatu da; Morgan eta Ajangizen igoera apalagoa izan da, %64ko maiztasunez erabiltzen baitute gazteek, baina hala ere zenbateko altua da denbora-tartea kontuan izanez gero. Igoera apalena Ereñon izan da, %57ko maiztasunez erabiltzen baitute gazteek.

Bermeon (au) aldaera (zuriz) %63ko maiztasunez erabiltzen dute helduek eta, gazteen hizkeran, erabat nagusitu da (+%37). Sukarrietan, ostera, maiztasun gutxiagoz erabiltzen bazen ere (%57), gazteen hizkeran ere gailendu egin da (+%43). Beste alde batetik, (au) diptongoaren igoera nabarmena gertatu da Nabarniz eta Mundakan; izan ere, helduek %29ko maiztasunez erabiltzen dute eta gazteen hizkeran, ordea, erabat nagusitu da (+%71).

Gernika-Lumon irauli egin da egoera, helduek (eu) aldaera %71ko maiztasunez erabiltzen baitute eta gazteek, ostera, (au) aldaera erabiltzen dute maiztasun horretaz (+%42). Kortezubin ere gora egin du (au) aldaeraren erabilerak, helduek %43ko maiztasunez erabiltzen baitute eta, gazteek, %60 (+%17).

Bestalde, Arratzu eta Elantxoben kontrako norabidean gertatu da aldaketa, (eu) aldaera izan baita gora egin duena (morez). Arratzun %71ko maiztasunez erabiltzen dute helduek eta gazteen hizkeran berau da bakarra. Elantxoben, ordea, (au) aldaera zen bakarra, baina gazteen hizkeran (eu) aldaera %18ko maiztasunez erabiltzen da.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (au) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,116) 127,000$; $p < *0,035$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	16,85	337,00
	2,00	20	24,15	483,00
Total		40		


Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	127,000
W de Wilcoxon	337,000
Z	-2,116
Sig. asintótica (bilateral)	,034
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,049 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.6. (-atu) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.6§ atalean deskribatutako (-atu) aldagaiaren 4 aldaera daude Busturialdeko hizkeretan: (au) aldaera, (a) aldaera, (eu) aldaera eta (e) aldaera. 4.1.6. (-atu) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 11. eta 12. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



11. Grafikoa: (-atu) aldagaia helduengan, (eu)/(au) vs. (e)/(a)



12. Grafikoa: (-atu) aldagaia gazteengan, (eu)/(au) vs. (e)/(a)

Diptongodun aldaera eta aldaera monoptongatua, biak erabiltzen dituzten hizkerari erreparatuz gero, 11 eta 12. grafikoetan ikus daiteke, esate baterako, Ajangizeko helduek (eu) aldaera %29ko maiztasunez erabiltzen dutela eta %71ko maiztasunez (e) aldaera; gazteen hizkeran, ordea, (e) aldaera nagusitu da eta aldaera monoptongatu hori da erabiltzen duten bakarra. Gauza bera gertatu da Muxikan ere: helduek %16ko maiztasunez erabiltzen dute (eu) aldaera eta %84ko maiztasunez (e) aldaera; gazteek, ordea, (e) aldaera monoptongatua soilik baliatzen dute. Busturian ere berdina gertatu da, baina *-au/-a* formekin; hau da, helduek %11ko maiztasunez erabiltzen dute (au) aldaera eta %89ko maiztasunez (a) aldaera, baina gazteen hizkeran (a) aldaera monoptongatua bakarrik erabiltzen da. Foruan ere (e) aldaera monoptongatuaren erabilerak gora egin du gazteen hizkeran, baina ez da erabat nagusitu; izan ere, helduek %72ko maiztasunez erabiltzen dute eta gazteek %83ko maiztasunez. Ea eta Gernika-Lumon, ostera, aldaera diptongatua %100 erabiltzetik aldaera monoptongatua %100 erabiltzera pasatu dira, beraz, hauetan bilakabidea guztiz gauzatu da.

Beste alde batetik, (e) aldaera monoptongatua bakarra da Arratzu eta Mendatako helduen hizkeran, baina gazteenean (eu) aldaera diptongatua agertzen hasi da; %22ko maiztasunez Arratzun; %83ko maiztasunez Mendatan. Azpimarratzekoa da Mendatako gazteen hizkeran aldaera diptongatuak daukan maiztasun altua, kontuan izanik helduek aldaera monoptongatua bakarrik erabiltzen dutela. Dena dela, herrian dagoen aldakortasuna ikusita eta ondoko hizkeretan erabiltzen diren aldaerak kontuan hartuta, aurrerago aztertu beharko litzateke zein aldaera den urteek aurrera egin ahala gailentzen dena.

Aldagai honek eskaintzen duen bigarren analisian (34 eta 35. mapetan ikusitako (eu) eta (e) aldaerak vs. (au) eta (a) aldaerak), ostera, 11. eta 12. grafikoetan ikus daiteke aldaketa nabarmena gertatu dela Gauegiz-Arteaga eta Muruetako helduen hizkeratik gazteen hizkerara. Izan ere, helduek dela *-a* aldaeradun formak %100eko maiztasunez erabiltzen dituzte eta gazteek, ostera, *-e* aldaeradun formak erabiltzen dituzte %100eko maiztasunez.

(-atu) aldagaiak bi analisi egiteko aukera eskaintzen duenez, *SPSS* bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak bereiz aztertu behar dira hauetan adinak duen eragina jakiteko. Batetik, diptongodun aldaera eta aldaera monptongatuaren ((eu) eta (au) aldaerak vs. (e) eta (a) aldaerak) erabileraren arteko desberdintasuna ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,010) 169,000; p < *0,314$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	22,05	441,00
	2,00	20	18,95	379,00
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	169,000
W de Wilcoxon	379,000
Z	-1,010
Sig. asintótica (bilateral)	,313
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,414 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

Bestetik, erabiltzen den bokalaren araberrako ((eu) eta (e) aldaerak vs. (au) eta (a) aldaerak) desberdintasuna ere ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,624) 180,000; p < *0,533$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,50	390,00
	2,00	20	21,50	430,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a


	emaitza
U de Mann-Whitney	180,000
W de Wilcoxon	390,000
Z	-,624
Sig. asintótica (bilateral)	,532
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,602 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.7. (dau) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.7§ atalean deskribatutako (dau) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (dau) aldaera eta (deu) aldaera. 4.1.7. (dau) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 13. eta 14. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



13. Grafikoa: (dau) aldagaia helduengan



14. Grafikoa: (dau) aldagaia gazteengan

13 eta 14. grafikoetan ikusten denez, Ereñoko helduen hizkeran (dau) aldaera %40ko maiztasunez erabiltzen da eta (deu) aldaera %60ko maiztasunez; baina gazteen hizkeran lehen gutxiengoa zena gailendu da eta (dau) aldaera da nagusi eta bakar.

Gainerako hizkeretan, ostera, aldaera bata edo bestea erabiltzen da %100ean, beraz, Busturialdeko hizkeretan aldakortasuna geografikoa da, soziolinguistikoa baino gehiago.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (dau) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,466) 187,500$; $p < *0,642$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,88	397,50
	2,00	20	21,13	422,50
Total		40		


	emaitza
U de Mann-Whitney	187,500
W de Wilcoxon	397,500
Z	-,466
Sig. asintótica (bilateral)	,641
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,738 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.8. (-tzen) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.8§ deskribatutako (-tzen) aldagaiak hiru aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (-taten) aldaera, (-teten) aldaera eta (-tetan) aldaera. 4.2.8. (-tzen) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 1. eta 2. grafikoei erreparatu gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



15. Grafikoa: (tzen) aldagaia helduegan



16. Grafikoa: (tzen) aldagaia gazteengan

15 eta 16. grafikoak konparatu gero ikus daiteke, aldakortasun linguistikoa duten hizkeren artean Ibarrangelun %29ko maiztasunez erabiltzen dutela helduek (tetan) aldaera (urdinez) eta %71eko maiztasunez (taten) aldaera (berdez), gazteen hizkera aldaera bakar bihurtu dena. Gauegiz-Arteagan eta Busturian, ordea, kontrako prozesua gertatu da; izan ere, helduen hizkeran Gauegiz-Arteagan (taten) aldaera bakarra da eta gazteen hizkeran, ostera, %67ko maiztasunez erabiltzen da eta (tetan) aldaera %33ko

maiztasunez. Busturian, (taten) aldaera %57ko maiztasunez erabiltzen dute helduek eta (teten) aldaera %43ko maiztasunez (zuriz); gazteek, ostera, (taten) aldaera %67ko maiztasunez erabiltzen dute eta (teten) aldaera erabili beharrean, (tetan) aldaera erabiltzen dute, %33ko maiztasunez. Arratzun ere helduek (tetan) aldaera %86ko maiztasunez erabiltzen dute eta (teten) aldaera %14ko maiztasunez, baina gazteek (taten) aldaera ere erabiltzen dute %38ko maiztasunez eta, beraz, (tetan) aldaeraren erabilerak behera egin du %50era (-%36) eta (teten) aldaeraren erabilerak ere bai %13ra (-%1).

Ereñon, Nabarnizen eta Foruan, helduek zein gazteek bi aldaerak erabiltzen dituzte, Foruan maiztasun berdinez (%70 tetan; %20 taten); baina, Ereñon (teten) aldaeraren erabilera %43tik %11ra jeitsi da eta Nabarnizen %44tik %29ra.

Bestalde, (teten) aldaeraren beherakada beste hainbat herritan ere gertatu da. Sukarrietan helduen hizkeran %22ko maiztasunez erabiltzen da eta %78ko maiztasunez erabiltzen den (taten) aldaerak erabat hartu du haren lekua gazteen hizkeran. Gernika-Lumon %30eko maiztasunez erabiltzen dute helduek, baita Errigoitin ere, Muxikan %29, Morgan %36ko maiztasunez, Kortezubin %38 eta Ean %22; gazteen hizkeran,, ostera, desagertu egin da aldaera honen erabilera.

Mendatan eta Muruetan, ostera, kontrakoa gertatu da: helduek (tetan) aldaera bakarrik erabiltzen dute lehenengoaren kasuan eta (taten) bigarrenaren kasuan eta gazteek, berriz, (teten) aldaerarekin batera; Muruetan %30eko maiztasunez erabiltzen dute gazteek (teten) aldaera eta Mendatan %29ko maiztasunez.

Azkenik, aldaera hau 4.1.6§ atalean aztertutako (-atu) aldagaiarekin batera uztartuz gero, oro har, esan daiteke gaztelaniaz *-ar* amaiera daukaten aditz partizipioak mailegatzerakoan *-au/-a* amaiera egiten duten hizkeretan *-ten* erabiltzen dela gehienbat eta *-eu/-e* amaiera egiten dutenetan, ostera, *-ten* edo *-teten*. Salbuespenak Ea, Ereño eta Nabarniz dira, hauetan *-au/-a* amaiera egiten baita baina (tetan) aldaera erabiltzen da helduen hizkeran. Ibarangelun ere *-au/-a* amaiera egiten da eta (taten) zein (tetan) erabiltzen dute helduek. Murueta eta Gautegiz-Arteagan gazteen hizkeratik helduen hizkerara gertatutako aldaketak erakusten du *-au>-eu* aldaketarekin batera, (tetan) aldaera sartu dela hizkera horietan. Hala ere, Busturiako hizkeran ez da *-au>-eu* aldaketa gauzatu eta, bestalde, (tetan) aldaera erabiltzen hasi dira gazteak. Arratzun ere -

a bokaldun aldaerak beharrez, *-e* bokaldunak erabiltzen dituzte, baina (taten) aldaera ere erabiltzen dute gazteek. Beraz, esan daiteke gazteen hizkeran, aldakortasuna hareagotzeaz gain, nahasketa ere handiagoa dela.

(tzen) aldagaiak aldaera bitik gora dituenaz, SPSS bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (taten) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,274) 191,000; p < *0,785$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	20,05	401,00
	2,00	20	20,95	419,00
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	191,000
W de Wilcoxon	401,000
Z	-,274
Sig. asintótica (bilateral)	,784
Significación exacta [2*(sig. unilaterial)]	,820 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(tetan) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,982) 164,000; p < *0,327$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	18,73	374,50
	2,00	20	22,28	445,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	164,500
W de Wilcoxon	374,500
Z	-,982
Sig. asintótica (bilateral)	,326
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,341 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(teten) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,314) 122,000; p < *0,022$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza 1,00	1,00	20	24,40	488,00
2,00	2,00	20	16,60	332,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a


	emaitza
U de Mann-Whitney	122,000
W de Wilcoxon	332,000
Z	-2,314
Sig. asintótica (bilateral)	,021
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,035 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.9. (edun) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.9§ atalean deskribatutako (edun) aldagaiak hainbat aldaera izan ditzake: (+b) aldaera, (-b) aldaera, (+z) aldaera eta (-z). 4.1.9. (edun) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 17. eta 18. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



17. Grafikoa: (edun) aldagaia helduengan



18. Grafikoa: (edun) aldagaia gazteengan

17 eta 18. grafikoetan argi ikusten da helduen hizkeran aldaera biak erabiltzen diren herrietan jasandako aldaketa: Gaitegi-Arteaga (%73), Arratzu (%88) eta Foruan (%67) helduek maiztasun handiz erabiltzen dute gazteen hizkeran gailendu den (+b) aldaera (berdez). Sukarrietan eta Elantxoben, helduen hizkeran nagusi den (+b) aldaeraren erabilerak nabarmen egin du behera gazteen hizkeran: Sukarrietan %50etik %33ra (-%17) eta Elantxoben %83tik %60ra (-%23). Busturian ere behera egin du (+b) aldaeraren erabilerak; izan ere, helduek %100eko kasuetan erabiltzen dute eta gazteek, %43ko maiztasunez.

Aitzitik, Gernika-Lumon kontrakoa gertatu da; helduek (-b) aldaera soilik erabiltzen dute (zuriz) eta gazteek, ordea, (+b) erabilerak maiztasun handiagoz erabiltzen dute; %71, alegia.

Azkenik, Bermeon zein Muxikan %44ko maiztasunez erabiltzen dute (+z) aldaera subjektua "hark" denean (urdinez).

(edun) aldagaiak aldaera bitik gora dituenek, *SPSS* bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (-b) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,230) 157,500; p < 0,220$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	22,63	452,50
	2,00	20	18,38	367,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	157,500
W de Wilcoxon	367,500
Z	-1,230
Sig. asintótica (bilateral)	,219
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,253 ^b

- a. Variable de agrupación: adina
 b. No corregido para empates.

(+b) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,990) 165,500; p < *0,323$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	18,78	375,50
	2,00	20	22,23	444,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	165,500
W de Wilcoxon	375,500
Z	-,990
Sig. asintótica (bilateral)	,322
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,355 ^b

- a. Variable de agrupación: adina
 b. No corregido para empates.

(+z) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,471) 190,000; p < *0,639$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	20,00	400,00
	2,00	20	21,00	420,00
Total		40		


Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	190,000
W de Wilcoxon	400,000
Z	-,471
Sig. asintótica (bilateral)	,638
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,799 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.10. (j-) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.10§ atalean deskribatutako (j-) aldagaiak hainbat aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (j) aldaera, (y) aldaera, (dj) aldaera, (dz) aldaera eta (z) aldaera. 4.1.10. (j-) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 19. eta 20. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:





20. Grafikoa: (j-) aldagaia gazteengan

19 eta 20. grafikoetan ikusten den bezala, (dz) aldaerak nabarmen egin du gora Bermeon %30etik %71ra (+%41) eta Elantxoben %18tik %67a (+%49) eta gorakada txikiagoa izan du Mundakan %32tik %35era (+%3); behera egin du, ostera, Ean %82tik %47ra (-%35).

Morgan (dz) aldaera %59ko maiztasunez darabilte helduek, (y) aldaera %18ko maiztasunez eta (z) aldaera %24ko maiztasunez. Gazteek, ordea, (dj) eta (j) aldaerak erabiltzen dituzte, lehenengoa %88ko maiztasunez eta, bigarrena, %12ko maiztasunez.

(j-) aldagaiak aldaera bitik gora dituzenez, SPSS bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (dz) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,516) 185,500; p < *0,607$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	21,23	424,50
	2,00	20	19,78	395,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	185,500
W de Wilcoxon	395,500
Z	-,516
Sig. asintótica (bilateral)	,606
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,698 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(j) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,310) 190,500$; $p < *0,758$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	20,03	400,50
	2,00	20	20,98	419,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	190,500
W de Wilcoxon	400,500
Z	-,310
Sig. asintótica (bilateral)	,757
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,799 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(y) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,367) 189,000$; $p < *0,715$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,95	399,00
	2,00	20	21,05	421,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	189,000
W de Wilcoxon	399,000
Z	-,367
Sig. asintótica (bilateral)	,714
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,779 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(z) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,354) 150,000$; $p < *0,020$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	23,00	460,00
	2,00	20	18,00	360,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	150,000
W de Wilcoxon	360,000
Z	-2,354
Sig. asintótica (bilateral)	,019
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,183 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(dj) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,000) 190,000$; $p < *0,318$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	21,00	420,00
	2,00	20	20,00	400,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a


	emaitza
U de Mann-Whitney	190,000
W de Wilcoxon	400,000
Z	-1,000
Sig. asintótica (bilateral)	,317
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,799 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.11. (zait) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.11§ atalean deskribatutako (zait) aldagaiak hainbat aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (z) aldaera, (dz) aldaera, (y) aldaera, (d) aldaera eta (0) aldaera. 4.1.11. (zait) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 21. eta 22. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



21. Grafikoa: (zait) aldagaia helduengan



22. Grafikoa: (zait) aldagaia gazteengan

21 eta 22. grafikoetan ikusten denez, (y) aldaerak igoera nabarmena, kasu batzuetan harrigarria, jasan du ondoko herrietako hizkeretan: Arratzun (%43tik %83ra), Busturian (%12tik %100era), Ereñon (%36tik %100era), Errigoitin (%14tik %100era), Foruan (%54tik %100era), Gaulegiz-Arteagan (%11tik %43ra), Kortezubin (%12tik %71ra), Morgan (%0tik %11ra), Muruetan (%0tik %100era) eta Muxikan (%68tik %71ra). Aitzitik, behera egin du Bermeon (%76tik %10era), Ean (%24tik %11ra), Gernika-Lumon (%31tik %21era), Ibarrangelun (%11tik %0ra), Mendatan (%37tik %0ra) eta Mundakan (%97tik %0ra).

Berdintsu mantendu diren hizkeren artean Gaulegiz-Arteaga dugu, bai helduek bai gazteek (d) eta (y) aldaerak erabiltzen baitituzte; baina helduek (d) aldaera %89ko maiztasunez darabilte eta gazteek, ostera, %57ko maiztasunez, beraz, (d) aldaerak behera egin du gazteen hizkeran. Ean ere helduek zein gazteek aldaera berdinak erabiltzen dituzte; helduek (dz) aldaera %42ko maiztasunez darabilte; gazteek, ordea, %61eko maiztasunez, beraz, gora egin du aldaera honen erabilerak. (z) aldaeraren erabilerak, berriz, behera egin du gazteen hizkeran %29ko maiztasunez erabiltzen baitute eta helduek %33ko maiztasunez. (y) aldaera ere gutxiagotan erabiltzen dute gazteek, %11ko maiztasunez; helduek, aldiz, %24ko maiztasunez.

Bestalde, herri batzuetan helduek erabiltzen ez dituzten aldaerak erabiltzen hasi dira gazteak. Esate baterako, Morgan (d) aldaera nagusitu da gazteen hizkeran %89ko maiztasunez eta (y) aldaera ere erabiltzen da %11ko maiztasunez; baina helduen hizkeran (dz) eta (z) aldaerak bakarrik erabiltzen dira. Mundakako hizkeran ere antzekoa gertatu da; izan ere, gazteen hizkeran (d) aldaera soilik erabiltzen da, baina

helduen hizkeran (y) aldaera da nagusi %97ko maiztasunez erabiltzen baita eta (z) %3ko maiztasunez.

Aldaera hauek herri horietan erabiltzen hasteak ez dauka harriduratik askorik; izan ere, ikus daiteke ondoko hizkeretan aldaera horiek erabiltzen direla eta, beraz, herri horretako pertsonekin harremanetan egotearren sartu ahal izan direla aldaera horiek herriotan.

Azkenik, interesgarria izango litzateke guk aztertutako belaunaldi bien artean dauden gainontzeko adin-tarteetako hizkerak aztertzea, batez ere aldaketa nabarmena jasan duten hizkeren artean aldaketaren jarraipen zehatzagoa egin ahal izateko.

(zait) aldagaiak aldaera bitik gora dituenek, *SPSS* bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (z) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -3,101) 94,000; p < 0,003$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	25,80	516,00
	2,00	20	15,20	304,00
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	94,000
W de Wilcoxon	304,000
Z	-3,101
Sig. asintótica (bilateral)	,002
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,004 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(y) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,000) 163,500; p < *0,318$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	18,68	373,50
	2,00	20	22,33	446,50
Total		40		

Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	163,500
W de Wilcoxon	373,500
Z	-1,000
Sig. asintótica (bilateral)	,317
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,327 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(dz) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -3,575) 83,000$; $p < *0,001$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	26,35	527,00
	2,00	20	14,65	293,00
Total		40		

Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	83,000
W de Wilcoxon	293,000
Z	-3,575
Sig. asintótica (bilateral)	,000
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,001 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(d) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,696) 144,500$; $p < *0,091$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	17,73	354,50
	2,00	20	23,28	465,50
Total		40		

Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	144,500
W de Wilcoxon	354,500
Z	-1,696
Sig. asintótica (bilateral)	,090
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,134 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(0) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,078) 160,000; p < *0,039$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	18,50	370,00
	2,00	20	22,50	450,00
Total		40		

Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	160,000
W de Wilcoxon	370,000
Z	-2,078
Sig. asintótica (bilateral)	,038
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,289 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.


4.2.1.12. (it) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.12§ atalean deskribatutako (it) aldagaiak hainbat aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (tt) aldaera, (tx) aldaera, (tz) aldaera eta (it) aldaera. 4.1.12. (it) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin

batetik bestera gertatutako aldaketak. 23. eta 24. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



23. Grafikoa: (it) aldagaia helduengan



24. Grafikoa: (it) aldagaia gazteengan

23 eta 24. grafikoetan ikusten denez, helduen kasuan Gernika-Lumon eta Ibarrangelun jada altua da (tx) aldaeraren erabilera (zuriz), %60 bietan. Beraz, ez da hain harritzekoa Ibarrangelun (tx) nagusitu izana gazteen hizkeran eta Gernika-Lumon, aldiz, (tz) nagusitu izana (berdez). Ikerketa honetan badirudi aldaketa bortitza gertatu dela helduen hizkeratik gazteenera, baina aurreko ikerketa batean (2012: 218) erakutsi genuen 5 adin-tarte berezirik aldagai honek Gernika-Lumon izan duen aldaketa graduala.

Foruan eta Ean gertatutako aldaketa, ostera, nabarmenagoa da, helduen hizkeran ez baita hain maiztasun handiz erabiltzen (tx) aldaera. Ean %40ko maiztasunez darabilte

helduek; gazteek %100. Foruan, aldiz, %29ko maiztasunez darabilte helduek; gazteek, berriz, %100ean darabilte (tz) aldaera, beraz, aldaketa bortitzagoa izan da.

Beste alde batetik, grafikoetan ikus daiteke Ereñoko helduen kasuan aldaera bakarra dela (tx), baina gazteek (tz) aldaera ere erabiltzen dutela %20ko maiztasunez bada ere. Errigoitin, ostera, (tt) aldaera da bakarra helduen hizkeran (urdinez) eta gazteek (tx) aldaera erabiltzen dute %63ko maiztasunez eta (tz) %38ko maiztasunez. Muxikako helduen hizkeran ere (tt) da aldaera bakarra, baina gazteek (tx) aldaera darabilte %60ko maiztasunez eta (tz) %40ko maiztasunez.

Nabarnizeko helduen hizkeran ere (tx) da aldaera bakarra, baina kasu honetan kontrako bilakabidea gertatu da; izan ere, gazteek (tt) aldaera zaharra erabiltzen dute %75eko maiztasunez eta (tx) %25eko maiztasunez soilik.

(it) aldagaiak aldaera bitik gora dituenek, *SPSS* bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (tt) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,411) 124,000; p < *0,017$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	24,28	485,50
	2,00	20	16,73	334,50
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	124,500
W de Wilcoxon	334,500
Z	-2,411
Sig. asintótica (bilateral)	,016
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,040 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(tx) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,418) 185,500; p < *0,677$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	21,23	424,50
	2,00	20	19,78	395,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	185,500
W de Wilcoxon	395,500
Z	-,418
Sig. asintótica (bilateral)	,676
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,698 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(tz) aldaerari dagokionez adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -3,340) 110,000; p < 0,002$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	16,00	320,00
	2,00	20	25,00	500,00
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	110,000
W de Wilcoxon	320,000
Z	-3,340
Sig. asintótica (bilateral)	,001
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,014 ^b



a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.13. (ind) eta (ild) aldagaiak

Esan bezala, 3.5.2.13§ atalean deskribatutako (ind) eta (ild) aldagaiak hainbat aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (ind)/(ild) aldaera eta (iñy)/(illy) aldaera

4.1.13. (ind) eta (ild) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 25. eta 26. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



25 eta 26. grafikoetan ikusten denez, helduen kasuan aldaera biak erabiltzen dituzten herrietan %60tik gorako maiztasunez erabiltzen dute aldaera palatalizatua (larrosaz). Hauen artean Arratzu (%60), Ereño (%70), Ibarrangelu (%67) eta Kortezubi (%60) daude. Elantxoben, ordea, %10eko maiztasunez erabiltzen da aldaera palatalizatua, beraz, aldaera hedatuena ez palatalizatua izan arren (zuriz), aldaera palatalizatuak ez dira arrotzak helduen hizkeran. Grafikoean ikus daitekeenez, 5 herri hauetako gazteen hizkera batzuetan nabarmen egin du behera aldaera palatalizatuaren erabilerak; Ereñon %20ko maiztasunez erabiltzen dute gazteek (-%50) eta Ibarrangelun %40ko maiztasunez (-%27). Arratzun, ostera, gora egin du aldaera palatalizatuaren

erabilerak gazteen hizkeran, hauek %70eko maiztasunez erabiltzen baitute (+%10); Elantxoben ere gora egin du, gazteek %50eko maiztasunez erabiltzen baitute. Kortezubin, aldiz, berdin mantendu da gazteen hizkeran, %60ko maiztasunez erabiltzen baitituzte aldaera palatalizatuak.

Bestalde, helduek aldaera palatalizatua %100eko maiztasunez erabiltzen duten lekuetan ere beherakada nabarmena jasan du gazteen hizkeran. Ean %50eko maiztasunez erabiltzen dute gazteek aldaera palatalizatua (-%50), Errigoitin eta Muruetan %70eko maiztasunez (-%30), Gernika-Lumon %60 (-%40), Morgan eta Mundakan %80 (-%20) eta Muxikan %20ko maiztasunez (-%80). Baina denetan aldaketa bortitzena jasan duena Gautegiz-Arteaga izan da, helduek %100eko maiztasunez erabiltzen baitute aldaera palatalizatua eta gazteen hizkeran, ostera, erabat arrotza da aldaera hau eta, beraz, aldaera ez palatalizatua erabiltzen dute %100ean.

Aldaketarik jasan ez duten herrien artean ditugu Bermeo, Busturia, Forua, Mendata eta Sukarrieta, hauetan heldu zein gazteek %100eko maiztasunez baitarabilte aldaera palatalizatua. Nabarniz ere aldaketarik jasan ez duen hizkeren artean dugu, bertako heldu zein gazteek %100ean erabiltzen baitute aldaera ez palatalizatua.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (ind) eta (ild) aldagaietan adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,481)$ 113,500; $p < *0,014$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	24,83	496,50
	2,00	20	16,18	323,50
	Total	40		

Estadísticos de prueba^a


	emaitza
U de Mann-Whitney	113,500
W de Wilcoxon	323,500
Z	-2,481
Sig. asintótica (bilateral)	,013
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,018 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.14. (-kin) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.14§ atalean deskribatutako (-kin) aldagaiak aldaera bi ditu Busturialdeko hizkeretan: (-kaz) aldaera eta (-kin) aldaera. 4.1.14. (-kin) aldagaia§ atalean azertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 27. eta 28. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



27. Grafikoa: (-kin) aldagaia helduengan



28. Grafikoa: (-kin) aldagaia gazteengan

27 eta 28. grafikoetan ikusten denez, ez da harritzekoa Ea eta Mendatan (kin) aldaera mantendu izana gazteen hizkeran (naranja); izan ere, helduek %100eko maiztasunez erabiltzen baitute. Aldaera hau herriko hizkeraren nortasunaren adierazletzat dute eta, beraz, gainontzeko hizkeretatik bereizten dituen da.

Arratzun, ordea, nabarmentzekoa da (kin) aldaeraren igoera, helduek %25eko maiztasunez erabiltzen baitute eta gazteek %100. Arratzun gertatu da gazteek (kin) aldaera hartu dutela herriko forma bakartzat eta muturrera eraman dute honen erabilera. Horrela, Gernika-Lumoko hizkeratik bereiziko dituen adierazle bat daukate gaur egun.

Era berean, (kin) aldaerak beherakada nabarmena izan du Sukarrietan, helduek %75eko maiztasunez erabiltzen baitute eta gazteen hizkeran, aldiz, arrotza da. Ibarangelu, Kortezubi eta Nabarnizen ere antzeko bilakaera gertatu da: helduen hizkeran %100eko maiztasunez erabiltzetik gazteen hizkeran arrotz izatera pasatu da (kin) aldaera. Herri hauetako gazteek (kin) aldaera euskara estandarrekin lotzen dute eta, beraz, euskalkian ari direnean (kaz) aldaera erabiltzearen alde egin dute, (kin) guztiz baztertuz euskalkirako.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (-kin) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,574) 154,500; p < *0,116$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	18,23	364,50
	2,00	20	22,78	455,50
Total		40		


Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	154,500
W de Wilcoxon	364,500
Z	-1,574
Sig. asintótica (bilateral)	,115
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,221 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.15. (joan-eroan) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.15§ atalean deskribatutako (joan-eroan) aldagaiak hiru aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (doa), (doie) eta (due). 4.1.15. (joan-eroan) aldagaia§ atalean azertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 29. eta 30. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:





29 eta 30. grafikoez 52 eta 53. mapetan ikus daitezkeena berresten dute. Ikus daitezkeenez, ez dago aldakortasunik pertsonengan; hau da, bakoitzak aldaera bat edo bestea erabiltzen du eta soilik aldaera hori. Aldaketa gertatu den herrietan (Mundaka, Murueta, Kortezubi) interesgarria litzateke aldagai hau sakonago aztertzea, tarteko adin-taldeetako gauzapean, generoarekin, ikasketa-mailarekin eta beste hainbat gizarte-faktoreekin uztartuz gero, aldaketa nola gertatu den hobeto ezagutuko genukeelako.

(joan-eroan) aldagaiak aldaera bitik gora dituzenez, SPSS bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (doa) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = 0,000) 200,000; p < *1,001$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	20,50	410,00
	2,00	20	20,50	410,00
Total		40		

	emaitza
U de Mann-Whitney	200,000
W de Wilcoxon	410,000
Z	,000
Sig. asintótica (bilateral)	1,000
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	1,000 ^b

a. Variable de agrupación: adina
 b. No corregido para empates.

(doie) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,655) 180,000$; $p < *0,514$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,50	390,00
	2,00	20	21,50	430,00
Total		40		

Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	180,000
W de Wilcoxon	390,000
Z	-,655
Sig. asintótica (bilateral)	,513
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,602 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(due) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,411) 190,000$; $p < *0,682$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	21,00	420,00
	2,00	20	20,00	400,00
Total		40		



Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	190,000
W de Wilcoxon	400,000
Z	-,411
Sig. asintótica (bilateral)	,681
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,799 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.16. (bi) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.16§ atalean deskribatutako (bi) aldagaiak aldaera bi ditu Busturialdeko hizkeretan: (I+bi) aldaera eta (bi+I) aldaera. 4.1.16. (bi) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 31. eta 32. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



Esan bezala, helduen kasuan ez dago inolako aldakortasunik (bi) aldagaiari dagokionez herri guztietan nagusi eta bakar baita (I+bi) aldaera (urdinez); gazteen hizkeran, ostera, (bi+I) aldaera (zuriz) indar handiz sartu da. 32. grafikoari begiratuta 55. mapan islatzen dena ikus daiteke eta, aldaera biak erabiltzen diren hizkeretan, zenbateko maiztasunez erabiltzen den ere. Ajangizen, Gernika-Lumon zein Sukarrietan, aldaera biak erabiltzen dira, baina bietan gehien erabiltzen dena (bi+I) aldaera berria da;

Ajangizen %60ko maiztasunez, Gernika-Lumon %83ko maiztasunez eta Sukarrietan %67ko maiztasunez.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (bi) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -4,510) 60,000$; $p < 0,001$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	27,50	550,00
	2,00	20	13,50	270,00
Total		40		



	emaitza
U de Mann-Whitney	60,000
W de Wilcoxon	270,000
Z	-4,510
Sig. asintótica (bilateral)	,000
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,000 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.17. (hau) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.17§ atalean deskribatutako (hau) aldagaiak bi aldaera ditu Busturialdeko hizkeretan: (hau+I) aldaera eta (I+hau) aldaera. 4.1.17. (hau) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 33. eta 34. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



33 eta 34. grafikoetan ikusten denez, helduen kasuan aldakortasuna erakusten duten hizkerak Busturia, Forua, Mundaka eta Muxika dira. Ikus daitekeenez, guztietan da nagusi (erak+I) aldaera (urдинez); Busturian %80ko maiztasunez erabiltzen da, Foruan %73, Muxikan %75 eta Mundakan, berriz, %56.

Gazteen hizkeran, ostera, 34. grafikoan ikus daitekeenez, aldakortasuna nabarmenagoa da eta gehienetan (I+erak) aldaera berria da nagusi (arrosaz). Batetik, lehen arrotza zen aldaera hori Errigoitin %58ko maiztasunez erabiltzen da, Gernika-Lumon %67, Ibarangelun %83, Sukarrietan %67 eta Nabarnizen %85. Bestetik, maiztasun txikiz erabiltzen zen aldaera berri horrek gora egin du Mundakan %73ra (+%17) eta Muxikan %100era (+%25).

Ez da harrizkoa aldaera honek izandako hedadura nabarmena; izan ere, hau da belaunaldi berriei euskara estandarrekin eskolan erakutsi zaien aldaera bakarra.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (hau) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa estatistikoki esanguratsua da ($U = (Z = -2,081) 136,000$; $p < *0,038$):

Rangos				
	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	23,70	474,00
	2,00	20	17,30	346,00
Total		40		


Estadísticos de prueba ^a	
	emaitza
U de Mann-Whitney	136,000
W de Wilcoxon	346,000
Z	-2,081
Sig. asintótica (bilateral)	,037
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,086 ^b


a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

4.2.1.18. (loi) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.18§ atalean deskribatutako (loi) aldagaiak bi aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (loi) aldaera eta (loixe) aldaera. 4.1.18. (loi) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 35. eta 36. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:





36. Grafikoa: (loi) aldagaia gazteengan

35 eta 36. grafikoez 58 eta 59. mapetan ikusitakoa berresten dute; hau da, helduen hizkeran aldagai honi dagokionean ez dago aldakortasunik herrian bertan; bai, ordea, gazteen hizkeran. Aldakortasuna dago bai Ereñon bai Muruetan, aldaera biak erabiltzen baitituzte gazteek. Ereñon maiztasun berberaz erabiltzen dute (loi) zein (loixe) aldaera; hau da, %50 eta %50. Muruetan, ostera, gazteen hizkeran (loi) aldaera da nagusi (zuriz), %67ko maiztasunez erabiltzen baita; baina (loixe) aldaera ere ez da arrotza (arrosaz), %33ko maiztasunez erabiltzen baitute gazteek.

SPSSren bidez egindako azterketa estatistikoaren arabera, (loi) aldagaian adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -0,906) 172,000$; $p < *0,366$):

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	19,10	382,00
	2,00	20	21,90	438,00
Total		40		


	emaitza
U de Mann-Whitney	172,000
W de Wilcoxon	382,000
Z	-,906
Sig. asintótica (bilateral)	,365
Significación exacta [2*(sig. unilateral)]	,461 ^b

a. Variable de agrupación: adina


b. No corregido para empates.

4.2.1.19. (lar) aldagaia

Esan bezala, 3.5.2.19§ atalean deskribatutako (lar) aldagaiak lau aldaera izan ditzake Busturialdeko hizkeretan: (lar) aldaera, (-egi) aldaera, (lar-egi) aldaera eta (larrei) aldaera. 4.1.19. (lar) aldagaia§ atalean aztertu dugu aldaera bakoitzak duen hedadura geografikoa eta adin batetik bestera gertatutako aldaketak. 37. eta 38. grafikoei erreparatuz gero, ostera, ehunekoetan ikus daitezke bai helduek, bai gazteek zenbateko maiztasunez erabiltzen duten aldaera bakoitza:



37. Grafikoa: (lar) aldagaia helduengan



38. Grafikoa: (lar) aldagaia gazteengan

37. grafikoari erreparatuta ikus daiteke Bermeo, Ereño, Gautegiz-Arteaga eta Nabarnizeko helduen hizkeran presentzia garrantzitsua duela (lar-egi) aldaerak (berdez); Bermeo eta Gautegiz-Arteagan %33ko maiztasunez erabiltzen da eta Ereño eta Nabarnizen %25eko maiztasunez.

38. grafikoari begiratuta, ordea, ikus daiteke aldaketa nabarmena gertatu dela helduen hizkeratik gazteen hizkerara eta aldakortasun geografikoa areagotu egin dela.

Interesgarria litzateke herri bakoitzean tarteko adin-taldeen hizkera aztertzea, aldaketaren nondik norakoak sakonago aztertu ahal izateko.

(lar) aldagaiak aldaera bitik gora dituenek, *SPSS* bidezko azterketa estatistikoa egiteko aldaera bakoitzaren emaitzak banaka aztertu behar dira aldaera bakoitzean adinak duen eragina jakiteko. (lar-egi) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,706) 146,500; p < *0,089$):

Rangos

	adina	N	Rango promedio	Suma de rangos
emaitza	1,00	20	17,83	356,50
	2,00	20	23,18	463,50
Total		40		

Estadísticos de prueba^a

	emaitza
U de Mann-Whitney	146,500
W de Wilcoxon	356,500
Z	-1,706
Sig. asintótica (bilateral)	,088
Significación exacta [2*(sig. unilaterial)]	,149 ^b

a. Variable de agrupación: adina

b. No corregido para empates.

(lar) aldaerari dagokionez, adinaren arabera dagoen aldaketa ez da estatistikoki esanguratsua ($U = (Z = -1,724) 160,500; p < *0,86$):

Rangos

